



2013-04-15
ASTELEHENA
405. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Gaztetxeetan zentzua duen edozer egin daiteke, baita musika klasikoa ere"

Pili Alvarez | Soziologoa | 7

Jaiotzean hiltzen diren haurren doluan laguntzen duen bloga | 2



Generoaren gainean, iritziak trukatu zituzten Antixenan | 32



lazkoa baino suabeagoa dator aurtengo Otxia txakolina | 13

Kalera, atez atekoaren kontra

Bergara Garbia plataformak deituta egubakoitzean manifestazio jendetsua egin zuten Bergarako kaleetan, atez atekoaren kontra. | 4



San Martin plazatik abiatu zen manifestazioko lehenengo metroak, euripean, Bidekurutzeta kalean gora. | IMANOL SORIANO



Desfileko une bat. | ISORIANO

Azoka produktuak saltzeko, eta beste gauza askotarako

Zapatuan Arrasaten egin zuten Azoka Egunak jende asko batu zuen, eta erakutsi zuten azoka bera gauza askotarako erabil daitekeen gunea dela, posible dela biziberritzea. Eguerdian jende asko ibili bazen ere, arratsaldeko moda desfileak izan zuten arrakasta handiena. | 12

Urkullu lehendakaria Coprecin izango da gaur

Aretxabaletako kooperatibak 50 urte betetzen dituelako | 5

Hankaluzetrail taldea sortu dute Bergaran, mendi lasterketetara taldean joateko asmoaz | 16

Ford Mugarrik azkenera arte borrokatu beharko du

Liga irabazteko garaipen bakarra behar dute | 24



Talde argazkia. | ISORIANO

Sergio Treviño da Fagor Etxetresnen zuzendari berria

Fabian Bilbaok utzitako kargua beteko du | 6

Jaiotzean hil den umetxoaren dolua gainditu egin daiteke

- ▶ 'Guretxikixak.org' bloga sortu dute lau familiak
- ▶ Jaio aurretik, jaiotzean eta jaio eta denbora gutxira hil diren umeen gurasoendako da



Guretxikixak.org blogaren egileak, Iker, Eider, Kristina, Iñaki, Aintzane, Aitor, Belen eta

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Guretxikixak.org familiei laguntzeko baliabide berria, blog berria da. Erditzerakoan edo jaio baino lehenxeago umea hil zaien familiei itxaropena eta mezu positiboa ekarri nahi die. Eta sortzaileak egun baten gaur familia horiek dauden lekuan egon ziren debagoiendar batzuk dira. Euren galera eta min hori jasan zutelako, badakite gainditu daitekeela, eta horretan lagundu nahi diete beste batzuei. Hain zuzen, dolu perinatalaren gaineko bloga da. Hilkortasun perinatala hau da: haurdunaldiko 28. astetik jaio eta zazpigarren egunera arteko epean hiltzen denean umea. Hego Euskal Herrian eta Espainian, 2005ean, jaio ziren 1.000 umetik bost heriotza perinatal gertatu zen (tasa: mila jaiotzako 4,9). Kopuruak oso antzekoak dira garatutako herrialde guztietan; esaterako, urte berean, mila jaiotzako 4,7 heriotza perinatal tasa erregistratu zen.

Azken urteetan hasi dira familia afektatuak ume jaioberri edo jaio ez ziren ume horien gaineko kontzientzia pizten jendartean, eta errekonozimendua eskatzen. Eta errekonozimendu horren eskutik dator baita ume horien doluaren

beharra errekonozitzea eta hura lantzea.

Hori da *Guretxikixak.org* blogaren helburuetako bat. Debagoieneko lau bikote, lau familia daude *Guretxikixak.org* blogaren atzean, Antzuolako hiru eta Aretxabaletako bat: Iker, Eider, Kristina, Iñaki, Aintzane, Aitor, Belen

eta Iratxe; eta blogaren hasieran euren txikixak daude: Ekaitz, Xabi, Ihintza eta Jakes. Jaiotzerakoan edo jaio baino lehenago hil diren umeak ia-ia ezkutuan geratzen dira, errekonozimendu barik, eta hain zuzen hortik hasi nahi dute blogaren sortzaileek: "Ematen du ez dela ezer gertatu,

jendeak ez zuelako ume hori eza-gutu; baina bai, gertatu da; gure seme-alaba zen, eta hil egin da", esaten dute. Horregatik, gurasoetako bik, Kristina Pavok eta Eider Otxoak Goiena *Magazine*-n esan zuten moduan, "garrantzitsua" zen euren dako blogean seme-alaben izenak ipintzea: "Gure seme-alabak dira, eta errekonozimendu modu bat da, euren dako eta guretako".

ra berean daudenei laguntzea", esaten du Eider Otxoak. Dena dela, gurasoendako ez ezik, gurasoen ingurukoendako ere baliagarria da *Guretxikixak.org*, izan ere, Kristinaren hitzetan, "fami-liakoak eta lagunak zu laguntzen saiatzen dira, baina ez dakite nola".

Ospitaleei eskaerak

Kritika ere adierazten dute familia horiek. Nahiz eta azkenean profesional onak topatu zituzten euren laguntzeko, hasieran, inguruan topatu zituzten profesionalak ez zirela lagundu esaten dute. Orain, helburuetako bat hau dute: "Zuzenean beste batzuei esatea ze profesional dituzten aukeran". Norberak gustukoena bilatu dezake, baina euren gomendio batzuk egiten dituzte: "Gure konfiantza osoa dute, guri lagundu egin zigutelako", esaten dute. Hauek aipatzen dituzte: Bidegin elkarte eta Patxi Izagirre.

Beste kritika bat osasun sistemari eta ospitale batzuei egiten diete. Kristina Pavok honako dio: "Oso inportantea da ospitaleko profesionalak jantzita egotea, eta oraindik hutsune handia dago.

Gurasoendako eta ingurukoendako

Guretxikixak.org blogak baliabide asko ditu gurasoendako eta ingurukoendako:

- ▶ Testigantza batzuk: dagoeneko bi daude sarean, eta norberak berea ere utz edo bidal dezake.
- ▶ Hainbat komunikabide argitaratutako artikuluak. Badago bat 2008. urtekoa, erreibindikazio hau berri-berria ez dela erakusten duena.
- ▶ Liburu eta txosten gomendatuak. Heriotza modu orokorrean lantzen dutenak ere badaude.



Bloga. | GOIENA

- ▶ Webgune eta blog batzuetara loturak.
- ▶ Bideo batzuk ikusteko aukera dago, eta audioak ere badaude. Filmen gomendioak ere bai.

KUGA BELAUNALDI BERRIA.

PUNTAKO TEKNOLOGIAREKIN,
ZURE BIZITZA ERRAZTEKO.

Ford Kuga Gama. Batez besteko kontsumoa: 5,2 l-tik 7,7 l-ra / 100 km-ko. CO₂ isuria: 139 gramotik 179 gramora / km-ko.

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

ford.es



Iratxe, euren beste seme-alabekin. | IKER BARANDIARAN

Badabiltza, hala ere. Aurrea hartu behar zaie kasu horiei, eta, gure ustez, prestatu egin behar dira. Zorionez, erditzean umea hiltzea ez da askotan gertatzen, baina gertatu egiten da batzuetan. Beraz, hori ere bada gure eskaera bat: ginekologoak, emaginak, erizainak... formatzea. Bikote horrek eta ingurukoek duten min hori ez dute kentzen, baina bai erraztu".

Horren harira, Debagoieneko familia horietako bat Eskualde Ospitalera joan zen proposamen zehatzekin. "Beste ospitale batzuetako protokoloak oinarri hartu eta proposamen hori egin zieten, lehen ez zegoen ezer-eta. Hain zuzen ere, profesional bakoitzak jakintzaren, intuizioaren edo motibazioaren arabera erantzun behar zion egoera horri. Eta, badakigu, baita ere, Debagoieneko Ospitaleko zenbait langilek gaiari buruzko formakuntza jaso eta gaiari buruzko informazioa lantzen ari direla azken urtean", esaten dute guraso horiek. Izan ere, umea hiltzearen kolpea oraindik okerragoa izan daiteke zenbait jokabide txarren ondorioz: "Gure umeen kasuetan, adibidez, deitura honekin "izendatuak"



izan ziren: "legajo de abortos, feto varón...". Ikusten duzuen moduan, zure seme edo alabaz hitz egiteko oso modu gordin eta krudela da", esaten dute gurasoek.

Osakidetzak kontuan hartzen ditu horrelako eskaerak. Debagoieneko Ospitaleak honakoa dio: "Debagoieneko Ospitaleak badaki dolu perinatala zein garrantzitsua den, eta hura behar dutenei ahal duen laguntza guztia emateko gertu dago. Hori eskaintzeko lanean gabiltza, eta inplikaturako langile guztiendako gida-liburu kliniko jakin bat daukagu, dolu perinatala, modu globalean, ondo landuko dela bermatzen duena".

Debagoieneko gurasoek, beste proposamen batzuen artean, hauek egiten dizkiete dena delako ospitaleko edo osasun zentroko langileei: heriotzaren berri modu egokian ematea gurasoei, biei batera, hala badagokio; ama bi oheko logela huts baten ingratzea, bikotekidea edo beste norbait ondoan egon dadin, eta inola ere ez umea aldamenen duen ama baten ondoan; gurasoak egin eta erabaki beharrekoen gainean ondo eta garbi informatzea; eta umetxoari dagokionez, ospitaleko langileek hura jantzi, kumatxoan utzi eta beste edozein jaioberriren moduan tratatu.

Argazkia ateratzeko aukera

Gurasoek edo familiakoek ere egin dezakete zerbait dolu lantzen hasteko: umetxoari argazkiak atera. Blogaren egileek gomen datu egiten dute: "Momentuan makabroa-edo iruditu daitekeen arren, denborarekin maite ditugun pertsonen oroigarriak izatea oso garrantzitsua gerta daiteke doluari aurre egiteko".

Dolua da gakoa. Kristina Pavok eta Eider Otxoak Goiena telebistan esan zuten seme-alaba horren heriotzaren mina gainditu egin

Heriotza, bizitzaren beste zati bat

- Dolua ezinbesteko prozesua edo bizipena da, heriotza baten ondoren norbera sendatzeko. Lan bat ere bada, kosta egiten delako. Adu batzuek diote, heriotza ez ezik, beste edozein galera handiren kasuan ere dolua egin behar dela.
- Adu batzuek doluaren hiru etapa edo pauso bereizten dituzte. Lehenengo, heriotza edo galera ez da onartzen. Normala da haserretzea, norberaren sinismenei uko egitea eta azalpenak eta errudunak bilatzea. Fase horretan, norberak hitz egiteko behar handia dauka. Pixkana-pixkana, norberak onartu egiten du pertsona

- hori hil egin dela eta ez dela itzuliko. Tristurak hartzen du haserrearen lekua.
- Dolua bere fase zorrotzengatik sartzen da. Normala da, besteak beste, ezertarako gogorik ez izatea, gutxi irtetea, bakarrik egon nahi izatea... Baina garrantzitsua da dolua egiten dabilen horren ondoan egotea; ez hainbeste aholkuak ematea.
- Dolua ondo badoa, azkenean bizitzeko ilusioa berreskuratzen da. Izandako galera norberaren bizitzaren zati bihurtzen da, ez da hura inoiz ahazten, baina orain esperientzia positibo bihurtzen da, oroitzapen onekin eta ikasgaiekin.

daitekeela; baina, horretarako, gurasoek, ume horren anai-arrebek eta, oro har, familia osoak dolua egin behar du. "Min hori gorde edo ahaztu nahi dugu, baina ezin da. Bizi egin behar da, eta denbora eman behar zaio. Oso zaila da hori. Lehenengo momentuan gu ere ez ginen dolua egitera animatu, baina, mesedez, hori gertatzen zaien gurasoek egin dezatela", esan du Eider Otxoak.

Dolua ospitalean bertan has daiteke. Horretan ere, osasun sare publikoan gehiago egin daitekeela uste dute: "Euskal Herrian badira dolua lantzen laguntzen duten psikologo pribatuak, eta baita arlo publikoan ere; Euskal Autonomia Erkidegoan bada, dolu perinatalari buruzko berezko programa bat: Brazos Vacíos izeneko dolu perinatalerako programa, hain zuzen ere. Hala ere, oraingoz Arabako herrialdean bakarrik jaso daiteke laguntza hau, eta bertan errolatua egotea ezinbestekoa da".

Izen-abizenekin

Beste gauza bat ere lortu da azken urteetan: hildako umeari nortasun juridikoa aitortzea, bere izen-abizenekin. Izan ere, legea aldatu zuen 2011n Espainiako Gobernuak, eta 2014ko uztailan sartuko da indarrean. Legeak honakoa dio orain: sei hilabete haurdunaldiaren ondoren hiltzen bada umea, Erregistro Zibilean inskribatu daiteke, umearen izen-abizenekin.

Gurasoei nola lagundu

ZER EGIN

- Entzun. "Askotan, ez duzu ezer esan beharrik; bakarrik egon hor, eta entzun", dio Kristina Pavok. Utzi gurasoei barruak husten; ez isilarazi.
- Aita eta ama berdin tratatu. Aitek amek bezainbesteko laguntza behar dute.
- "Sentitzen dut" esan, gertatu zaienari buruz eta duten minari buruz.
- Erabili umearen izena, eta jaiotza data jasotzen edo egutegian eta gogoratu familiari hurrengo urteetan ere.

ZER EZ EGIN

- Ez izan gurasoak ukitzeko beldurrik. Sarritan kontaktu fisikoak milaka hitzek baino gehiago esaten du.
- Ez alde egin zuk duzun inpotenziagatik, edo ez dakizulako zer esan.
- Ez esan honelakoak: "Izango duzu beste bat", "Denborak dena sendatzen du", "Zure beste umeengatik gogorra izan behar duzu" eta antzekoak.

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04



Esan baietz betiko

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotztasuna pisua gaitzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa



Manifestazioa Ramon Maria Lili kaletik igarotzen. | IMANOL SORIANO

Manifestazio jendetsua atez atekoaren kontra Bergaran

- ▶ Antolatzaileen esanetan, 4.000 pertsona izan ziren manifestazioan
- ▶ Udaltzainen kalkuluen arabera, 1.500-1.600 manifestari egon ziren

TXOMIN MADINA | BERGARA

Lehen euri tantak erortzen hasi zirenean abiatu zen egubakoitz iluntzean Bergarako San Martin plazatik bosgarren edukiontzia alde eta atez atekoaren kontra egiteko eskatu zuen manifestazioa. Herriko bertako jendea ez ezik, Debagoieneko zein Gipuzkoako beste hainbat herritako pertsonak ere hartu zuten parte manifestazioan. Hala, 5. *Edukiontzia bai! 4691 sinadura. Atez atekoari ez!* zioen pankarta nagusiaz gain, beste bi ere ikusi ziren: *Legazpiko atez atekoaren kontrako plataformakoa eta Gipuzkoako atez*

atekoaren kontrako plataformen koordinakundekoa. Ibarreko EAJ-ko hainbat zinegotzik ere egin zuten bat manifestazioarekin.

Isil antzean hasi arren, lehenengo minututik entzun ziren hainbat manifestarik eroandako txilibitu hotsak eta aurrera egin ahala, ugaritzen joan ziren aldarrikapen oihuak. Ia ordubeteren ostean, San Martin plazan amaitu zen manifestazioa, eta bertan Gipuzkoako plataformen koordinakundeko ordezkariak hartu zuten hitza. Besteak beste, bergararrei eskerrak eman zizkieten atez atekoaren kontra abian jarritako

ekimenengatik. Salatu zuten era berean Bildu inposizioaz baliatzen ari dela atez atekoa ezartzeko.

Kopuru dantza

Bergara Garbia plataformako bozeramaile Josu Leturiak manifestazioaren balorazio oso positiboa egin zuen: "Oso ondo joan da dena. Jendea kalera irten eta manifestatzeko eskubidea izan du; bergararrak irten dira kalera, eta hori positiboa izan dela uste dugu".

Bere hitzetan, manifestazioan 4.000 pertsona egon zirela kalkulatu dute. "Manifestazioaren

buruan egon naiz, eta esan didate, Ertzainen etxe ondoko palmerrara heldu garenean, jendea oraindik plazatik irteten zebilela". Bergarako udaltzainen bestalde, adierazi dute euren kalkuluen arabera 1.500-1.600 pertsona inguru egon zirela manifestazioan.

Bergaratik kanpoko herritar eta plataformetako presentziarekin, euren babesa sentitu dutela gaineratu du Leturiak. "Normala da beste herri batzuetako jendea etortzea; beste herri batzuetan ere arazo bera dute-eta".

Bere esanetan, Udal Gobernuak atez atekoa ezartzea era

MARIA ISABEL
URTAZA
BERGARA



"Manifestaziori babesa emateko etorri naiz, ni neu ere atez atekoaren kontra nagoelako. Eskatzen dudana da jendearen hitza entzun dezatela".

MIKEL
ALBERDI
LEGAZPI



"Legazpiko plataformatik laguntzera etorri gara. Erantzuna ona izan da: ikusi besterik ez dago balkoietan zenbat poltsa dauden eta jende asko bildu gara hemen".

JOSU
EZKURDIA
ESKORIATZA



"Manifestazioa baino garrantzitsuagoa da herrietan zenbat sinadura jaso diren: ordua da Bilduko alkateek behingoz herriari kasu egin diezaioten".

MARIA LUISA
NOGAL
BERGARA



"Atez atekoaren kontra nago ordutegiengatik eta adinekoengan izango duen eraginagatik. Edukiontzia berdea kendu eta bosgarrena jarriko nuke nik".

NAIARA
CANTERO
BERGARA



"Jende dezente etorri arren ez dakit zerbaite lortuko dugun. Ni kontra nago, intimitate eta garbitasun kontuengatik".

baki arren, alkatea herritar guztiena da eta aintzat hartu beharko luke herritarrek protestan irten izana. Aurrera begirako ekimenez galdetuta, adierazi du proposamenei zabalik daudela.



Manifestaria txilibituarekin. | I.S.

Udal Gobernuaren balorazioa manifestazioaren harira

Adierazpen askatasunaren izenean herritarrek egindako protestak zilegizkoak direla esanez hasten du Bergarako Udal Gobernuak egubakoitzeko manifestazioaren harira ateratako adierazpena.

Bertan diote bat egiten dutela birziklatzeko aldarrikapenarekin, baina ez hori lortzeko sistemarekin. Ibarrean bosgarren edukiontzia eta atez atekoaren inguruko frogak egin, eta emaitzak agerikoak direla adierazten dute. Sistema aldatzeko arrazoen artean, adierazten

dute aldaketak euren hauteskunde programan esandakoekin duen koherentzia; Europako irizpideekin guztiz bat etortzea; eta birziklatze portzentaje oso altuekin baliabideen xahutzea ekiditea. Era berean, birziklatzea ez dela eskubide bat diote, herritar guztien betebeharrak batzuz; eta sistema berria guztiz bateragarria dela osasunaren zaintzarekin. Aipatzen dute manifestazioa deitu dutenen aldetik faltan igarri dutela errauskailuaren inguruan duten posizionamendua.

Herritarren iritzia

Herritarren iritzia aintzat ez hartzea egotzi izanaren harira, Udal Gobernutik diote parte-hartze prozesu eta bilera informatiboetan, herritarrek, informazioa jasotzeaz gain, hainbat erabakietan euren iritzia ere eman ahal izan dutela: "Emaitzetan argi ikusten denez, Udal Gobernuak hobetsitakoak aurrera atera ez diren arren, parte-hartze prozesuetan adostutako emaitzak geureganatu egin ditugu; jarrera diktatorialak izan ditugula esateak ez dauka inolako zentzurik".

Lehendakaria Copreciren 50. urteurrenean

Asteleheneko ekitaldian, besteak beste, Ana Bolinaga eta Txema Gisasola izango dira

IMANOL GALLEGO | ARETXABAETA
Aurten Coprecik 50 urte beteko ditu eta hasia da urteurren berezi honen inguruko ekitaldi sare zabala antolatzen. Gaur egingo den urteurrenaren borobil honen ospakizunean, besteak beste Iñigo Urkullu Lehendakariak har-

tuko du parte. Lehendakariak, Txema Gisasola Mondragon Korporazioko kontseilu nagusiko presidentearekin eta Ana Bolinaga Aretxabaletako alkatearekin batera, Copreciren instalazioak bisitatuko ditu. Eurekin batera, Mondragon Korporazioko beste kooperatiba batzuetako zenbait ordezkarik ere egon dira.

Lantegia ikusi ostean, Aretxabaletako kooperatibak duela gutxi bere instalazioen barruan egindako handitze lanak eta lantegiaren atzean dagoen enpresaren izena eramango duen kalea ere inauguratuko dituzte.

Ekitaldiko agendaren arabera, bukatzeko Mondragon taldeko presidentek eta lehendakariak jende aurrean hitz egingo dute. Gaurkoa, Copreciren 50. urteurrena ospatzeko, ekitaldi zerrenda luzeago baten lehen ekitaldi berezia izango da.



Iñigo Urkullu lehendakaria. | GOIENA



Coprecik Aretxabaletan duen lantegia. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

50 urte hauetan Copreci Aretxabaletako parte bilakatu da

Duela mende erdi sortu zen Aretxabaletako Copreci kooperatiba eta bere hazkundera Aretxabaleta eta bertako herritarrekin batera egindako prozesua izan da. Gauzak honela, eta urtemuga borobil honen harira, kooperatibako kideek Udalera jo zuten eskaera zehatz batekin: hain zuzen ere, enpresa kokatuta dagoen goiko kaleari Copreci izena ipintzea. Udalak eskariaren gaineko gogoeta egin zuen, eta inguruko enpresak jakinaren gainean ipini zituen ondoren. Alegaziorik jaso ez dutenez, osoko bilkuran gaia bozkatu zuten. Aralar alderdiaren abstentzioarekin eta Bildu eta EAJren aldeko botoekin onartu zen,

azkenean, biderean izendapen berria. Anekdotak itxura duen istorioak argi uzten du enpresak eta herriak duten harreman estua. Gaurko ekitaldi berezia baina, ez dira kooperatibak urteurrena ospatzeko egingo duen ekintza bakarrik.

Urtemuga borobiltzeko gainera, osasun ezin hobean ospatuko ditu Coprecik 50 urteak. nazioarteko krisiaren erdi-edian, Coprecik 200 milioi euro fakturatu zituen, 2011n baino %10 gehiago, eta aurtengo aurreikuspenak bide beretik doaz, %5eko hazkundera aurreikuspena du-eta. Duda barik, bazkideendako eta langileendako ospakizunik onena.

Arizmendiarrietaren Lagunak batzarra

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Garaia berrikuntza gunean egin zuten Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak batzar nagusia. 50 bat lagun izan ziren han. Egungo egoera eta datuak aztertu eta gero, iazko akta bere onartu zuten.

Batzarreko gai nagusietako bat Arizmendiarrietaren esperientzia, filosofia eta lana batzen dituen liburutegi digitala izan zen. Dagoeneko lanean dihardute, eta asmoa da bi urte barru osatuta egotea. Liburutegia mundura zabalik egongo da, edozein adituk Arizmendiarrietaren gainean ikertu ahal izango du hona etorri barik.

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak orain dela bost urte sortu zuten haren filosofia eta balioak zabaltzeko asmoarekin, bai kooperatibaren barruan eta baita ikasleei begira ere. Elkarteak 240 bat bazkide ditu, eta horietatik %90a pertsona fisikoak dira. Arizmendiarrietaren Lagunak batzordeko kide den Jose Ramon Elortzak azaldu zigun gaur egun duten erronka nagusia gazteak erakundera hurbiltzea dela. Hain zuzen, ere gazteak ardatz hartuta eskaini zuen hitzaldia batzarraren amaieran Guillermo Dorronsoro Deustuko Unibertsitateko dekanok.



Garaian egindako batzarra. | ARANTZAZU EZKIBEL

Donostiako auzipetuen aldeko elkartasuna ekitaldia Portaloian

IMANOL GALLEGO | ARRASATE
Donostian zapatu arratsaldean egin zen "eskubide zibil eta politikoen aldeko manifestazioa" baino lehen, Arrasateko Portaloian Ezker Abertzaleak agerraldia egin zuen. Aurreko astean Espainiako Auzitegi Gorenak Donostiako zortzi gazteren aurkako seina urteko epaia berretsi zuen eta erabaki horren aurka azaldu ziren.

Ernai gazte taldeak elkarretaratzea egin zuen astelehenean Donostian auzipetu zituzten zortzi gazteei elkartasuna adierazteko. *Gazte 1 + ez* lelopean egoera hori salatu zuten zapatu eguerdian.

Bertratu zirenen ustez, "egoera errotik" aldatu den arren, "Espainiako eta Frantziako estatuek eskubide zibil eta politikoen urraketaekin jarraitzen dutela" salatu zuten.

Aske Gunea

Bulebarrean auzipetuei elkartasuna adierazteko Aske Gune deritzen toki bat sortu du Ezker Abertzaleak. Bertan, hitzaldiak, eztabaidak, kantaldiak... Izango dira egunero 9:00etatik 20:00etara. Ernaik "arrasatear orori" datorren martitzenean bertaratzeko "deialdi berezia" ere egin zuten.



Jende ugari batu zen Portaloiko elkarretaratzean. | Z.V.D.M.

GOIENA RENT

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko




INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

Lan bateratua irabaziekin hasi du Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak: 36,7 milioi

Bi entitateak fusionatu eta gero, azaroan eta abenduan, 22 milioi garbi irabazi zituzten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak 36,7 milioi euro garbi irabazi ditu 2013ko lehenengo hiruhilekoan, kreditu entitate horrek martitzenean jakinarazi bezala. 2012ko azaroan egin zuten bat Ipar Kutxak eta Euskadiko Kutxak, eta urte horretako azken bi hilabeteetan beste 22 milioi garbi irabazi zituen. Aurtengoa izango da entitate bateratu horren lehenengo ekitaldi osoa, eta zerga aurretiko 105 milioi euroko irabaziak espero dituzte.

Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak azpimarratu duenez, "testuinguru ekonomiko konplikatuan" ekin zion jarduera bateratuari, eta hala ere "solbentzia maila handiarekin, berankortasun maila kontrolatuarekin eta likidezia onarekin" bukatu zuen 2012a. Horrez gain, irabazi jarraituak sortzeko gaitasuna duela konfirmatu egin du entitateak.

%86,9ko gordailu-ratioa

Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa fusionatu zirenean, etorkizunera "kontu handiz" begira, probisio-plan "ezohikoa eta exijentzia handikoa" egin zuten, 982 milioi euroko probisioa eginez, emaitzen eta diru-erreserben kargura.

Solbentziari dagokionez, 2012 bukatutakoan, kreditu kooperatibaren ratioa % 11koa zen -2013ko urtarilaren leian, banku eta kreditu entitateei % 9ko kapital nagusia eskatzen zitzaie. Kapital nagusiak erakunde baten patrimonioa adierazten du.



Ipar Kutxa eta Euskadiko Kutxa "erabat solbentek" ziren fusioari ekin ziotenean, eta dotazio-plana egin zuten berehala. Horri esker, "sektoreko solbentzia-ratio onenatarikoa" lortu dutela esan du erakundeak.

Likidezia aldetik ere "eroso" dago Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxa, "estatuko finantza-sistemarekiko beste desberdintasun bat", gaineratu du. Hala, maila-erakundearen gordailu-ratioa %86,9koa zen 2012 bukaeran; sektoreko batez bestekoa %70,9 da. Hau da: gordailutan daukan 100

euro bakoitzeko, 86,9 euro dauka mailegutan emanda.

Morositatea edo berankortasuna ere batez bestekoaren azpitik dagoela nabarmentzen du Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak: 2012 bukaeran, % 6,95eko morositate-ratioa zuen, eta sektoreko batez bestekoa % 10,4koa zen, Sareb bankura aktibo toxikoak bideratu eta gero.

Aurrezki gehiago

2013ko lehenengo hiru hilabeteen bukaeran, mailegutan 16.357 milioi euro emanda zeuzkan Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak. Aurreko ekitaldian baino % 0,9 txikiagoa da zifra hori, hipoteka gutxiago eta kontsumo txikiago egotearen ondorioz.

Aldiz, bezeroek aurrezki gehiago dituzte orain entitatean, eta sendotu egin da negozioaren oinarri nagusi gisa. Hala, 16.733 milioi euro dituzte aurreztuta Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxako bezeroek.

Hiruhileko erronka nagusietako bat hauxe izan da: entitate eraginkorragoa izatea eta gastuari eustea. Horrela bada, esplotazio-gastuak 53 milioi eurokoak izan dira urtariletik martxora.

Azkenik, kreditu kooperatibak nabarmendu du Fitch kalifikazio-agentziak BBB kategorian eman ziola otsailaren leian, "Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxaren tamainako entitate batek Estatuan izan dezakeen kalifikazio onena", diote arduradunek.

Fagor Brandt-eko arduraduna da orain Etxetresnen zuzendaria

L.K. | ARRASATE

Sergio Treviño da aurrerantzean Fagor Etxetresnak taldeko zuzendari orokorra, Fabian Bilbaok osasun arazoengatik kargua utzi ondoren.

2011 ezkerro, Treviñok Frantzia egiten zuen lan, Fagor Brandt zuzentzen. Horren aurretik, Etxetresnak taldearen nazioarteko marketin arduraduna eta, gero, Egosketa saileko zuzendaria izan zen. Fagorrek azpimarratzen du taldearekiko Treviñok duen "lotura handia". Sergio Treviñok honakoa esan du kargua hartzerakoan: "Fabian



Sergio Treviño. | BURSON-MARSTELLER

Bilbaoren lekukoa hartzea erronka handia da niretako, berak lan bikaina egin duelako urte hauetan. Ilusio handiz hartzen dut kargu hau".

Biztanleen % 39k ez dute inoiz aurrezten eta erdiek, noizbehinka

L.K. | ARRASATE

Hego Euskal Herriko eta Espainiako biztanleen % 39k ez dute inoiz aurrezten, eta % 44k ez dute hiru hilabeteko gastuak kubritzeko adina diru. Horiek dira ING Taldeak iazko azaroan Europako 14 herrialdeetan egindako inkesta baten emaitza batzuk. Europako eta Espainiako batez bestekoak oso antzekoak dira inkesta horretan.

% 15ek, aurrezteko ohitura

ING Taldeak 14.000 europar inkestatu zituen iazko azaroan. Hego Euskal Herrian eta Espai-

nian, aurrezteko ohitura txikia dago: biztanleen ia erdiek (%46k) esan zuten "noizbehinka", ahal zutenean bakarrik aurreratzen zutela dirua. Europako batez bestekoak oso antzekoak dira: europarren % 17k aurrezteko ohitura daukate (espainiarren % 15ek), eta % 32k ez dute inoiz aurrezten. Gutxien aurrezten dutenak itailarrak dira: % 55ek ez dute inoiz aurrezten, eta % 6k bakarrik dute aurrezteko ohitura. Beste muturrean, Austriar, % 28k sistematikoki aurrezten dute, eta Frantzia, %25ek.

Arrisku handiko finantza-produktuez erreklamatzeko formularioa Interneten ipini dute

Kontsumobidek, Euskadiko Kontsumo Erakundeak, arrisku handiko finantza-aktiboak "edo antzeko produktuak" dituztenen erreklamazio "zehatzak" jakiteko formularioa egin du. Inork erreklamazioaren bat badauka, beraz bete eta eskatzen diren dokumentuak eman beharko dizkio Kontsumobideri. Hemen dago formularioa: www.kontsumobide.euskadi.net.

Raul Torrego | Ikertzailea

"Sortu dugun teknologiaz, hari bako komunikazioak seguruagoak dira"

IK4-Ikerlaneko eta MUko hiru ikertzailek saria irabazi dute AEBetan, artikulua batengatik

L.K. | ARRASATE

Washington-eko Wireless Innovation Forum Conference delako kongresuan artikulua onenaren saria irabazi dute IK4-Ikerlaneko Raul Torregok eta Iñaki Valek eta haien kolaboratzaileak, MUko Eñaut Muxikak. Hari gabeko komunikazio teknologia bat gara-

tu dute, eta horren gainekoa zen artikulua.

Zure ustez, zergatik gustatu zitzaie hainbeste zuen artikulua?

Gauza berritzailea delako. Bada, jende gehiago horren gainean ikertzen, baina gurea nahiko aplikatiboa da, ez da bakarrik ikerkuntza futurista.



Raul Torrego. | L.K.

Dispositibo horrek zer du hain berezirik, ba?

Datuak transmititzeko dispositibo inteligentea da. Gaur egun, hari bako komunikazio asko dago eta talka egiten dute, kanalak okupatuta daudelako. Guk garatu dugunak ze kanal dagoen libre begiratzen du eta automatikoki

hortik transmititzen du. Horrela, komunikazio seguruak lortzen ditugu eta horrek aplikazioak ditu. Proiektu hori ikerkuntza proiektu handiago baten dago. Orain gure dispositiboa hobetu eta saldu nahi dugu egileok.

Horrelako errekonozimendu batek zer suposatzen du zuendako?

Berri onak dira. Gure bezeroei hau saltzeko lan egiten dugunez, marketin aldetik oso ondo dago, eta poza da: norberaren lanak zerbaiteko balio duela erakusten du, eta egiten nabilen doktoretzarako ere meritu ona da.

Zeinek eta zertarako erabili ahal izango du zuen dispositiboa?

Teknologia bat da garatu duguna eta, orain, ez daukagu produktu zehatz bat. Baina teknologia hori aplikatzen gabiltza orain. Artikuluan, aplikatuta dago bideo-transmisiorako sistema baten.

Adibidez, zirkuitu itxiko telebista sistema baten, irudiak ezin dira galdu, eta enpresa handietan zarata elektromagnetiko handia dagoenez, ideia da horrelako sistema bat jartzea; komunikazio seguruak egin daitezke ingurune txarrean.

Berba asko egiten da berrikuntza-aren eta zientziaren egoeraz, gero eta gutxiago inbertitzen dutela erakundeek... Zuk nola bizi duzu hori? Euskal Herrian edo Espainian oraindik badago aukerarik?

Egunero ikusten da hori. Euskal Herrian, zortea dugu, badirudielako gobernuak eta enpresak konturatu direla berrikuntza eta zientzia inbertitu behar dela, krisitik irteteko bidea delako. Hemen, dirua sartzen ari da oraindik eta lana badaukagu; gehiago ere ondo egongo litzateke, baina, orain, pozik gaude.

Pili Alvarez Moles | Soziologia

"Gaztetxeetan zentzua duen edozer egin daiteke, baita musika klasikoko kontzertuak ere"

- ▶ 'Gaztetxeak eta generoa' gaia landu du 10 hilabetez EAEko 16 gaztetxe aztertuta
- ▶ Generoaren gaia gaztetxeetan jorrazteko bilerak egiten ari da orain, gai hori lantzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaztetxeak eta generoa izeneko ikerketa egin zuen 2011n Pili Alvarez Molesek (Bartzelona 1985). Handik ateratako ondorioak gaztetxeetan zabaldu gura ditu orain. Oñatiko gaztetxean izan zen zapatuan. Antixena da, oraingoz, ikerketaren bigarren fasean parte hartzen ari den ibarreko gaztetxe bakarra.

Gaztetxeak eta generoa. Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

Gaztetxe bateko gazte asanbladan hartzen nuen parte orduan, eta ikusten nuen hainbat gauza aldatu egin beharko lirakeela. Esperientzia abiapuntu hartuta hasi nintzen. Militantzia gain, lan munduan ere egin nuen zerbait, eta beka bila hasi nintzen, ikerketa egiteko.

Zer ikusten zenuen zuk?

Ikusten den lehen gauza, esaterako, mutil eta neska kopuruaren arteko diferentzia da; gaztetxe gehienetan mutil gehiago ageri dira neskek baino. Lan banaketan, egiten diren ekintzetan, horien arduradunetan, publikoan nork berba egiten duen... gaztetxe esparru askotan ikusten da gizartean gertatzen den joera bera, mutilen presentzia neskena baino handiagoa dela, alegia.

Nondik hasi zinen? Zenbat gaztetxe ikertu dituzu?

Nituen kontaktuak hartu eta 80 lagun ingururi bidali nien gonbidapena ikerketan parte hartzeko. Pertsonalki edo kolektiboki zegoen parte hartzeko aukera, eta, azkenean, Euskal Autonomia Erkidegoko 16 gaztetxe eta 40 bat gazte animatu ziren.

Ze teknika erabili dituzu informazioa jasotzeko?

Elkarrizketa pertsonalak, neskekin bat eta mutilekin beste bat egindako eztabaida saio bi, bi gaztetxetako urtemuguen behaketa eta galdetegi bat hilabete zehatz baten egindako ekintzen inguruan. Sei gaztetxek hartu zuten parte galdetegi horretan. Beste 14 elkarrizketa labor ere egin nituen, gaztetxea euren artea egiteko espazio moduan hartzen zuten 14 neskekin.

Nolako ekintzak antolatzen dituzte gaztetxeetan?

Nik hartu nuen hilabeteen, batzarrek eta kontzertuak ageri ziren, gehienbat. Gaztetxeetan batzar asko egiten dira, baina ez zaio garrantzirik ematen espazio eta aktibitate horri. Herri askotan, kolektibo ezberdinek erabiltzen dute gaztetxea bilerak egiteko, eta horri ez zaio garrantzi nahikorik ematen. Kontuan hartzen



Pili Alvarez Moles, Oñatiko Antixena gaztetxean egindako bileran, zapatuan. | IMANOL SORIANO

dena da zer-nolako kontzertuak edo jaialdiak antolatzen diren, eta ez horrenbeste tokia bera bilerak egiteko, egoteko edo beste zerbaitetarako aproposa den pentsatzeari.

Diozu kolektibo askorendako espazioa izan daitekeela gaztetxea?

Bai. Finean, gaztetxea guztiondako gune askea da. Aniztasuna lortu behar bada, guztiondako tokia izan behar du gaztetxeak.

Egia da gaztetxe guztiak ez direla berdinak, baina gehienek helburu konkretu batzuk bakarrik dituzte.

Autogestioa, talde-lana, autoeraketa... dira gaztetxeen ezaugarrietako batzuk. Genero ikuspegitik, beste zer ezaugarri jarriko zenieke gaztetxei?

Emozioak ere lan politikoa direla. Askotan, alde batera uzten ditugu, eta ez dugu berba egiten gure sentimenduez, adibidez: zerbait antolatzen denean lan karga handia izan dugun edo ez, baztertuak sentitu garen edo zerbait adierazi dugunean ez entzuna izatearen sentsazioa izan dugun edo ez... Horretaz guztiaz berba egin behar da; bestela, komunikazio arazo handiak sor daitezke eta, eta haserreak ere bai.

Gai hori landu beharra dagoela uste dut, eta ez da erraza. Izan ere, gure borroka pertsonala da, ondokoarekin dugun borroka da. Sistema patriarkala da kanpoan dugun etsaia, baina ondoko lagunarekin ere berba egin behar da, eta zaila da gure harremanez berba egitea, denok nahi dugulako taldeko kide izan.

Sentimenduak ez lantzea, beraz, hutsunea dela uste duzu?

Gaztetxeak oso onak eta beharrezkoak dira. Egon behar dute. Baina ez du esan nahi gauza batzuk aldatzea ez legokeela gaizki.

"Beharrezkoak dira gaztetxeak, baina gauza batzuk alda daitezke"

"Eraso sexualen aurrean jokatzeko protokoloa taldean landu behar dute"

Batzuetan hasi dira hori lantzen, baina kosta egiten da hasieran. **Diozu gaztetxeak espazio libreak direla, baina markatuak direla, ez dagoela aniztasunik. Zer esan gura duzu horrekin?**

Gaztetxe batean zentzua duen edozer gauza egin daiteke, baina mugak jartzen dira, beti horrela egin direlako. Adibidez, musikari lotuta, punka eta rocka entzuten da, gehienbat, gaztetxeetan; beti izan da horrela. Arraroa da musika klasikoko kontzertu bat entzutea gaztetxe batean, baina zergatik ez? Gune askeak badira, zergatik ez dago musika aniztasunik? Eta berdin gertatzen da tailerrekin ere; askotan egiten dira kolektibo konkretu bati gus-tatzen zaizkion ekintzak, eta ez da egoten aniztasun handirik. **Antolamenduak badu garrantzirik horretan?**

Horizontala izan behar du, bai, baina benetako horizontaltasuna aplikatu behar da. Urtemuga baten ostean, esaterako, balartzen da egon den jendetza, jaso den dirua, sortu den giroa ... baina ez da aintzat hartzen batzuk larregiko lana izan duten edo ez, edo nork gozatu duen edo ez kontzertu edo jaialdi horretaz.

Zer ondorio atera duzu parekotasunari buruz?

Herri txikietan gertatzen da belau-naldi batean neska edo mutil gehiago izatea beste batean baino. Herri handietan, aldiz, aniztasun handiagoa ematen da, nahiz eta batzuetan mutilengatik markatuagoak dauden, baina ez dira neutroak, gizarte mugimenduaren barruan dauden espazio diskriminatuak dira.

Indarkeriari lotuta, ze hausnarketa jaso duzu zure ikerketan?

Diskriminazioa eta eraso sexistak landu ditugu. Diskriminazioak txikiak dira, baina indartsuak dira, esaterako keinuak edo ahots altzatzeak, eta batzuetan ez dira eraso moduan hartzen. Erasoen sexualen gainean, oraindik gaztetxe gutxi dute eginda protokoloa zehazteko nola jokatu kasuren bat gertatzen denean. Eta hori taldean egin beharreko lana da; ez du zentzurik kanpotik norbait etortzeak hori azaltzeko.

Generoaren gaia gaztetxeetan lantzea gura duzu zuk.

Bai. Bigarren fase honetan bilerak egiten ari gara, materiala batu eta hori gaztetxeetan banatuz generoaren gaia lantzeko. Oñatikoa bigarrena izan da.

ZABALIK

ANAJE NARBAIZA
http://goiena.net/iritzia/

Sosegua versus abixaria

Geroz eta bizkorrago bizi garen gizarte honetan, ez da samurra sosegua aurkitzea, den-dena abixariaren eta burrundariaren menpe dago, goizean goizetik hasi eta ohera sartu arte halaxe bizi gara. Eguzkiaren argitasunak iratzarri beharrean, iratzargailuak iratzartzen gaitu; ondoren, kalera irten eta autoen burrundaren artean lanera abiada bizian. Holaxe eguna joan eta eguna etorri.

Denbora gutxi hartzen dugu gure isiltasunari eta soseguari bakean entzuteko, gure barruak esaten digunari kasu egiteko. Baina hori bai, munduko berri guztiak entzun eta aztertzen ditugu, nonbait inorenak norberarenak baino errazago aztertzen ditugu. Endredatuta gabiltza!

Makina bat autopista eta bide berri egin dira gure inguruan, ez dakit ondo nora heltzeko. Norabait eramaten gaituztelakoan gaude, baina Europan badira beste eredu batzuk; adibide modura herrialderik aurreratuenetarikoa Norvegia da eta ez du halako bide edo tren sare erraldoirik. Iraunkortasunari eman dio garrantzia, eta ez bizkor ibiltzeari. Duten herrialdea maite eta zaindu egiten dute, ondorengo belaunaldiek izan dezaten beraiek ezagutu duten lurraldea bere horretan ezagutzeko eskubidea.

Gure lurraldean, berriz, ingurumenean egiten ari garen urratuak betiko dira ez dute atzera bueltarik, negarra baino ez dute sortzen lur horiek zaindu eta ezagutu dituztenen artean. Lehen gurdiak ziren eta orain kamioiak, baina iraunkortasunean oinarritutako eredu erabili beharra dugu, eta ez fikziozko bizkortasuna. Gure barruak esaten digunari kasu egingo bagenio, belaunaldiz belaunaldi izan ditugun baserritarrek soseguz egingako lan isila aitortu eta eredu horretan oinarrituta aurrera jarraitu beharko genuke. Horrexek bermatuko baitu ondorengo belaunaldiek ere paraje hauetaz disfrutatzen jarraitu ahal izatea eta ditugun baliabideen oreka zaintzea.

USTEAK USTE

ARRITXU BARRUSO | abarruso@goiena.com

Bermeoko suteari begira

Bermeora begira pasa ditugu azken egunak. 70 familia etxebizitza barik gelditu dira egun batetik bestera eta telebistan ikusi ditugun irudiak benetan ikusgarriak izan dira. Dena dela, uste dut Bermeotik gurera dauden kilometroak nahikoak direla gertakaria beste begi batzuekin ikusteko; fikziozko film bat balitz bezala. Ezin ukatu, baina, zer pentsa ematen dutela horrelako gertakariak. Zer egin horrelako egoera batean? Zer egin egun batetik bestera kale gorrian geldituz gero? Eta batez ere konturatzen zara zelako txikiak garen naturaren indarrak aurka jartzen zaizkigunean. Espero dut, behintzat, erakundeek agindu bezala, kaltetuek behar besteko babesa jasotzea.

KALE INKESTA

Politikan goi karguetan dagoen korrupzioari zer motatako trataera ematen zaiola uste duzu?



IÑAKI GOROSTIZA
ELGETA

Ba, txarra ez? Kartzelan ez dago inor, baina guztiak egon behar lukete. Behintzat, lapurtu duten diru guztia bueltatu arte.



JOSE ANGEL ZABALO
ANTZUOLA

Zerbait txarto egiten denean, denok berdin tratatuak izan behar dugu. Haien diru guztia izanez gero, egoera hau konpondu egingo litzateke.



LUCIA FARRAS
BERGARA

Lapurretan egin duenak, lehenengo, ordain dezala. Eta gero, langile-bataloiak. Kartzelan sartzen badituzte, kartzelan mantendu.



ELISABET AGIRREZABAL
BERGARA

Justizia ez da denontzat berdina. Gutxi lapurtu duena barrura doa; aldez, asko irabazi eta kanpora eroan duena libre dago. Haiek bai ondo bizi...

HANDIK ETA HEMENDIK

Hitzei mugak ipini behar hori

Asier Sarasua Aranberri
http://eibar.org/blog/sarasua/

Ez dut gehiegi/larregi ulertzen/aditzen hitzei/berbei mugak/hesiak jarri/ipini behar hori. Zabal ditzagun leihoak!

Santi Leonek ere antzeko zerbait izan du mintzagai aste honetan bertan.

Euskara "estua" darabilgu; euskara "estua" irakasten dugu.

Meharra, mugatua, laburra.

Horregatik ez dut ulertzen oraindik ere muga gehiago jarri behar hori.

Adibidez, *Hiztegi Batuan* zein sarri jartzen zaien euskalki baten marka berba batzuei (eta batzuetan, gainera, neurriz kanpo).

Hau *Bizk.* da; beste hori *Naf.*; hurrengoa *Zub.*

Nolabait esanez, horiek hiztegi batukoak direla, bai, baina baina! Kontuz, badaezpada ere.

Esan beharrik ez dago, *Gip.* marka oso bakan agertuko zaigula; gehixeago *Naf.*; moordoa *Bizk.* eta *Ipar.* (oso bilaketa azkar eta azalekoan:

Gip.: 182; *Naf.*: 363; *Bizk.*: 995; *Ipar.*: 2674). Hiztegi osoaren %12 inguru.

Zergatik mugatu behar hori?

Eta are gehiago: zergatik murriztu hitzen benetako erabilera-eremua?

Izan ere: zergatik dira bizkaiera (eta hortaz, Gipuzkoan kontuz erabili beharrekoak) *hur* (gertu, hurbil), *txikot* (soka lodia), *sastar* (zabor; eskas, txar), edo *dandarrez* (arrastaka); zergatik *Bizk.* marka, Gipuzkoa erdialdean ere erabiltzen badira?

Eta zergatik da *kardantxilo Bizk.* eta ez *Karnaba Gip.*?

Zergatik darama *Ipar.* marka *heia* hitzak (atzoko #GaurkoHitza), Nafarroako eta Gipuzkoako zenbait eskualdetan erabiltzen bada? (besteak beste, Urolan, Beterrin, Txingudi buelta osoan,... eta Nafarroa iparraldean). Zuberoko beste bai, bederen, Gipuzkoan edo Nafarroan.

Zergatik euskara "estutu" beharra?

Tira. Jakin badakit lehenago ere eztabaidatu izan dela hau guztia.

Marka horiek erabili edo ez; *Hiztegi Batuan* adierazten den informazio hori

baliagarria ote den ala oztopo (baliagarria ere bada eta!).

Euskaltzaindiak ere, *Hiztegi Batua*-ren Argibideetan garbi esaten du hitzok edonork/edonon erabiltzeko modukoak direla ("*nori bere senak agintzen dion eran*").

Baina garbi ote dugu hiztunok? Garbi ote dugu euskara estu hori erabiltzen, mintzatzen, idazten, transmititzen, ikasten eta irakasten dugunok? Edo beldurrez hartzen ditugu hitzok? (edo asko jota, exotismo bila ari garenean?).

Holaxe ba!
Purrustada (Bizk. eta Gip.) txiki bat, periferiatik. Badakizue, bazterrekoen *mainak* ((gral.; Dv, H; -añ- Lar, Añ, H). Ref.: A; Etxba *Eib*; Asp *Leiz2 (mañe)*; Elexp *Berg (maña)*).

A! Guzti honen errudun Maite Goñi da, txio honen ondorioz etorri direlako goiko hitzok: "#*gaurkohitza 'heia' da. Iparraldeko hitza ei da. Ezagutzen zenuen?* http://shar.es/dMEGQ". Iparraldekoa? Azpeitian bertan ere entzun izan dut, barren!

Zabal ditzagun leihoak eta egin dezatela hegan kardantxori eta karnabek, txolarre eta hormatxoriek!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Xabier Urtzelai
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Ziertra Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzane Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO APIRILEAN

ADI EGON!

GOIENA Klubeko 4.000 bazkideon artean martxoan honakoa zozketatuko dugu.



3 BONU

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

2 BONU

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).



Parte hartzeko

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

Telebista
Baserrisarea
Arrikruz

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiak zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

DESKONTUAK: www.goienakluba.com

TELEBISTA ETA BLUE RAY

OKI led telebista 19" + LG Blue Ray BP125



EROSKI

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENENKO BASERRI SAREAr esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

ARRIKRUTZ
oñatiko o b a k



NINIKA
LOREADENDA

ALZU

Esko Sport

JAIXAK
disfrutatuzko oparixak

LiLURa
EDERTZE INSTITUTUA

lastai

ARRASKITE
AVIA

BEFOND

Etxe-Bundi
Herria - Jatorria

gahiri
fisioterapia osteopatia

GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentruak

Gudezen

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

ARRIKRUTZ
oñatiko o b a k

MPRESPAL
INPRIMATEGIA

kuttuna
ESTETIKA ZENTROA

TXURI-URDIN
Izotz Jauregia

Biotika

caravanas Oñate

AGVARIVM
MONOSTIA SAN SEBASTIAN

PEUGEOT OÑATI GARAJEA

eureka!
zientzia museoa
kluba goiena.com

argia



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki saikatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Kepa Ormaetxea | Herri Batasuna, oposizioan, Arrasate (1979-1983 eta 1983-1985)

- ▶ Haren ustez, talde nortasuna galdu eta norbanakoari garrantzi handiegia ematen zaio
- ▶ Arrasatear sentitzen den arren, Aramaion jaio eta 6 urterekin joan zen Arrasatera bizi izatera
- ▶ Ardantza lehendakari izan zen urteetako Gabon guztietan haren postal bat jaso zuen

"Politikari edo zinegotzi baino gehiago, nire burua Euskal Herriko borrokalari moduan ikusten dut"

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Elkarrizketa hasi aurretik Kepa Ormaetxea hizketan hasi da. Hamai-ka kontu gordetzen ditu eta kontu bakoitzean, beste 11 istorio. Txantxa eta barre artean dio: "Nire bizitzarekin Spielbergek film polita egingo luke". Kontatutakoak entzun ostean, Spielbergek berak ere arazoak izango lituzke guztiak pantaila handira eramateko. Barre artean gogoratzen baditu ere, argi dauka zinegotzi izateko urte latzak izan zirela 80ko hamarkadako lehenak.

1979. urtean Udalera iristean, nola-koa zen Arrasate?

Oso herri ezberdina zen, Arrasatek gabezia ugari zituen. Egia da aurreko legealdian Jose Antonio Altuna *Txatillo*-k zenbait hobekuntza egin zituela; besteak beste, kiroldegia eraiki zuen. Hala ere, gabeziak ugariak eta sakonak ziren. Kontuan izan garai hartan auzoak, adibidez, alde batera utzita zeudela.

Herria eratzeko egongo zen, baina zuek ez zineten askoz lehenago elkartu.

Arrazoi duzu, udal hauteskundeak baino urte bat lehenago eratu genuen Herri Batasuna. Arrasaten, ESB eta HASIren bateraketatik sortu genuen.

Egungo udalbatza kontuan izanda, arraroa dirudi. Baina lehen urte haietan HB ez zen Udaleko talde garrantzitsuena.

1979. urte hartan 4 zinegotzi lortu genituen neurrian, EAJk 11 zituen. Baina gogotsu eutsi genion oposizio lanari.

Ez zen lan erraza izango.

Bueno, ez pentsa. Guk argi genuen zeren alde eta zeren kontra geunden eta horrek asko laguntzen



Kepa Ormaetxea, atzean Arrasate duela. | IMANOL GALLEGO

zigun. Gogoan daukat tasen kontu batekin osoko bilkura luzea izan genuela. EAJ tasa bakararen aldekoa zen, eta, gure ustez, tasa soldata aberastasunaren

"Garai hartan auzoak, adibidez, alde batera utzita zeuden"

"Egia esateko, ez nuen uste Ardantza lehendakari izatera iritsiko zenik"

arabera aldatu beharreko zerbait zen. Alderdi bakoitzak bere idealak oso agerian zituen eta horien arabera egiten zuen lan.

Garai hartan Arrasateko alkatea zen arren, urteek aurrera egin zuten heinean Jose Antonio Ardantza lehendakari izatera iritsi zen. Espero zenuen?

Egia esateko, ez. [Barre] Garai hartan Garaikoetxearen eta Arzallusen arteko tirabirek gora egin zuten, eta gero ikusi zer gertatu den. Ardantza alderdiko gizona zen eta horregatik aukeratu zuen EAJk bere lehendakari bezala. Urte ugari pasa ostean, entzun dut Ardantzarentzako Arrasaten alkate moduan igaro zituen urteak bere bizitza politikoko gogorrenak izan zirela.

Onartuko duzu zu zinegotzi izan zinen urteak ez zirela politika egiteko urterik erosoenak izan.

Ez ziren urte errazak izan, ez. Baina denontzako, edozein alder-

"Garai haiek oso gogorak izan ziren, bai, baina guztiontzako"

"Txomin Iturberen heriotza Arrasaten inflexio-puntua izan zen"

ditako jendea hiltzen zuten. ETA, Batallon Vasco Español... Gogoan daukat Arrasateko HBko zinegotzi batek akta utzi zuela Donostian izandako kide baten erailketaren ostean.

Erailketa haien ostean zein zen Arrasateren erantzuna?

Adibide bat jarriko dut. Enrique Gomez *Korta* ETako militantea zen eta Baionan hil zuten. San Juan jaiek ziren eta segituan manifestazio bat antolatu genuen. Erdigunetik irten eta egun zezen-plaza jartzen duten tokian zegoen Guardia Zibilaren kuartelera norabidea hartu genuen. Garibaiko semaforoan inguruan geundela, kuarteletik zenbat guardia zibil irten eta tiroka hasi ziren. Ondoa neukan bat zauritu egin zuten eta beste bati, zorionez, kamiseta besterik ez zioten zulatu.

Benetako tiroak ziren?

Bai. Manifestazioak norabidea aldatu zuen bitartean, ni udalera joan nintzen. Han Ardantza zegoen; gertatukoari buruz zerbait egiteko eskatu aurretik, guardia zibilak agertu (etxeko zapatilatan, edozein modutan jatzita) eta herrian zehar egindako barrikadak ikuskatzera eraman zuten. Bertatik zurbil bueltatu zen.

Horrenbeste aldarrikapen ekitaldiren artean, garrantzitsuena Txomin Iturberen heriotzaren ostekoa?


Dudarik gabe, Arrasatek izan zuen erantzuna ikaragarria izan zen. Kolore politiko ezberdineko jendeak Biteri plaza bete zuen. Inflexio-puntua izan zen.

Kontakizun hauen ostean, zure ibilbidea ez da oso politikoa izan?

Ni ez naiz inoiz politikaria izan, nire burua Euskal Herriko borrokalari bezala ikusten dut.

IBAOLA
HARRIAK
Hilerrri atea zure errautsentzat

j.ibaola@gmail.com • 656 71 16 73
Eskuernaga - ARABA
cementerioateo.blogspot.com.es



HERRIAK

BERGARA

Osintxuko haur-etxea, bizitzako aurreneko urteak igarotzeko habia

- ▶ Lau neska-mutiko joaten dira Osintxun iraila ezkerre irekita dagoen haur-etxe edo habiara
- ▶ Olatz Azkondok bere etxeke ateak ireki zituen 0-3 urte arteko haurren zaintzaile izateko

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Etxeke goxotasunean zaintzen ditu Osintxun Olatz Azkondok auzoko lau ume. Haur-etxea deitutako proiektuaren baitan ireki zituen bere etxeke ateak haurrak zaintzeko. Bizilekua egokitu behar izan zuen horretarako, zituenak baino ipuin eta jostailu gehiagorekin hornituz, esaterako. "Enpresa bat etorri zen laguntzera, eta haurrak bertan egoteko segurtasun neurri guztiak ezarri zituzten, izkinak material bigunarekin estaliz eta abar".

Gainera, etxea bitan banatu eta familiaren erabilerarako bakarrik ez, haurren zaintzara bideratu zuen dituen bi komunetatik bat, logela bat, bai eta sukaldea ere, esaterako. Dena, umeak eroso sentiarazi eta behar zein merezi duten arreta eskaintzeko. "Etxean egongo balira bezala sentiarazten diegu".

Lau ume zaintzen ditu Azkondok, eta normalean dena ongi joan arren, noizean behin gauzak aldrebesten dira Osintxuko habian. "Denak batera negar egiten dute, esaterako! Baina lasaitasuna mantentzen ikasten dugu eta hor amaitzen da arazoa".

Lehenengo urteak etxean

Haurraren lehenengo urteetan etxean bertan hazteko aukera ematen du Haur-etxeak; beti hezitzaile berdinarekin eta modu personalizatuan. Hala azaldu du ekimeneko Gipuzkoako ordezkari Gloria Arantzabalek ere: "Zaintzaileak umearekin duen hartu-eman bakoitza bakarra da. Hamar bider aldatu behar zaiola pixoihala? Aldi bakoitza une berezia izango da, bai zaintzaile eta baita neska-mutikoarentzako ere".

Duela 50 urte bizitzako lehen-dabiziko urteak etxean egiten zituen haurrak. "Gero emakumea etxetik kanpo hasi zen lanean eta hirurgarren baten laguntza behar izaten zuten aita-amek beraien txikiak zaintzeko". Haurrari ezarritako erritmoa bizkortu egin zela adierazi du Arantzabalek, eta habietan lehengo joeretara itzultzeko aukera dagoela gaineratu du: "Umeak pixoihala uzteko prest dagoenean, berak esango du helduek bezala joan gura duela komunera".



Olatz Azkondo bere etxean zaintzen dituen haurrekin. | OLATZ AZKONDO

ESANAK

"Umeak etxean bezala sentiarazten ditugu habian"

OLATZ AZKONDO | ZAINTZAILEA

Jarraipena lanari

Haur-etxearen sarea Bizkaia, Araba eta Gipuzkoara hedatzen da; azken horretan bi bakarrik dade martxan gaur egun eta horietariko bat da Osintxukoa. Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibak bultzatuta eta Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Sailaren babesarekin ematen da. "Ez da soilik dirulaguntza ematen digula, jarraipen lan bat ere egiten du".

Lanbideki ziurtatutako pertsonak dira umea zaintzen dituztenak, eta gainera, 250 ordu inguru irauten duen ikastaro bat egina dute. "Formazio hilabete biziak dira, asko ikasten dute, materia asko dago". Baina ez da hor geratzen zaintzailearen prestakuntza, izan



Haurra magortzen, Osintxuko habian. | OLATZ AZKONDO

ere etengabeko ikaskuntza eskatzen duen lanbidea da eta jarduteko moduari ere jarraipena egiten zaio. Hamabostean behin elkartzeko dira Gipuzkoako zaintzaileak, "gure lanaren berri eman eta gauza berriak ikasiz".

Hala, gurasoek lasai asko erabiatzen dituzte haurrak habietara, "ez dago mesfidantzarik". Horren erakusgarria da, konfiantza osoz

uzten dituela urtarrila ezkerre Mikel Tabaresek bere seme-alabak Olatz Azkondorenean.

"Etxean bezala sentiarazten ditu haurrak Olatzek, oso tratua pertsonala ematen baitu, baina ez bakarrik haurrei, baita guri ere". Zaintzaileak ere, horixe azpimarratzen du: "Familiarekin sekula pentsatuko ez nukeen harremana sortu da".



ARGAZKILARIA XXX

OLATZ AZKONDO
ZAINTZAILEA

"Aurreneko 15 egunak dira gogorrenak, umea egoerara egokitu arte"

Olatz Azkondok iraila ezkerre dauka martxan habia Osintxuko etxean.

Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Primerakoa. Haur batekin hasi nintzen eta orain lau zaintzen ditut. Lehenengo hamabost egunak izaten dira gogorrenak, umeak ez bainau ezagutzen eta egokitu egin behar gara bata besteari, baina ondoren, dena bikain joaten da. Oso pozik nago esperientziarekin.

Nola animatu zinen etxean habia ipintzera?

Lagun baten bitartez jakin nuen Eusko Jaurlaritzak aukera emante zuela proiektua martxan ipintzeko eta langabezia nengoenez, interesa piztu zitzaidan. Hitzaldi batetara joan eta ikastaroan izena ematera animatu nintzen, hartu egin ninduten eta beharrezko egokitzapenak eginda, irailan ireki nituen etxeke ateak.

Zer ematen dizu zaintzaile izateak?

Harreman bereziak sortzen dira, eta horrek asebetetzen nau. Gainera etxean lan egiterakoan, nire seme nagusiak ere laguntzen dit; zortzi urte ditu, gainerakoekin jolasean aritzen da eta primeran etorri zaio baloreak barneratzeko.



Baserritarrek ere hartu zuten parte Azoka Egunean. | IMANOL SORIANO



Azabatxe zuzenean. | IMANOL SORIANO



Artisau ugari postua ipini zuten azokan. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Azoka gauza askotarako erabil daitekeela erakutsi zuten zapatuan

Jende ugari ibili zen azoka berezian eta arratsaldeko moda desfileak ere jende ugari erakarri zuen

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Teoriatik praktikara pasatu dira asteburuan azoka biziberritzeko proiektuan murgilduta dauden herritarrak. Modu horretan, azoka funtzio aniztuna izan daite-

keela erakutsi zuten zapatuko Azoka Egunean. "Janaria saltzeaz gainera, beste gauza batzuk egiteko toki aproposa dela erakutsi dugu festarekin". Eguraldia ere alde izan zuten egun osoan zehar

eta ekintza ezberdinak aurrera eramateko egun aproposa bilakatu zen.

Goizean azoka berezia egin zuten; ohiko baserritarren postuez gainera, artisauek euren lekua

izan zuten; feltrozko maskarak ikusi zitezkeen postuetan, material birziklatuz eginiko bitxiak... Gainera, bigarren eskuko zein dirua baliatu barik arropa-eta trukatzeko aukera egon zen.

Zintzurra bustita kanpoko ekintzak jarraitzeko aukera bikaina egon zen taberna ere ipini baitzuten. Musika, antzezlan, eta arratsaldeko moda desfile herrikoia. Azken hau arrakastatsua izan zen oso, plaza bera eta goiko alde lepo bete baitziren.



VANESA GONZALEZ
ARRASATE

"Nik feltrozko gauzak egiten ditut eta postua ipini dut. Hasieran beldurra bazegoen ere, oso giro ona egon da, jende asko etorri da; eguraldiak ere lagundu du."



JUAN MARI ARRIOLABENGOA
ARAMAIO

"Denetarik egon da eta ondo joan dela uste dut. Jendea ere pozik dago. Horrelako gauzak egiteak aurrera ateratzeko balio badu bikain, galtzen ari baita ohitura."



NAROA ELORTZA
ARRASATE

"Tobera txiki bat antzeztu dugu. Azoka Egunean herritar asko etorri da, eta ez dakit atzetik Pello Zabala egongo den, baina eguraldiak lagundu du!"



MIKEL IRIBECAMPOS
ARRASATE

"Arizmendiko monitore eskolatik deitu gintuzten umeentzako tailerrak egiteko eta pozik apuntatu ginen. Hasieran jende gutxi egon arren gero bete da".

ARRASATE

Diplomak banatu zituen MUK Amaian

Egubakoitz arratsaldean Mondragon Unibertsitateak diploma banaketa egin zuen Amaia antzokian. Bertan izan ziren askoren artean, Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizar eta MUKo errektore Josu Zabala. Protokolozko hitzaldiez gainera, zuzeneko musika ere entzun ahal izan zuten antzokiraino bertaratu zirenek. Oñatiko Ganbara Txiki abesbatzakoek ekitaldi amaiera ederra eskaini zuten beraien ahots goxoekin melodiak zabalduz.



BERGARA

Etxean egindako kalitatezko produktuak ezagutzeko tokia

Galizia, Extremadura... eta hemengo produktuek artisau eta zapore ferian

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Eguraldi ona alde batetik eta bestetik gazta, txorixo eta olagarrori darion usainak erakarrita San Martin plazan jende ugari batu da. Dendari batzuen hitzetan bergararrei "esnatzea kostatzen da", hala ere eguerdian jende dezentebilen salmenta-postuetako produktuak dastatzen. Iberikoak, hamaika motako gaztak, txokolate bitxiak... "Feriak ohiko denetan aurkitzen ez dituzun produktuak erosteko aukera ematen dizu", zioen erosle batek.

Egubakoitzeko arratsalde makalaren ostean, zapatua oso egun ona izan zen. Saltzaile batek azpimarratzen zuen moduan "ez dugu duela urte batzuk bezalako salmentarik egingo, baina jendea animatzen da". Antzerako iritzia zuten taberna galiziarrean "gosaldu eta gero, hamaiketako egitera etorri dira gehienak".

Artisauak ere bai

Jateko eta edatekoaz gain, artisau ugari egindako lanak ezagutzeko aukera egon zen. Narrua, zilarra edo egurrarekin egindako produktu eskaintza zabala ekarri zuen feriak Bergarara.



Produktuak dastatzeko aukera zabala egon zen. | IMANOL GALLEGO



Etxean egindako edariek jendearen ikusmira piztu zuten. | I.G.



Kajoi tabernako dastatzea tradizio bilakatu da. | JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE

Aurreko urtekoa baino suabeagoa aurtengo Otxia

I.G. | ARRASATE

Domekakoarekin laugarren dastatzea izan zen eta nabari da jendeak Felix Etxagibelen Otxia txakolina gustuko duela. Kajoi tabernaren aurrean eskaintzen ziren tragoxkek, beti moduan, oso harrera ona izan zuten.

Dastatu ostean, herritarren iritzi guztiak onak izan ziren, "aurreko urtekoa baino suabeagoa da" zioen batek. Etxagibel berak ere antzerako iritzia du

"aurreko udak dezentebate lagundu du". Eguraldiaz gain, 23 urteren ostean, nabari da Etxagibelen txakolina egiteari neurria hartu diola.

Non eta nola erosi?

Etxagibelen argi dauka, "errazena Bedoñara hurbiltzea da". Dena den, gauzak errazteko modu bezala, Kajoi tabernan ere Otxia txakolina eskuratze-ko aukera egongo da.

Oskarbi

oinetakoak

ADI!
Denda berria zabaldu
dugu Arrasaten!

Oskarbi Oinetakoak | Olarte 9 / 943 71 18 04



... eta lehen genuena ere mantentzen dugu. Topa itzazu
beste denboraldi batzuetako oinetakoak, prezio ezin hobean.

Oskarbi Outlet | Erdiko kalea 11 / 943 71 18 04

KUPOI HAU MOZTU ETA GURE ARRASATEKO DENDETAN ERAKUSTEN BADUZU,
6 EUROKO DESKONTUA EGINGO DIZUGU.

6
EUROKO
DESKONTUA*



www.oskarbi.com • www.oskarbioutlet.com

* Promozio baliagarria apirilaren 30era arte, 50 euro baino gehiagoko erosketan eginez gero. Ez da promozio bateragarria.



Xabier Zubizarreta eta Kepa Urteaga, zikloaren aurkezpenean. | JOKIN BEREZIARTUA

"Herri txikia eta erasotua gara; ez dugu gure historia kontatzeko aukerarik izan"

Udaberriko Hitzaldi Zikloa etzi hasiko da, Zuztarrak Errotuz taldeari, Nabarralderi eta Udalari esker

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Zuztarrak Errotuz taldeak, Nabarraldek eta Udalak antolatu dute Udaberriko Hitzaldi Zikloaren hirugarren edizioa. Ekimenaren helburua da Euskal Herriko, Leintz Bailarako eta Arrasateko historian sakontzen joatea. Zikloari etzi emango zaio hasiera eta azken saioa maiatzaren 15ean izango da (ikus taula).

Aurtengoa hirugarrena izango da eta beraz, esan daiteke Udaberriko Hitzaldi Zikloa klasiko bat bihurtzen ari dela arrasatearrindako. Aurtengo zikloa zuzendu dute historia bera kontatzearen garrantzia nabarmentzeari: "Azpimarratu nahiko nuke zein garrantzia duen historia kontatzeak edo ez kontatzeak. Herri guztiek, han-

diek zein txikiek, egiten dute historia. Baina batzuk kontatu egin dute eta beste batzuek ez; geratu diren historiak kontatu direnak dira, ez gertatu direnak. Gai horren garrantziaz jardungo dugu", adierazi zuen Zuztarrak Errotuz taldeko Xabier Zubizarretak hitzaldion aurkezpenean. Behin historia kontatzen denean zein bertsio kontatzen den zehazteak ere berebiziko garrantzia du, Zubizarretaren ustez: "Herri txikia eta erasotua gara, eta gure historia kontatzeko aukerarik ez dugu izan".

Identitatea lantzen jarraitu
Hitzaldi ziklo honetaz aparte, Udalak euskal identitatea lantzen jarraitzeko asmoa erakutsi du

UDABERRIKO HITZALDI ZIKLOA

APIRILAK 17

19:00 Udaletxeko osoko bilkuren aretoan

HISTORIA ONDO KONTATZEAREN GARRANTZIA

► "Arlabango bataila, 1811-5-23", Gerardo Elortza

► "Beste era bateko museo bat", Saioa Altzua

► "Historia ondo kontatzearen garrantzia", Anjel Rekalde

Ondoren, mahaingurua

APIRILAK 24

19:00 Kulturaten

KONBENTZIO GERRATIK DONOSTIAKO TXIKIZORIA 1794-1813

► "Diputacion a Guerra Getarian eta Arrasaten", Iñaki Egaña

MAIATZAK 8

19:00 Kulturaten

NAZIO EGITURA ETA HIZKUNTZA

► "Euskalkien sorrera/Leintzeko euskerie", Koldo Zuazo

MAIATZAK 15

19:00 Kulturaten

LOS REYES CASTELLANOS ALFONSO VIII Y X VS ARRASATE

► "Dialectica conquistador-conquistado (1200-2013)", Tomas Urzainki Mina (Gaztelerez).

urte honetarako: "Badakigu Arrasateko talde asko egitasmo honekin parte hartzeko gogoz dagoela eta hori pozgarria da guretako. Gaiarekin interesatuta dauden norbanako zein eragileei dei egiten diegu guregana jo eta elkarlana sustatzeko", adierazi du Kepa Urteaga kultura zinegotziak.

Apirileko interbentzio nagusien berri eman du Udaltzaingoak

J.B. | ARRASATE

Hainbat liskar baretu, mokorra hautsi duen gizonezko bati lagundu, lur-jausien berri eman eta komun publikoetan irten ezinik geratu den herritarrari komunitetik irteten lagundu. Horiek dira udaltzainek apirilean egin behar izan dituzten interbentzioetako batzuen adibideak. Liskarrei dagokionez, hilaren 1ean bitarteko lana egin behar

izan zuten elkarrekin bizi diren bi pertsonaren arteko liskar baten, Iturriotzen. Hilaren 5ean, gazteen arteko haserrealdi bat baretu behar izan zuten Urribarri etorbidean eta hilaren 7an, Jet Set diskotekan izandako arazo bat zela-eta gazte bat ospitalera eraman behar izan zuten. Bestalde, udaltzainendako jantziak hornitzeko proposamena onartu berri du Udalak.

Ibai-Artek 8.000 euro zozketatuko ditu bost euroko balioa duten txarteletan, fidelotasuna saritzeko

Ibai-Artek bere bezeroen fidelotasuna saritzeko ekimen berri bat abiaraziko du gaurtik maiatzaren 31ra arte. Hamar eurotik gorako erosketetan Ibai-Arte txartelarekin ordaintzen duten bezeroen artean 8.000 euro zozketatuko dira, saltoki berean egiten diren erosketetan trukatzeko bost euroko diru-txarteletan.

Besaide elkartearen Bizkaiko Biraren 14. etaparako izena eman daiteke gaur, bihar eta etzi

Besaide elkarteak irteera antolatu du hilaren 21erako, Bizkaiko Biraren barruan -14. etapa izango da-. Ibilbidea 17 kilometrokoa da eta tartean Ganekogorta gailurra igo beharko dute (998 metro). Izena emateko aukera dago gaur, bihar eta etzi, Besaideko bulegoan, 19:30etik 20:30era. Informazio gehiagorako: 943 77 30 68.

Alde zaharrea egurrezko egitura duten eraikinetan termitak aurkitzeko ikerketa abiaraziko du Udalak

Udalak termitak aurkitzeko ikerketa bat egingo du alde zaharrea. Egurrezko egiturak dituzten eraikinak aztertuko dituzte zenbait profesionalak. Arrazoia da herriko hainbat eraikinetan egin diren obratan termitak agertu direla. Ikerketa apirilaren 22an hasi eta maiatzaren 13ra bitartean gauzatuko da; Udalak bizilagunei eskatu die ahal duten neurrian lagundu dezaten.

Askapenak eta Nubik Saharako herriari elkartasuna adierazteko ekitaldia antolatu dute etzirako

Apirilaren 17an Preso Politikoen Nazioarteko Eguna dela-eta, Askapenak eta Nubi elkarteak Saharako herriari elkartasuna adierazteko ekitaldi bat antolatu dute. Saharako presoei eskutitzak eta marrazkiak bidaltzeko aukera egongo da eta tea hartzeko mahaia zein erakusketa txiki bat ere egongo dira, Saharako musikaz girotuta. Herriko plazan izango da, 18:00etan.



ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

Saio didaktiko batekin hasi eta taula gainean amaitu zuen Garik

Koultur ekimenaren barruan joan den eguen gauetan eskaini behar zuen kontzertuaren aurretik, Garik saio didaktikoa egin zuen ludoteketako haurrekin. Arratsalde-pasa ederra egin zuten, erritmoa landu, abestu



ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

eta dantzatuta. Saioa modu akustikoan hasi zen, baina musikari legazpiarrak oholtza gainean amaitu zuen: "Gauza benetan kuriosoa gertatu da. Akustikoa sarrerako platera bezala izan da, benetan

gura zutena gitarra elektrikoak entzutea zen", adierazi zuen. Asteon Maracas Para Dos taldea da gonbidatua; groove, funk eta jazz doinuak ekarriko dituzte Raul Romo eta Hasier Oleaga musikariek.



Egunerokotasunean askotan, ustez "erosotasun" kontubategatik, gaztelera jotzen da. | IMANOL SORIANO

Jakin arren, zergatik ez dugu euskara erabiltzen?

AEDk jasotako emaitzen gainean lan egiteko, lehenik euskaldunengana joko du

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Inor ez da harrutuko Arrasateko kaleetan euskara gutxi entzuten dela irakurtzean, are gehiago, heruen burua "euskalduntzat" duen jende askok gaztelera jotzen du. Urte askotan hori ikusi ostean, AEDk hausnarketa sakon bat egiteko garaia iritsi zela ikusi zuen. 2009-2010 urteetan Siadecori ikerketa kualitatibo bat egiten eskatu zioten.

Bertan, euskararen ezagutza eta erabileraren arteko amildegia arrazoiak identifikatzeko ardura hartu zuen Siadecok "euskaltzaleok beti sumatu izan dugu amildegi hori, baina orain, benetako arrazoiak ezagutu nahi genituen", dio Itxaro Iraola AEDko ideak. Txostenak era askotarikoa arrazoiak aipatzen zituen eta

14 multzotan bildu zituen Siadecok. Ikerketako emaitzak gainera, jende aurrean aurkeztu ostean, lehen lantalde baten laguntzarekin, "bere lan esparrua finkatu genuen", dio Artolak. Hori guztiaren ondoren, txosteneko ondorioak jorrazetik, beratu martxan jartzeko garaia iritsi da.

Datuei buelta emateko lana

Martitzenekoa ez da aurkezpen soil bat izango. Kulturateko Lora-mendi aretoan 18:30tan hasita, lehen lantalde batek, AEDren baitan, hilabete hauetan jorratu duten *Euskaldunak Aktibatze*ko *Dirkutsua* aztertu, kritikatu eta ekarpenak egingo ditu. "Esparru metafisikotik, arlo aktibora salto egiteko garaia da", dio Artolak. Urrats txikiak emanez helburu

handiak lortzen direnez, diskurtsoaren izenak argi usten duen moduan "lehenengo euskaldunengana joko dugu". Izan ere, erabilerari dagokionez euskaldunak dira tasa baxu horren erantzule. Erabilera maila baxu horren inguruko arrazoiak inguruan galdetzean Artolak arin egiten du salto "arrazoiak baino, kasu askotan aitzaki hitza aipatuko nuke". Txostenean besteak beste "gaztelera denok ulertzen gara", "ohitura falta"... bezalako arrazoiak aipatzen dira.

AEDtik badakite ez dela erronka erraza izango, baina batzarretik irtengo diren ondorioak jaso eta aztertze irrikaz daude. Euskararen inguruan ekapenak egin eta jasotzeko parada izango da Martitzen arratsaldekoa.

The Biters taldeak, bere Europako biraren barruan, kontzertua eskainiko du Taupa tabernan

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

60ko hamarkadako pop melodiak, 70ko hamarkadako energia gordina eta 80ko hamarkadako jarra koktelera baten sartu eta hura ondo astindu ondoren, emaitza The Biters da. Atlantakoek gaur eskainiko kontzertua, Taupa tabernan, 19:30etan. Europan barrera biran murgilduta dago laukotea eta oraingoan Arrasaten egingo du geldialdia. Dagoeneko Espainian, Italian, Frantzian, Alemanian eta Ingalaterra aldean egon dira *All chewed up*, azken lana aurkezten. Zuzeneko indartu eta izerditsuetara ohitu dituz-

te jarraitzaileak, eta hilabete luzez Europako erdi konkistatu ondoren, une ezin-hobean dator rock&rollaren makina hau.

Historia pixkat

Taldeak ibilbide motza du, 2009an jaio arren, bi EP eta lan luze bat argitaratu ditu; *The Biters* (2010), *It's OK to like The Biters* (2010) eta *All chewed up* (2011) hain zuzen. Kritika oso onak jaso dituzte; T.Rex, Cheap Trick eta The Stooges taldeen nahasketa bezala definitu dituzte. Taldearen 3 urte hauetan, Danko Jones edo Social Distortion talde esangu-



Kontzertuko kartela. | JAGOBA DOMINGO

ratsuekin batera egin dituzte birak, eta kontzertua astelehen batean izan arren, ziur ikusgarria izango dela. Punk-aren energia eta pop melodiez gozatu nahi duetenek ezin dute huts egin.

Azaroko indusketa lanek Gazteluondon dorre bat zegoela ziurtatu dute

Arkeolaneko Mertxe Ugartek ziurtzat eman du bertako harresia dorre baten aztarnak direla

I.G. | ARRASATE

Pasa den azaroan ekin zion Arkeolanek Gazteluondo inguruko lurra aztertzeari. Une hartan, indusketen arduraduna zen Mertxe Ugartek "parke osoak duen itxurarekin, errekek nola dauden ikusita eta beste gaztelu batzuek duten kokapena zein ezaugarriak aintzat hartuz, zergatik ez hemen ere, parkearen beheko partean, dorrearen beste zati bat aurkitu?". Bere susmoak ez ziren txarrak eta hilabete hauen osteko ikerketek arrazoia eman diote.

Azaroko indusketek zenbait datu argitu dituzten arren, oraindik Arkeolanek ez du dorrearen adinaren inguruko datu zehatzik. Dagoen tokiari erreparatu ezker, litekeena

Santa Barbarako gazteluko harresiko dorre bat izatea da, baina geroago egindako beste harresi baten zati bat ere izan daiteke.

Gazteluko harresiko dorrea?

Oraindik goiz da erantzun borbil bat eman ahal izateko. Ugarteren hitzetan, "kokalekuagatik litekeena, aztarnak, Santa Barbarako gazteluko harresiaren parte izatea da".

Aztarnen adina jakiteko baina, oraindik itxaron egin beharko da. Azaroan egindako indusketetan aurkitutako ikatz puzketa batzuk Suediara bidali dira eta bertan egiten ari diren karbono 14 frogek argituko du harresi zati horren adinaren misterioa.



Santa Barbarako maldan egindako indusketa lanak. | JOKIN BEREZIARTUA

Askapenak antolatzen dituen II. Formazio saio irekiak Etxaluzen izango dira Maiatzak 4 eta 11n

Egun osoko saioak izango dira eta bakoitzean lau mintegi ezberdin egongo dira. Mintegi guztiak doakoak izango diren arren, bazkarira joateko, egun beheran jasoko diren, 12 euro ordaindu beharko dira. Mintegietan puri-purian dauden gaiak jorratuko dira, besteak beste: kapitalismoa, alternatiba sozioekonomikoak... Ez da izena emateko azken egunik egongo, baina mintegiek plaza mugatuak izango dituzte. Interesa dutenek formaziomindegia@askapena.org helbidean izena eman beharko dute.

1980an zortzigarren mailan ibilitako Mertzendaria eskolako ikasle ohien bazkarirako deialdia

Bazkaria apirilaren 27an, larunbata izango da. Antolatzaileek guztia kontuan izan dute eta 60 euroren truke, Arteaga jatetxean bazkaria izateaz gainera autobusa eta Kajoi tabernan trago bat ere barne izango du. Festa egun honetan parte hartu nahi dutenek, apirilak 19 baino lehen, Euskadiko Kutxako 3035 0001 15 0010125377 kontu korrontean 60 euro sartu beharko dituzte, bakoitzaren izen abizenak adieraziz. Gogoan izan Mertzendarietako ikasleei soilik egindako deialdia dela.



Hankaluzetrail taldeak Gorlan atera duen argazkia. | HANKALUZETRAIL

Pol-Poleko mendi sailaren barruan dago Hankaluzetrail

Ekainaren 1eko Leitzako lasterketara joango dira

DATUA

30

KORRIKALARI

Oraingoz 30 kide daude Hankaluzetrail taldean, eta gehienak bergararrak izan arren, badira beste herrietakoak ere.

Adibidez, domekan egingo den Aloñako igoeran izango dira kideetako batzuk, baita datozen astetan Urnietan edo Erratzun egingo dituzten lasterketetan ere. Hala ere, ekainaren 1ean Leitzan egingo den lasterketa izango da taldeko kide gehienon eronketako bat. 60 kilometroko lasterketa izango da, eta askok hartuko dugu parte", aurreratu du Rodriguezek.

Pol-Polen barruan

Pol-Pol taldearen barruan dago Hankaluzetrail taldea. "Mendi lasterketetan parte hartzeko mendian federatuta egon behar da, eta federatzeko biderik zuzenena Bergaran Pol-Poleko Mendi saila denez, haren barruan sartu gara", azaldu du Hankaluzetrail taldeko kideak. Oraingoz 30 lagun daude apuntatuta, gehienak Bergarakoak, baina interesa duen edonork har dezake parte talde horretan, Pol-Polek udal pilotalekuaren gainean duen bulegora joanda.

Sukaldaritza lehiaketa antolatzeko bilera egingo dute bihar

Aurtengo herriko Pazko jaieran sukaldaritza lehiaketa egingo dute, eta lehiaketa hori antolatzeko bilera deialdia egin du udaleko kultura sailak. Bilera hori bihar, martitzena, apirilak 16, egingo dute, arratsaldeko 18:00etan, kultura etxean. Herriko elkarte gastronomiko guztiak animatu gura ditu udalak bileran parte hartzera. Maiatzaren 17tik 21era ospatuko dira aurtengo Mentekoste jaiak.

Komunikazioa eta familiari buruzko hitzaldia dago etzi

Familia eta nerabezaro aurreko komunikazioaz hitzaldia antolatu du udaleko prebentzio sailak. Hitzaldia gurasoendako da, eta datorren 17an, asteazkena, izango da, 18:00etan, kultura etxean. Gela aukeratzeko, antolatzaileei ondo etorriko litzaieke zenbat guraso joango diren jakitea. Horregatik, interesa duenak bihar, martitzena, aurretik eman behar du izena udal txeko bulegoetan.

1965 urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute apirilaren 27an

1965 urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute aurtun. Apirilaren 27an egingo dute bazkaria Tartufo jatetxean. Hara joan aurretik, poteatu egingo dute eta 13:00etan elkartuko dira Depor tabernan. Bazkaria 15:00etan da baina 14:30an urbanoa hartuko dute jate txera joateko. Bazkarira joan gura duenak, izena eman behar du bide hauetako bat erabilita: Ariznoa tabernan apuntatuz, 639471863 zenbakira deituz edo ktxaniz@euskalnet.net helbidera idatziz.

Hankaluzetrail sortu dute, mendi lasterketak egiteko

Mendi lasterketak bakarrik egin ordez, elkarren arrimuan egiteko helburuarekin sortu duten taldea da

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Hankaluzetrail taldea sortu dute Bergaran, mendiko lasterketak egin gura dituzten kirolariendako. 30 bat lagun daude dagoeneko taldean, baina gura dutenendako tokia dago.

Disfrutatzen

Fernando Rodriguez da taldeko kideetako bat eta bere esanetan, mendi lasterketaz disfrutatzen sortu dute taldea, ez lehiatzen. "Taldea badira 18 urtetik azpiko bi gazte, eta horiek helburu kompetitiboagoak dituzte, baina gainerakook mendi lasterketetan disfrutatzen asmoa dugun kideak gara. Bergaran jende asko dago mendian korrika egiten

duena, eta bakoitza bere kasa ibili beharrean, taldean elkartzea pentsatu dugu, bata bestearen arrimuan aritzeko", azaldu du Rodriguezek.

Taldea orain sortu badute ere, ideia lehengoa da. "Xabier Lijo eta Jose Gabilondoren ideia izan da. Mendian korrika ibiltzen den bergarar kopurua ikusita, iruditu zitzaizkion zela talde bat eratzea, eta horrelaxe izan da", argitu du Rodriguezek.

Gorria eta beltza da ekipazioa

Hankaluzetrail taldea berria izan arren, dagoeneko badu ekipazioa: kamiseta gorria eta kulota beltza. Kamisetan, gainera, taldearen logoa eta ikurrina bat ere ageri

dira. "Lasterketetan ondo ikus-teko modukoa da, bai. Antzuolako 8 Milietan estreinatu genuen. Bezperan jaso genuen, eta proba hartan parte hartu zutenek ekipazioa jantzita joan ziren. Otsailan izan zen hori. Orduan ez genuen talde argazkirik atera eta duela aste pare bateko entrenamendu saioa aprobetxatu genuen argazki hori ateratzeko, Gorlan, elurretan", zehaztu du Fernando Rodriguezek.

Aloñako igoeran

Hankaluzetrail taldeko kideek ez dute egitarau zehatzik prestatu. "Mendi lasterketa asko antolatzen dituzte eta kide bakoitzak erabakiko du batera edo bestera joan.

Gustura bueltatu da Aritzeta Bartzelonatik

Sabadellen eta Bartzelonako auzo gotikoan abestu dute, besteak beste, Aste Santuko bidaiari



Castellar del Vallés herriko irratien museoa. | ARITZETA ABESBATZA

O.E. | BERGARA

Bartzelonara egin du bidaiari Aritzeta abesbatzak Aste Santuan, eta gustura bueltatu da. "Sabadelleko orfeoiak oso ondo hartu gaitu. Elkarrekin bazkaldu dugu, batetik bestera joateko garraio lanak ere egin dizkigute eta ingu-

ruak erakutsi dizkigute", dio Aritzeta abesbatzako zuzendari Xabier Alzolak.

Gastronomia eta historia

Eguen goizean abiatu ziren Aritzeta kideak eta pare bat gel-diune egin ostean Sant Sadurny

D'anoya herrira heldu ziren. Freixenet-eko upategiak bisitatu zituzten han, eta cava probatu ostean, Bartzelonara joan ziren, hango aterpetxe batean ostatu hartzera. Egubakoitzean, Castell del Vallés herrira joan ziren, eta hango ermita batean abestu zuten, hango Cant de la Passió pel Cor de Cavallers-ekin batera. "Erromeria horretarako propio elkartzen den gizon koadrila bat da talde hori, eta egun horretarako propio egindako kantuak abesten dituzte", azaldu du Alzolak. 1920tik 1970era bitarteko irratia biltzen duen museoa ere ikusi zuten han. Sabadelleko orfeoiarekin afaldu, eta zapatuan, Bartzelonako alde gotikoa bisitatu zuten, kantuan. Bakoitza bere kasa Bartzelonan ibiltzeko tartea ere hartu zuten.



El Puig de la Creu izeneko ermitan. | ARITZETA ABESBATZA

GPSa eta ortuzaintza ekologikoa Bizikasiren maiatzeko eskaintzan

Apirilera antolatutako zenbait ikastarotan ere eman daiteke izena oraindik

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bizikasi zerbitzuak Bergarako Udalarekin eta beste zenbait erakunderekin batera, maiatzerako antolatu dituen ikastaroen berri eman du.

Batetik, GPSaren erabilera eta ordenagailua delako ikastaroa antolatu dute. 8 orduko ikastaroa izango da, maiatzaren 13tik 16ra, 18:30etik 20:30era eta irakaslea Basque Adventureko Iker Osa izango da. Euskaraz eta gazteleraz izango dira eskolak eta interesa duten guztiek har dezakete parte -plaza mugatuak dira-. Bizikasik

eta Basque Adventurek antolatu dute ikastaroa eta prezioa 20 euro dira.

Ortuzaintza ekologikoaren gaineko ikastaroa ere antolatu dute Bizikasik eta Udalak. Eskolak Angiozarren izango dira, oraindik zehazteko dauden maiatzeko hiru arratsaldetan. Ikastaroak bi zati izango ditu: lehen egunean alderdi teorikoa landuko dute eta ikastaroa osatzeko eta ikasitakoa praktikan jartzeko bi irteera ere egingo dira, Itziarrera eta Elgoibarrera. Interesa duen edonork eman dezake izena -pla-

za mugatuak dira.

Maiatzaren 25ean, berriz, ogia egiten irakatsiko dute Angiozarren Pagomendi elkarteak, 09:30etik 13:30era. Auzokoek lehenetsuna izango dute izena ematerakoan eta prezioa 15 euro dira.

Apirilean ere ikastaroak

Apirilera antolatutako zenbait ikastarotan ere eman daiteke oraindik izena.

Apirilaren 15ean eta 18an makillaje ikastaroa egongo da, dohain, 16:00etatik 17:30era eta 18:00etatik 19:30era. Apirilaren 20an, xaboi birziklatua eta xaboi kosmetikoa egiten ikasteko tailerra egingo dute Uberako auzo elkarteak, 09:00etatik 13:00etara, Bizikasik eta Udalak antolatuta eta prezioa 10 euro dira. Eta apirilaren 16an, zoru pelbikoa eza-gutzeko eta lantzeko hastapen ikastaroa egongo da -ez da hipopresiboen ikastaroa- 18:00etatik 20:30era, Sane fisioterapia zentroan, 20 eurotan.

Ikastarootan parte hartzeko Bizikasi zerbitzuko 943 76 93 94 telefono zenbakira dei daiteke edo info@bizikasi.com helbidera idatzi.

dira. E-mailez bidaliz gero, bestalde, bi fitxategitan bereizi behar da: alde batetik, marrazkia, eta beste aldetik, egilearen datuak.

Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a izango da eta Jardun euskara elkarteak Errotalde jauregian (kultura etxea) duen bulegoan aurkez daitezke, edo jardun@topagunea.com helbidera bidali.

60 euroko saria

Sariari dagokionez, 60 eurokoa izango da. Dena den, epaimahai-koek hala erabakiz gero, saria eman gabe ere gera daiteke.

Marrazki hori Jardun elkarteak azken urteetan kaleratu izan duen jaietako zapien erabiliko da eta zapiok jaietan salduko dituzte.

Aste Santuan sekula izan den bisitari kopuru handiena egon da

M.B. | BERGARA

Aste Santua pasa eta gero, Turismo Bulegoak bete du sasoi honetako lana eta bertako arduradunek "oso balorazio positiboa" egin dute: "Inoizko bisitari kopuru altuena izan dugu", esan dute; eta gehitu dute: "Asko esatea da hori, krisi gordinen bestelako emaitza espero litekeelako".

348 lagun pasa dira Aste Santuan Turismo Bulegotik. Hori-tatik 107k bisita gidatua egin dute,

gainera. Datu horiek Bergarako tamainako herri baterako oso kopuru ona dira, bulegoko arduradunen esanetan, izan ere, "zeinek pentsatuko zuen gure herriak eguneko 23 lagun hartzen zituela bisitan?".

Aipatzekoa da, bestalde, Udaleko Turismo Sailak Lehiakortasuna IKTen erabilera egokiaren bidez sustatzeko programan parte hartu eta diploma eskuratu duela.



Bisitariak Aste Santuan. | JOSETXO ARANTZABAL

Beteranoendako irteera eta mendiko eskia egiteko irteera antolatu ditu Pol-Pol mendi taldeak

Beteranoen irteera hilaren 21ean izango da. Kodes-Ioar-Kanpezu ibilbidea egingo dute, 18,4 kilometrokoa. Parte hartzeko txartelak Pol-Polen bulegoan erosi behar dira eta prezioa 20 euro da. Bestetik, hilaren 20an eta 21ean mendiko eski irteera egingo dute Vignemalera. Izen emateko azken eguna bihar, martitzena, da. Hain justu ere, 19:00etan batzarra egingo dute Pol-Polen bulegoan.

Kirol Kontseiluak hirugarren batzarra deitu du apirilaren 17rako, 19:00etan, Agorrosinen

Ekintza guneko ikus-entzunezko gelan egingo dute batzarra eta zazpi puntuko gai-zerrenda landuko dute: batetik, Kirol Zerbitzuaren 2013-16 epealdiko planifikazio estrategikoaz arituko dira; kudeaketa planaz egingo dute berba; jarduera fisikoa sustatzeko martxan jarritako ekimenak izango dituzte hizpide; kirol elkarteekin izandako bileren berri emango dute; herriko bizikleta jardunaldiak aztertuko dituzte; eta baita bizikleta, patinete eta halakoak aparkatzeko guneak ere.

'Hesiak gaintzen' dokumentala ikusteko aukera izango da eguaztenean, 19:00etan, Irizar etxean

Hesiak gaintzen euskarara hurbiltzeko ahalegina egin zutenei eta egiten ari direnei esker ona adierazteko egindako dokumentala da; euskarazko lana da eta gurasoei zuzendutakoa, batez ere. Txatxilipurdi elkarteak garatu du gidoia, Arteman Komunikazioa enpresarekin eta Jon Maiarekin batera, eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Jardunen eskutik ikusi ahal izango da eta Txatxilipurdiko kideek emango dituzte azalpenak.



Emakumezkoa baratzean lanean. | GOIENA

Pazkoetako zapirako irudia aukeratu nahi dute

Ohi bezala Jardun elkarteak egin du deialdia eta apirilaren 30ean amaituko da aurkezteko epea

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak Mendekoste jaietako zapirako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du.

Lehiaketan parte hartzeko baldintzei dagokienez, edonork har dezake parte, adin mugarik gabe. Marrazkia A4 formatuan aurkeztu behar da, zuri-beltzean eta nahi beste lan aurkez daitezke.

Irudiaren gaiari dagokionez, jaiekin lotutakoa izan behar du,

eta, marrazkiarekin batera, euskararen aldeko lelo labur bat ere jarri behar da.

Lanak Jardunera eraman

Aurkezteko moduari dagokionez, lanean ez da egilearen daturik jarriko. Egilearen datuak -izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea- kartazal itxi batean sartuko dira eta kartazal hori eta marrazkia, beste kartazal handiago baten barruan sartuko



AIERDI S.A.
Aholkulariak

2012ko ERRENTA AITORPEN KANPAINA

AHOLKULARITZA FISKALA, LAN AHOLKULARITZA ETA KONTABILITATEA ETA ASEGURU OROKORRAK

Artekale 1 behe - Tel.: 943 76 03 50 - Faxe.: 943 76 03 95 - BERGARA • Atzeko kalea 1 - Tel.: 943 71 60 96 - Faxe.: 943 71 61 13 - OÑATI



Liburutegiko erabiltzaileak, aldizkarien txokoan, egunkariak irakurtzen. | MIREIA BIKUÑA

Irakurzaletasunaren aldeko ekintzak bihartik

Ipuin kontaketak, bideo tailerrak, musika emanaldiak eta beste antolatu dituzte Liburuaren Egunaren harira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an ospatzen da. Horren harira, askotariko ekintzak dituen egitarau osoa prestatu dute Udal Liburutegian (ikus ondoko taula): ipuin kontaketak, zinema emanaldiak, musika saioak eta hitzaldiak. "Urteroko ekintzak dira, baina beharrezkoak direla uste dugu. Irakurzaletasuna bultzatzeko, liburutegian ditugun zerbitzuak ezagutarazteko, eta askotariko adinetako herritarrek erakartzeko. Batez ere, liburutegiko bazkide eta erabiltzaile ez direnak erakartzeko antolatzen ditugu ekintzak", esan digu Aranzazu Ibarrondo, Udal Liburutegiko arduradunak.

Liburutatik haratago

Helburu horiek betetzeko asmoz, bi asterako ekintzak antolatu dituzte. Bihar, martitzena, eta etzi, irakurketa taldeek saio bana egingo dute: *Belarraren ahoa* liburuaren gainekoa euskarazko taldeak, Harkaitz Canorekin; eta *Madame Bovary*-ren gainekoa gaztelaniazko taldeak.

Era berean, ipuin kontaketa bi egingo dituzte: helduendako bata, eta 6-10 urte artekoendako bestea.

Chati Calvo izango da helduendako kontaketa egingo duena. *Mujeres de ojos grandes* delako saioan emakumeak, sentsualitatea, umorea eta ironia dira protagonistak.

Bestalde, Jose Mari Anduagak eta Juanjo Untzillak musika emanaldia egingo dute liburutegian eta Pernan Goñik marrazkigintza eta teknologia berrien gaineko tailerra. "Liburutegi baten ez daude liburuak bakarrik. Bideoak, CDak eta DVDak ere baditugu. Gainera, teknologia berriak heldu dira gurera. Hori horrela, liburutatik haratago doazen ekintzak egingo ditugu. Zineklubean ere, guk aukeratutako pelikula emango dute hilaren 25ean", dio Ibarrondok.

'Hitzordu itsua'

Nazioarteko Liburuaren Egunaren harira antolatutako ekintzetako bat *Hitzordu itsua* da. Misterioz

betetako ekintza. "Nafarroako liburutegi batetik hartutako ideia da. Hainbat liburu oparitarako paperean batuko ditugu, eta txartel baten liburuaren gaineko pista batzuk idatziko ditugu. Erabiltzaileak pista horiek aintzat hartuta aukeratuko du liburua. Ezer gehiago jakin barik", azaldu digute.

Zein da ekintza horren helburua? "Bada, erabiltzailearen irizpideak alde batera utzita, ezkutuko liburua irakurtzeko bidea ematea. Akaso, bere kabuz aukeratuko ez lukeen liburua tokatuko zaio bateren bati".

Gainera, bazkideen artean, bildumatik erretiratutako liburuak banatuko dituzte.

LITERATURAREN ASTEA

APIRILAK 16 ETA 17

18:30 Irakurketa taldeen saioak, liburutegian.

APIRILAK 23

18:30 *Nax eta bere laguntzaileak* liburu-DVDaren aurkezpena.

19:00 Helduendako ipuin kontaketa liburutegian.

APIRILAK 24

19:00 Pernan Goñirekin bideo tailerra liburutegian.

APIRILAK 25

18:00 Umeendako ipuin kontaketa liburutegian.

APIRILAK 25

20:00 *César debe morir* pelikula zineklubean.

APIRILAK 26

19:00 Musika emanaldia liburutegian.

APIRILAK 30

19:00 Gervasio di Cesareren hitzaldia liburutegian.

10.000 euro gazteen sormen eta ekintzetarako

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gazte taldeek garatutako jarduerak eta egitarauetarako 10.000 euro ditu Udalak. Diru-laguntza horiek, urteko ekintzetarako, kultur sormena eta hedapenerako, materiala erosi eta berritzeko eta ezohiko jardueretarako bideratuko dira. Eskaerak gazte informazio bulegoan aurkeztu behar dira, eta bihar da horretarako azken eguna.

Deialdira aurkezteko nahikoa izango da talde eskatzailearen erdiak eta banakako eskatzaileak Oñatin erroldatuta egotea eta 12 eta 30 urte bitartekoak izatea.

Trauti Hesirik Gabe elkartearen urteko batzarra bihar

Trauti Hesirik Gabe elkarteak urteko batzar orokorra egingo du bihar, martitzena, 17:30ean, kultura etxean. Bileran irekia da herritar guztientzako. Besteak beste, urtean zehar egindako lanak eta Udalarekin duten hartu-emanaren nondik norakoak azalduko dituzte. Elkartearen sortu zutenetik, hainbat lan egin dituzte, herrian dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko edo konpontzeko.

Publizitate sexistak emakumeengan duen eraginaz berbetan

Andraitx Oñatiko Emakume Taldeak *La mercantilización de la salud de las mujeres* delako berbaldia egingo du, hilaren 23an, 18:30ean, kultura etxean. Publizitate sexistak emakumeen osasunaren duen eraginaz egingo dute berba, euskaraz eta gaztelaraz: publizitate kanpainatan emakumearen irudia nola erabiltzen duten, komunikabideen erantzukizun sozial eta politikoa...

Erretzeari uztearen gaineko Osasun Ikasgela, Oñatin

Erretzeari uzteko egin daitezkeen erakusteko Osasun Ikasgela egingo dute Oñatin etzi, eguaztena (kultura etxea, 19:00). Mila Perez eta Amaia Picaza Arrasateko Osasun Zentroan dagoen erretzeari uzteko taldeko terapien arduradunak dira. Osasun Ikasgelan, erretzeari uztearen onurak, tabakoaren inguruko mitoak, tratamenduak, jateko neurriak eta beste aztertutako dituzte. Betiere, erretzeari uzteko garrantzia azpimarratuta.

342 neska-mutikok parte hartuko dute udalekuetan

Uztailaren 1etik 26ra arte egingo dituzte askotariko ekintzak Eteo zaharreko eraikinean

M.B. | OÑATI

Uztailaren 1etik 26ra arte egingo dituzte, baina dagoeneko hasi dira Milakolore udalekuak prestatzen. Neska-mutikoendako eta begiraleendako izena-emateko epeak bukatu dira. 342 umek parte hartuko dute udaleku irekietan, uztailaren 1etik 26ra. Aurreko bi urteen antzera, Eteo zaharreko eraikina izango dute topagune. Handik, herriko txoko eta gune ezberdinetara mugituko dira, askotariko ekintzak

egiteko. Urterokoak dira San Ferminetako entzierroa, olinpiadak, ur-jokoak, eskulanak eta jolasak. Horiez gain, beste hainbat egingo dituzte aurrean.

Umeak adinaren arabera banatu eta koloreka identifikatuko dituzte: koloretako biserak eta banderak izango dituzte.

Bestalde, neska-mutikoekin arduratuko diren begiraleek formazio saioak egingo dituzte maiatzeko hiru zapatutan.



Lau mutiko, iazko entzierroan, korrika egiteko gertu. | TXALOKA LUDOTEKA

ARETXABALETA

Bihar elkartuko dira aurrenekoz ibilaldi nordikoa egitera animatu diren lagunak

Ibarra kiroldegiak antolatu ditu saioak eta oraindik eman daiteke izena

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Ibilkeria nordikoa deiturikoa toki egiten ari da Euskal Herriko kirol zaleen artean eta Aretxabaletara ere iritsi da. Hain zuzen ere, Ibarra kiroldegiak Ibilaldi Nordiko Taldea sortu guran deialdia egin zuen eta dagoeneko 8 lagunek eman dute izena.

Herri nordikoetan iraupen eskia praktikatzeko zuten denboraldia amaitzerakoan zer edo zer egiten jarraitu gura zuten, eta halaxe sortu zen ibilkeria nordikoa.

Ibiltzea da gakoa, baina bastoiak baliatzen dituzte itzuliak egiteko, teknika bereziak landuta. Hala, bihurtik aurrera, kirol modalitate honen inguruan ordubeteko saioak egingo dituzte, martitzen eta eguenean, 18:30etan hasita.

Teknika eta mendizaletasuna

Teknika batzuk landuz osasunarentzako onuragarriak diren beste arlo batzuk garatu direla adierazi du saioak emango dituen Kepa Larreak: "Esaterako, sistema kardiobaskularra lantzen da, bastoiak erabilia eta besoak-eta ongi mugituz".

Teknika aldetik desberdinak daudela gaineratu du Larreak. "Gure helburua beste herrietan garatu den teknika eta Euskal Herrian mendian ibiltzeko dagoen ohitura uztartuz taldea martxan ipintzea da". Horretarako, Aretxabaleta inguruko bidexkak, dela Urkulura bidean zein bidegorria baliatuta, kirol modalitate hau promozionatuko dute. "Udaberriari begira, kiroldegi kanpoan ere ariketa egiteko aprobetxatuko dugu, gainera".

Parte-hartzea zabalik

Bihar hasiko dituzte saioak zortzi lagunek, baina oraindik interresa duten guztiek eman dezakete izena, "Ibarrako bazkide izan ala ez". Beraiek ipiniko dituzte bastoiak, "eta parte hartzaileek gogoia ekarri beharko dute".

Ibilkeria nordikoa zer den irakatsiko dute, teknikari buruzko ariketa batzuk egingo dituzte, eta ondoren praktikan ipiniko dute ikasitakoa, 30-40 minutuko ibilalditxoak eginez.

"Nik uste dut aukera polita dela, ibiltzeko afizioa badago eta taldean joatea ere gustuko izaten dugu. Egia da ez dela ohikoena jendea bastoiekin paseatzen ikustea (Aretxabaletan bi aritzen dira) eta oraindik bitxi samarra den arren, poliki-poliki ohitura hedatzen joango da".



Ibilaldi nordikoa, bastoiak baliatuz. | MARCHA-NORDICA.NET

Aretxabaletak bi ipuin kontaketa saio hartuko ditu datozen egunotan

Maite Franko eta Koldo Amestoy, Arkupen

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Haurrentzako bakarrik ez, helduentzako ere izan daitezke ipuinak. Aretxabaletan, bakoitzeko lagin batekin gozatzeko aukera egongo da: etxeko txikienek hila-ren 20an izango dute ipuina entzuteko aukera, eta helduek berriz, apirilaren 23an.

Maite Franko gaztearen eskutik *Isilka Misilka, isiltasunaren zaindaria* izeneko emanaldia egongo da zapatu honetan, 11:30etan. Frankok urte dezente daramatza literaturaren itsasoan murgilduta, 2004tik hain zuzen: "Lehendabizi, antzerkigintza,

irakaskuntza, bikoizketa eta literaturaren ur handietan eta ipuin-kontaktaren ozeano barea deskubritzen ondoren".

'In vino fabula', helduentzat

Erreferentia da Koldo Amestoy ipuin kontalarien artean. *In vino fabula* izeneko emanaldiarekin bisitatuko du baxenafarrak Arkupen, hilaren 23an, 19:00etan.

Ez da ipuin kontaketa hutsa izango; hain zuzen, ipuin eta kantu errezitaldia egingo baitu Amestoyk, eta Pantxitx Bidart izango du alboan, saioari musika ipintzen.

Herrira bigarren eskuko azoka antolatzen ari da

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Beste hainbat tokitan bezalaxe, Aretxabaletan ere Herrira bigarren eskuko azoka egin gura du. Maiatzaren 25ean egingo dute eta asmoa aurrera eramateko herritarren laguntza beharrezkoa dute, eta dagoeneko hasi dira materiala biltzen.

Dagoeneko hasi dira batzen eta interesatuek maiatzaren 5era bitartean egoera onean dauden arropa, zapata eta bestelakoak Belar Meta dendan zein Kioskora eraman beharko dituztela eman dute jakitera.

ESKORIATZA



Eskoriatza Garbiako kideak, merkatu txikia parean dutela. | MIRIAN BITERI

Eskoriatza Garbiak 'Eskohitza' prozesuaren heriotza salatu du

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatza Garbia atez atekoaren kontra eta 5. edukiontzia-aren aldeko ekintzak antolatzen dihardu. Egubakoitzean informazio mahaia jarri zuten merkatu txikian. Esku orriak banatu zituzten eskoriatzarren artean. Horietan, besteak beste, 1.495 eskoriatzarrek 5. edukiontzia-aren alde egoteko dituzten arrazoien berri ematen zen.

Ez zen plataformak egindako ekintza bakarra izan. Eguen arratsaldean, Eskohitza prozesu parte-hartzailearen heriotza salatzen, hileta antzeztu zuten autobus geltoki eta plaza artean; hil-kutxa ere eroan zuten. Plazan manifestua irakurri zuten, eta informazio orriak eta dolo-

ko begizta beltzak banatzearekin batera, doluminak jaso zituzten. Ekintza horrekin bidea egin dute Youtubera igotzeko. Horrez gain, *Los cuentos de la basura* izeneko bloga ere jarri dute martxan. Antolatzen diharduten ekintzen berri emateaz gainera, ekarpenak ere jasotzen dituzte horretan.

Plataformako kide Karmele Igleziak guzti horren arrazoiak azaldu digu: "Ziur gaude bosgarren edukiontzia askoz merkeagoa eta sinpleagoa dela; horrekin zergadunek askoz gutxiago ordainduko dute; gure dirua da jokoan dagoena. Eta badakigu bosgarren edukiontzia-arekin ere birziklatzen dela; antzera edo gehiago".

Ogia nola egin jakiteko tailerra egingo dute Eskoriatzan martitzen eta eguaztenean

Apirilaren 16an eta 17an, arratsaldeko seietan hasita, Erretiratuak Elkarte sukaldetan, ogia egiteko bi tailer izango dira: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Martxoan ere egin zen halako tailer bat, eta, izan zuen arrakastaren ondorioz eta jende asko lekuri gabe geratu zela ikusita, bi tailerok antolatzea erabaki dute arduradunek. Apuntatzeko epea itxita dago jada.

Aurtengo udaleku irekietarako begirale bila dabil Eskoriatzako Tortolis ludoteka

Udalekuok uztailearen 4an irekiko dira, eta hil bereko 23an amaitu. Interesatuek betebeharreko baldintzak hauexek dira: euskara maila ona izatea eta 18 urtetik gorakoa izatea. Lehenetsiko da, gainera, EGA tituluaren jabe izatea eta begirale titulua izatea. Curriculumak bildatzeko posta elektronikoa: tortolisludoteka@gmail.com. Ludotekan bertan ere utz daitezke datuak.

San Pedrotan egingo den herri ikuskizunean parte hartzeko deialdia egin du Herri Ekimenak

Herritarren parte hartzea bultzatu nahian herri ekimen bat sortu da, eta dagoeneko lanean hasia da. Hala, San Pedro jaietan eskainiko den ikuskizun bat prestatzen ari dira. Ikuskizuna herrikoa izango da eta nahi duen orok parte har dezake. Entseguak laster hasiko dira; hortaz, interesatuek lehenbailehen Kultur Etxera deitzeko eskatu dute arduradunek.

197/2006 doktrinaren inguruko mozioa onartu zuen udalbatzak martxo azken bileran

Martxoaren 26an eginiko ohiko osoko bilkuran, udalbatzak 197/2006 doktrina "zigor gehigarriaren ankerkeriaren aurkako mozioa" onartu zuen. PSEko zinegotziaren aurkako botoarekin, Elizatearen abstentzioarekin eta Bilduren aldeko 5 botoekin mozio onartu zen. Hala, "197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen da".



Adolfo Jainaga ikasleekin emanaldia egiten. | L.Z.

ELGETA

22 urte bete berri dira Adolfo Jainagak Elgetako trikitixa eskola zabaldu zuenetik

Eibartarrak adierazi du 85 bat lagun formatu direla herriko trikitixa eskolan; "herri honetan atari bakoitzeko soinu txiki bat dago", esan du

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

1991ko apirilaren 11n zabaldu zituen atek Elgetako trikitixa eskolak. "Sei bat hilabete lehenago zabaldu zuten Arrasatekoa, Debagoieneko lehenengoa", esan zuen Adolfo Jainaga irakasleak Elgetan hilaren 20an egitekoa den Debagoieneko IX. Trikitixa Eguna aurkezteko aurreko aste-ko eguaztenean egindako agerrian.

Datu interesgarriak eman zituen trikitixa irakasleak aurkezpen horretan. Esan zuen, esaterako, soinu txikirako zale-tasun handia dagoela Elgetan. "Urteotan guztietan 85 bat ikasle pasa dira Elgetako trikitixa eskolatik", esan zuen. Elgetaren neurria kontuan hartuta kopuru handia dela azaldu zuen. "Herri honetan atari bakoitzeko soinu txiki bat dago", esan zuen.

Soinu txikiaren bilakaera

Soinu txikiak gure kulturaren izan duen bilakaeraren inguruko azalpenak ere eman zituen. Lehen maisuak eta euren metodologia, bigarren soinu-joleen belaunaldia, Joseba Tapiak eta Kepa Junkerak ekarri zuten iraultza, 80. hamarkadan eman zen loraldia... Eta Jainagak bereziki gogoan izan zuen Jazinto Rivas *Intxuzabal* edo *Elgeta*. Sasiko umea, Elgetako Intxuzabal baserrira ekarri zuten, eta eskolak ematea ogibide egin zuen lehenengo soinu-jolea izan zela azaldu zuen. Astotxo batekin ibiltzen omen zen baserri-azalera emateko mantenu truke emanez. "Orduko gizartean gaizki ikusia zegoen, eta bizitza oso gogorra izan zuen. Gaur egun gorraipatu egiten dugu, baina pobre hil zen", ekarri zuen gogora Jainagak.

Deialdia Elgetako ikasleei

Elgetako trikitixa eskolan hilaren 20an egingo den festa handirako prestaketetan dabilta. 250 lagunetik gora espero dituzte. Jainagak azaldu du eskolatik pasa diren ikasle guztiak daudela ospakizun horretan parte hartzera gonbidatuta. Azaldu duenez uenotan eskola ez da dozena erdi bat ikaslara iristen, baina Trikitixa Egunerako 12 bat lagun animatu dira, honezkerok. Soinu txikiak etorkizuna duela dio. "Paradoxikoki emakumezkoek esker", azaldu du. "Aurreko belaunaldietan gizonezkoak ziren nagusi gure munduan, baina gaur egun emakumezkoa da gehiengoa".

Jainaga Goiena telebistako Magazine saioan izango da astelehenean, apirilak 15. Ziur gauza interesgarri asko kontatuko dizkigula trikitilaritzari buruz.

ANTZUOLA

76an jaiotakoen kinto bazkarirako izena emateko dei egin dute

Bazkarira joateko interesa duten guztiek Elyan natur-dendan eman beharko dute izena

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Aurten 37 urte betetzen dituzten antzuolarrek kinto bazkaria izango dute datorren hilean. Urtero legez, maiatzaren hirugarren larunbatean bazkaria egiteko asmoa dago, eta, hori dela eta, guztia antolatzeke, lantalde txiki bat lanean hasi da. Aurten, beraz, maiatzaren 18an

izango da 1976koen kinto-bazkaria eta parte hartu nahi duen orok izena eman beharko du maiatzaren 10a aurretik herriko plazako Elyan natur-dendan.

Ospakizun gehiago maiatzean

Maiatzera begira beste ekitaldi bat prestatzen ari dira herrian, herritar guztiei zuzendutakoa.

Izan ere, maiatzaren 11rako, Anelkarrek dantza-goateka antolatuko du, Senegalen, Kongon, Brasilen, Tanzanian eta Saharan aurrera eramaten ari diren proiektuetan eta lanetan diruz laguntzeko asmoz.

Oraingoan, 70eko hamarkada izango da jaiaren gaia, *Munduko dantzak* izenburupean. Gauean ospatuko da ekimena: 21:00etan afaria izango da eta 22:30ean dantza saioa.

Hilabete falta da oraindik; hortaz, garai hartako musika entzun eta dantzaren bat edo mozorroren bat prestatzeko denbora badago, norbaitek prestatu nahi badu, behintzat.

ARAMAIO

Udalaren deia herritarrei, alde zaharreko plan berezian parte hartzeko

Proposamenak jasotzeko bilera irekia etzi egingo da, hilak 17, osoko bilkuren aretoan (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ibarrako alde zaharari balioa eman eta birgaitzeko plan berezia idazteko aramaioarren ekarpenak behar ditu Udalak: "Gai honetan ere herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua da guretako", adierazi digu Andoni Solupe Hirigintza zinegotziak. Martxo erdialdean lehen bilera bat egin zen, arkitekto enpresa batek egindako azterketa sozio-urbanistikoaren emaitza nagusien berri emateko.

Deialdiak jende gutxi erakarri zuela ikusita, etzirako bilera berri bat deitu du Udalak: "Azterketako emaitzen errepasoa egingo dugu eta horien arabera herritarrei eskatuko diegu proposamenak egiteko". Ikerketaren

ondorioen artean honakoak aipa daitezke: Nardeaga kalean etxe huts asko dagoela, espazio publiko edo plaza berriak egin behar direla, Ibargoiaren dentsitate handia dagoela eta aparkalekuen arazoari irtenbide bat emateko beharra. Askok gaizki aparkatzeko ohitura izateaz gain, Oseta kaleko aparkalekua eremu pribatuan dagoela gogora ekarri du Udalak eta arazoa sortu aurretik konponbidea eman gura dio auziari.

Auzotarrendako ere bai

Auzo alkateengana ere joko dute: "Auzoetako bizilagunak ere gonbidatuta daude. Ibarrara asko jaisten dira eta eurek ere badute zeresana", dio Solupek.



Ibargoiaren dentsitate handia eta aparkaleku arazoa atzeman dira. | J. BEREZIARTUA

LEINTZ GATZAGA

Lau ortutik bakararra adjudikatu du Udalak

Aisialdirako ortuak egokitu eta gatzagarren eskura jarri zituen Gatzagako Udalak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Herritarren eskaerari erantzuna emanez", Gatzagako Udalak bost udal partzela egokitu eta aisialdirako ortu moduan erabiltzeko, herritarren eskura jarri zituen urte hasieran. Bada, lau ortuotatik bakararra adjudikatu du Udalak. Imanol Saez de Biteri Mendi zinegotziak emandako informazioaren arabera, ortu hori, nahi denean erabiltzeko moduan dago: "Orain arte eguraldiak ez du lagundu, baina laguntzen badu, nahi duenean has daiteke. Kontuan hartuta, hemen normalean maiatzean hasten dela ortuetako mugimendua, ba segurua aski, orduan hasiko da lantzen".

Erabaki egin behar zer egin

Gainontzeko ortuei dagokienez, "bai, bost ziren, eta lau libre

geratu dira. Pentsatu egin beharko dugu horiekin zer egin behar den, besterik ez bada partzelok garbi daudenez, ba garbi segi dezaten. Oraingo astean edo hurrengoan landuko dugu gaia. Izan daiteke ortu hauetako bat eskuratzeko ezarritako baldintzak aldatzea jende gehiagoren eskaerak onartu ahal izateko... pentsatu egin behar", adierazi du zinegotziak. Eta horrekin batera gaineratu du erabakia dena delakoa ere, ahalik eta lasterren hartu gura dutela, ortu horiek beste norbaitek erabili behar baditu "aurten bertan" erabili ahal izan ditzaten.

Bideen garbiketa

Bestalde, Saez de Biteri jakinarazi du, bestelako beharrik ezean, maiatzean egingo dutela herriko ohiko bide garbiketa.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Ninika Loradenda

Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L

Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa

Belorrieta 5 behe - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.



Esko Sport

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.



Jaixak

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburutan izan ezik.



Estacion Servicio Arrasate

San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregeia erositara.
- % 2 dendako produktuetan.



Begiando Optika

Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotel/Jatetxea

Torreazuo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoa) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia

Aranburuzabala 6 behe - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.



Gaes

Otalora 18, Arrasate

Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Multiópticas

Juan Carlos Guerra, 1 behe - Arrasate

Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Arrikruz Kobak

Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.



Imprespal, C.B Imprimategia

Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Kuttuna Estetika

Aranburuzabala 19, behe - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



AQUARIUM

Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.



Oñati Garajea

Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Biotika

Iturriotz 21 - Arrasate


- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Caravanas Oñate

Odadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketaren egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Guztiz Eder

Kalebarria 29

Oñati

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Lilura Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



Argia

www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.



Txuri Urdin izotz pista

Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jai egun, jai egun bezpera edo oporraldia.

** Ez bada zubia edo oporraldia.



Lastai

Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Irungoek azkar ito zuten Mondra

Lehenengo zatian oso eroso sentitu zen Real Union; bi gol eginda ia erabakita utzi zuten partidua

EMAITZA

MONDRA

0-3

REAL UNION

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondra ito egin zen Real Union taldearen aurrean. Saikapen taulak erakusten du bi taldeen artean dagoen aldea, eta berdeguneak berretsi egin zuen hori. Gehien komeni zitzaienean erritmoa apur bat aldatu, eta kanpotarrek azkarregi utzi zuten partidua erabakita, zuri-moreen zoritxarrera.

Real Union ez zen denboraldi amaiera lasaiko partidua jokatzera etorri—talde batzuk amaitutzat eman dute urtea. Irungoek ez dute aurreko postuen borrokako protagonismoa Oiartzuni eta Hernaniri bakarrik eman nahi, eta

Mondra, ostera, etorkizuna korapilatzen dabil

aurrekoen lehia horretatik bost puntura badaude ere, besteen akats baten zain daude, osterare ere multzoan sartzeko.

Mondra, ostera, etorkizuna korapilatzen dabil. Badirudi Tolosan jaso zuten erreposoa ez dutela ahaztu (4-0), nahiz eta tartean Aste Santuko oporraldia izan duten. Mojategiko berdegunera lasai irten ziren, edo ez mailari eusteko borrokan dabilen talde batek izan behar duen amorruaz. Eta hori da Real Unionen aurrean Mondrak izan dezakeen aldeko puntu bakarretakoa, gaur gaurkoz futboleko kanpotarrek gehiago zirelako.

Lehenengo gola, oparia

Partiduko lehenengo gola baloi geldiko jokaldi batean etorri zen. Eta gauza bat da estrategia jokaldian gola jasotzea—entrenatzaileak amorratzen dituen kontu bat da hori— eta beste bat Mondrak jaso zuen gola jasotzea. Diogun moduan, falta atera eta bigarren lerroan bakarrik zegoen Real Unioneko jokalariek egin zuen 1-0koa. Baina ez buruz, hankaz sartu zuen gola; markaketa huts nabarmena, horrenbestez.

Eta gol horretatik Mondra ez zen erreperatu, lehenengo zatiari dagokionez ez, behintzat.

Hala, 35. minutuan penaltiz egin zuen Real Unionek 2-0koa. Egingakoa apartekoa izan barik, etekin ederra.

Bigarrean hobeto

Egiten zuen beroaz itota, Iturrinok hainbat aldaketa egin zituen freskotasuna bilatu nahian. Real Unionek partidua borobilduta zuen, eta Mondra gol bila zebilen. Zaitetik izan zuen aukera onena atezain aurrean bakarrik geratuta, baina loratutako baloia atepetik atera zuen atzelariak. Buruz hainbat gol-aukera garbi izan ostean, Irungoek lortu zuten 3. gola; eurek bai, baloia loratuta.

FITXA TEKNIKOA

Mondra: Ander Ruiz, Garmendia, Kevin, Castillejo, Iregi, Losada, Lander, Lopez, Zaitegi, Uribarren, Aizpurua.

Real Union: Sanchez, Sagredo, Urbieta, Granada, Arzamendi, Sanchez, Merlou, Mario, Arrospide, Pablo, Kevin.

Beste: Sekulako giroa Mojategin, baina futboleko jokatzeko bero handiegia. Jokalariek egosi egin ziren. Ander Fonseka epaileak ez zuen aparteko lanik izan.



Uribarren eta Real Union taldeko jokalariek bat baloigatik lehian. | I-SORIANO

LUTXO ITURRINO | MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Geratzen diren partiduak finalak dira"

Real Union azkarregi sentitu da Mojategin eroso.

Bai, egia da. Ez dugu partidua batere ona egin, eta eurek lehenengo zatian bertan erabakita utzi dute norgehiagoka.

Martxa honetan, azkeneko sei partiduak benetako finalak izan behar dira. Batez ere, etxe-koak.

Etxekoak eta kanpokoak, denak dira finalak, puntu beharrean gaudelako. Datorren astean, esaterako, Zumarragara joan beharko dugu, eta Urola kontrario zuzena da kategoriari eusteko borrokan.



Hamabost egun barrukoa zailagoa izango da, Berio etorriko delako Mojategira, baina Urolari irabazi egin behar diogu.

Hainbat jokalar berri ikusi ditugu

gaur berdegunean.

Bai, beharrak hala agintzen dudelako. Atzealdean arazoak izan ditugu hasiera-hasieratik, eta taldera laguntzera etorri den jendea gustura hartu dugu. Gaur, esaterako, Castillejok jokatu du lehenengoz. Datorren astean Zabaleta erreperatuko dugu. Dena beharko dugu.

OHOREZKO ERREGIONALA

Larri dabilenak garaipen gose handiagor jokatu zuen

EMAITZA

BERGARA

0-2

ZARAUTZ



Bergarako aurrelaria lurlean, kontrarioak falta egin ostean. | I-SORIANO

X.U. | BERGARA

Bergarak duela hilabete inguru lortu zuen matematikoki mailari eusteko behar zituen puntuak, eta ordutik ez da talde bera. Neka Galanek berak onartu digu joko-

lariak ondo dabilzala entrenatzen, eta partidu aurreko jarrera ere ona dela: "Baina markagailuan atzetik jartzen bagara, galdu egiten dugu partiduari buelta emateko gogo".

Neurri handian hori gertatu zen Zarautzen kontrako partiduan. Kostaldeko mutilak jaitsiera postuetatik ihes egin nahian dabilzala, eta igarri egiten da larri dabilzala, beste martxa bat dutela. Bergara, berriz, azkenaldian baloiaz baino baloi gabe sentitzen

da eroso, eta tarteka gertatzen den moduan, etxetik kanpora erosoago jokatzeko dute. Halaxe ibili ziren Galanen mutilak zapa-tuan, Zarautzek lehenengoa egin, eta erreazionatzeko gaitasun barik.

Beste helburu batzuen bila

Gauzak aldatzen ez badira Bergarari luzea egin behar zaio liga. Aparteko helbururik lortzeko motibazio barik, hortxe du erronka Galanek: "Uste dut helburu politikak ditugula lortzeko. Laugarren postuagatik borroka ez dugu galdu, oraindik puntu asko dudelako jokoa. Eta, bosgarren postua defendatzea ere ez da lan txarra".

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

Azpeitiarrek baino hobeto jokatuta hiru puntuak etxean

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Ez zuten partidu erraza jokatu atzo arratsaldean Ibarako zelaian UDA eta Lagun Onak taldeetako mutilek. Temperatura altuak (25 gradu inguru) eta eguzkitan jokatu beharrak zaildu egin zuten norgehiagoka, baina etxeko taldea markagailuan aurretik ipini eta hiru puntuak etxean geratu ziren azkenean, 2 eta 0 irabazita.

Joko hobea, etxekoek

"Ez da oso partidu ona izan, baina amaieran, guk hobeto jokatu dugunaren sentazioaz joan naiz aldageletara". Hala adierazi zuen amaieran Alberto Albistegik. "Bospasei aukera garbi eduki ditugu, eta beraiek, bakarra"

Bigarren zatian iritsi ziren bi golak. "Aitorren golari esker aurreratu gara markagailuan, bosgarren minutuan". Bigarrena ospatzeko zertxobait gehiago itxaron behar izan zuten aretxabalarrek, baina itxaronaldiak merezi izan zuten. "Baloia loratuta Piruk atean sartu du baloia, 80. minutuan".

Albistegik gaineratu zuenez, partidu oso garbia izan zen atzo arratsaldean Ibaran jokatu zena, eta emaitzak bakarrik ez, horrek ere poztu egiten duela eman zuten aditzera entrenatzaileak.

Sailkapeneko laugarren postuan dago UDA eta aretxabalarren hurrengo arerioa, Ostadar taldea izango da.



ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

JOSETXO ARANTZABAL

Baloia atean sartu ezinka

Atzo baloia ez zuen aterik zeharkatu gura izan Azkoagainen eta 0-0 berdindu zuen Aloñak Hernaniren kontra. Ez zen denboraldiko norgehiagokarik onena izan, eta bai Aloña eta baita Hernanik ere erdipurdiko partidua egin zuten. Pase luzeak izan ziren nagusi atzo oñatiarren zelaian eta aukera gutxi sortu ziren, ondorioz.

ERREGIONAL PREFERENTE

Garaipena erdietsi zuen Antzuolak Mutrikin gol zaparradarekin (1-5)

Hiru punturekin itzuli zen etxera zapatuan Mutrikuarrak taldeari irabazita Antzuola. Lehen 25 minutuetan aurretik joan zen markagailuan, 3 gole-tako aldeaz. Bigarren zatian penaltia adierazi zuen epaileak mutrikuarren alde; atezainak geratu zuen. 1-5eko emaitzarekin pozik itzuli ziren.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Puntua salbatu zuen UDak Añorgaren aurka berdinketa lortuta

Bana berdindu zuen Udak etxean jokaturako norgehiagokan. Urduritasuna gailendu zen zapatuan Ibaran. Lehenengo orduerdian 0-1 galtzen joan zen etxeko taldea; lasaitu eta bigarren zatia beraiena egin zuten Udako mutilek. Hala, 80. minutuan berdinke-taren gola iritsi zen.

BIGARREN ERREGIONAL

Igoera faseko seigarren postuan dago Uda B Hernanin galdu ondoren

Igoera fasea jokatzeko lehian buru-belarri sartuta dabil Uda B taldea. Asteon etxetik kanpo jokatu du eta Hernani B taldearen kontrako lehia galdu du 2 eta 1eko emaitzaz; datorren astean Dunboa Eguzki izango du aurrez aurre. Egun, sailkapenaren seigarren postuan dago Uda B.



Ibarako zelaian partidu gogorra bizi izan zen. | JOSETXO ARANTZABAL



San Juan auzoa 35 - BERGARA
Tel: 943 76 35 51 / 620 77 33 83
www.tartufobergara.com

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
06:30etik 17:00etara zabalik.
Eguneko menu ezin hobea.


ASTE BUKAERETAN, deitu eta erreserbatu

- Prezio askotariko menuak.
- Kintada, bazkariak-afariak.
- Bazkari edo afari familiarrak.
- Kontzertuak.
- Bataioak, jaunartzeak...
- Alokatu gure sala edozein ospakizunetarako. (agur-afariak, jai pribatuak...)

Giro ezin hobean.



DJ eta autobus zerbitzua dugu.



ESKUBALOIA

Egiak sparring lanak egin zituen Iturripen, saltsa gutxiko partiduan

Donostiarrak atezain gabe etorri ziren, eta hasierako taldeko jokalaririk gutxi zirekin

EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

42-17

EGIA

XABIER URTZELAI | ARRASATE

"Lotsa ere ematen dit etorri garen moduan etortzeak", zioen atsedendian Egi taldean jokatu baina aste barruan Arrasate entrenatzen duen Lander Arregik. Huheziko ikasleak baieztatu zigun atezain gabe etorri zirela Arrasatera -jokalariek bete zuten hutsune hori-, eta horrekin batera, hasierako taldean jokatzeko duten jokalaririk asko etxean geratu zirela, min hartuta zeudelako. Aurrekari horiekin, laugarren postuan zegoen ustez Egi indartsuak sparring lanak egin zituen, entrenamendu saio bat betetzeko.

Gatz gutxiko partidua

Zapatu arratsaldean Iturripera iritsi orduko Ford Mugarriren eta Egiaren ustezko partidua lehia hasita zegoen. Berandua iristearen motiboa ezkutatzeko beharrik ez: kanpoko kantxan lagun koadrila handi bat cricketean jokatzeko zebilen, eta hori ikusten entretenu ginen minutu batzuek. Hobe bertan geratu izan bagina, sikiera, cricketeko arauak ikasten.

Eta kantxa barrura sartu orduko lehenengo ezustea. Antza, Pablo Gartzia Ford Mugarririk indartsu hasi zuen partidua, eta 10-2 ziren aurretik. Lehenengo minutu horietan etxeko taldea intentsitate handiz jokatzeko ari zen, Egiaren defentsa erraz gaundituz, eta jaurtiketa bakoitza erraz saretatuz. Joaneko partiduan Egi



Kanpotarrek gutxitan egin ahal izan zuten Arrasatekoen atera jaurtiketa garbirik. | IMANOL SORIANO

ligako kontrario gogorrenetakoa izan zen, eta partidu oso lehiatua izan zen. Talde horrek baina antz gutxi zuen zapatukoarekin. Hala ere batean, Arrasatekoen jaurtiketa baten aurrean atezainaren gelditu baldarraz jabetu ginen, zerbait lekuz kanpo egongo balitz moduan. Eta janzkerak ere salatzeko ustezko atezaina: praka motzak, eta kirol jertse arrunt bat jantzita. Hura ez zen atezaina. Ordezkoen aukerak jasotzen zituen animo oihuek baieztatu zituzten susmoa, eta ondorengo jokaldiko gola argigarria izan zen (13-2); atean lerrook idazten dabilena jarriz gero, antzera.

Lehenengoan, hobeto

Lehenengo zatia 19-4 amaitu zuten, eta Arrasatekoen atean aldaketa

izan zen: *Eka* atsedean hartzera, eta Aitor Txabarri kantxara. Eta partidua seriozitatea erabat galduta zenez, Txabarrirendako erronka: *Eka*-k jasotako gol kopurura ez iristea. Bada, galdu egin zuten erronka, Ford Mugarrikoek defentsan intentsitatea galdu eta kontrarioek beste 13 gol egin

zituztelako. Ordurako Arrasatekoek 42 alditan zulatuta zuten Egiaren atea (42-17).

Azkenera arteko borroka

Arrasatekoak igoera faserako sailkatuta daude, baina datorren astean jokatu dute ligako azken partidua, eta Askartzak asteburuan irabazi egin duenez, datorren astean erabakiko da nor den ligako txapelketa, Urdulizen kantxan. Hala, zapatuko *entrenamendu saioak* pozik zen entrenatzaile oñatiarra: "Ez da partidu serioa izan, baina entrenamendu moduan baliatu dugu, eta balekoa izan da. Prestakuntza fisikoaren barruan, Bergararen kontrako partiduen ostean atsedean hartu genuen, eta ligako azken hiru partidua hauek erabiliko ditugu

ESANAK

"Entrenamendu moduan ondo etorri zaigu partidu hau"

PABLO GARTZIA | ENTRENATZAILEA

AITOR TXABARRI
ATEZAINA

"Esaerak dioen moduan, ea hirugarren aukerarik gabe garen"

Urtebete Australian lanean ibili ostean atezain arrasatearra etxera itzuli eta Iturripen atezain dago ostera. Zapatuan bigarren zatia jokatu zuen.

Zelan aurkitu duzu taldea?

Iaz utzi nuen egoera bedinean. Taldea Euskadiko Txapelketa lider zegoela joan nintzen, eta bueltan etorri naizenean postu berean aurkitu dut.

Ligari partidu bat geratzen zaio. Ezusterik egon daiteke?

Askartzak ez du amore ematen, eta kontuz ibili beharko dugu, kategoria honetan edonork irabaz zaitzakeelako. Urdulizek ez du ezer jokoan, baina....

Igoera fasa geratzen da, ez da esperientzia faltagatik izango.

Ez, azken bi urteetan hor egon gara baina ez dugu lortu. Ea esaerak dioen moduan, hirugarren aukerarik gabe garen mailaz igotzea.



igoera faserako ahalik eta ondoen iristeko". Maiatzaren 10, 11 eta 12ko asteburuan jokatu dute fase erabakigarria hori, baina zehazteko dago non.

ARETO FUTBOLA

Jaitsiera postuetatik urrunduta

Garaipena erdietsi zuten zapatuan Eskoriatzak Kurutzia garen kontra etxean jokatu zuten partiduan (2-0). Aukera ugari eduki arren, jokalariek ez zuten asmatu baloia atean sartzen eta lehenengo zatia 0 eta 0 amaitu zuten. Atsedendian ostean kontrola berreskuratu eta bi gol sartzeko aukera izan zuten. Hala, jaitsiera postuetatik urrundu dira.



IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Hondarribiaren aurka 29-29 berdindu zuten Soralue BKEk zapatuan

Ligako 25. jardunaldia berdinetarekin amaitu zuten Soralue BKE talde bergararrak. Hondarribia izan zuten aurrez aurre eta Josetxo Muniategiren mutilek ezin izan zuten etxeko taldea garaitu eta berdinetarekin itzuli ziren Hondarribiatik azkenean. Hala, partiduen amaieran 29-29 erakusten zuten markagailuak. Gaur egun sailkapeneko zazpigarren postuan dago Bergarako taldea.

ESKUBALOIA

Galdu egin dute Bergarak eta Arrasatek bigarren erregionalean

Bigarren erregionalean, Bergarak Gabaz Elgoibarren aurka 35-22 galdu zuten eta sailkapeneko 9. postuan kokatu da. Arrasatek etxean jokatu zuten Usurbilen aurka; 25-32 erakusten zuten markagailuak partiduen amaieran. Galduta, arrasatearrak 11. daude sailkapenean. Datorren astean Bergarak Decotena Pulpo hartuko du etxean eta Arrasatek atsedean hartuko du.

TXIRRINDULARITZA

Eskoriatzako kaleak, ibarreko ziklismo harrobiaren erakusle

Lehen aldiz, jende ugariaren artean, ibilbideak Eskoriatzako herrigunea zeharkatu zuen

IMANOL GALLEGO | ESKORIATZA

Nagusiek ez ezik, bailarako txirrindulari harrobi guztiak txalo zaparrada jaso zuen aurreneko lasterketak Eskoriatzako kaleak zeharkatzen dituen urtean.

Imanol Alvarezek hasieratik lasterketaren erritmoa ezarri eta ihesaldi batean egon arren, azken bueltan erritmoa arindu eta bakarririk iritsi zen helmugara. Nabari da aurtengoa Alvarezek haurren mailan egongo den azken urtea izango dela. Hasierako metroetatik lasterketa berea egin zuen eta. Ibilbideak zituen bihurtuak "konplexuak" izan zirela aipatu arren, bera izan zen lasterketaren jabea. Lehen unetik hasierako postuetan kokatu zen eta taldearen erritmoan oso eroso sentitzen zenez, hasierako talde horren barruan egin zituen lehen 6 birak. Azken aurrekoan, lauko taldetxo baten ihesaldian sartu zen eta azken itzulian bere abilezia erakutsi zuen. Bere burua "eroso" nabaritu zuen eta azken biran, inork jarraitu ezin izan zuen erritmo bati esker, bakarririk iritsi zen helmugara. Lehen neska Oñatiko Irati Barrena izan zen eta eskolako lehen txirrindularia, aldiz, Andoni Azkarate.

Benjaminak oso bizkorak

Gasteenek, ibilbide motzagoa izan zuten. Hala ere, ez zuten erritmoa jaitsi eta pedalei indarrez eman zioten. Azken itzulian, zenbait oñatiarrek taldetxo bat sortu eta erritmoa bizkortu zuten. Horri esker, Aloña mendi elkarteak mailako podiuma betetzea lortu zuen. Lehen postua lortzeko, baina, Aitor Altubek esprint on baten beharra izan zuen. Eskolako aurreneko ziklista, Enaitz Garai izan zen.

Kimuak estrategia saiakarak

Kimuetan zenbait estrategia saiakera egon ziren. Ihesaldiak, esprintak... Nabari zen urteak aurrera egin ahala txirrindulariak heldu egiten direla. Azkenean baina, faboritoen artean zegoen Mikel Orbeak irabazi zuen. Oso lasterketa bizia izan zen, txirrindulariek abiadura handia ezarri zuten eta hasierako itzulian taldetxo batek ihesaldi bat egiteko saiakera egin zuen arren, tropelak ez zion abantaila handirik eman. Hurrengo itzulietan, tropela desegin eta esan moduan, Mikel Orbea izan zen helmugan lehena. Eskolako lehen txirrindularia Oihan Uroz izan zen eta lasterketako lehen neska Alaitz Beloki arrasatearra.

Ibilbide berriaren arrakasta

Aurreko urteetako lasterketak industriguneetan egin ostean,

aurreneko aldiz, antolatzaileek txirrindularitza froga herrigunera ekarri zuten.

Irteera herriko plazaren aurrean kokatu zuten, errepidearen albotan jende ugari batzea lortu zuten. Dorletako Ama elkarteko kidea den Iñigo Azkarateren ustez, "ibilbide berri honi esker jendeak txirrindularitza ikusi eta gozatze-ko aukera gehiago ditu". Aretxabaleta eta Arrasaten aurki egingo diren txirrindularitza lasterketetan Eskoriatzan izandako arrakasta lortzeko lanean jarraituko dute.

DATUA

7

TALDE

Txirrindulari talde guztiak benjamin, kimu eta haurren mailan lehiatu ziren.



Nagusiek 8 itzuli eman zizkieten herriko kaleetan zehar igarotzen zen ibilbideari. | I.G.



Maila ezberdinetako irabazle guztiak batera. | I.G.



Lasterketaren aurretik txirrindulariak hankak berotzen hasi ziren. | I.G.



IMANOL ALVAREZ
ELGOIBAR

"Eroso aurkitu dut nire burua. Indartsu iritsi naiz Eskoriatzara eta ibilbidea aztertu ostean nire estrategia egin dut. Azken bueltan erritmoa bizkortzeko aukera ikusi eta iheslari taldea atzean utzi dut. Horrela lortu dut garaipena".



IRATI BARRENA
OÑATI

"Egia esan, arerioei ez diet kasu gehiegi egin. Lasterketak aurrera eginez irabazten dira, ez atzekoei begira. Argi neukan ez zela erronka erraza izango baina ibilbidea ona iruditu zait eta bertan lan polita egiteko aukera izan dut".



IÑAKI SALABERRIA
URRETXU

"Hasieratik nire erreferentzia Imanol Alvarez izan da, baina azken itzulian bere erritmoa bizkorregia izan da. Dena den, egindako lanarekin oso pozik nago, bigarren postu bat ez da egunero lortzen den zerbait!".



AITOR ALTUBE
OÑATI

"Gogorra izan da. Gure ibilbidea motzagoa zen, baina lehiakideek gogotsu eragin diote pedalei. Hasierako taldetxoan sartzeko aukera izan dut eta azken metroetan egindako esfortzu estrari esker irabazi dut".

SNOW-A

Manex Azula, half-pipe modalitatean errege

Sierra Nevadako estazioan egindako Espainiako Txapelketa irabazi berri du Bergarakoak

XABIER URZELAI | BERGARA

Begarako rider Manex Azulak denboraldia borobiltzeko moduko garaipena eskuratu zuen joan den astean Sierra Nevadako (Granada) eski estazioan egindako txapelketan. Espainiako txapela zegoen jokoan, eta Azulak bere trebeziari etekin handiena sloop-style modalitatean ateratzen badio ere, oraingoan half-pipe modalitatean nabarmendu da.

Lehenengo txanda ikusgarria

Begarakoaren garaipenaren gakoa lehenengo txandan egon zen. Azulak ariketa ikusgarria egin zuen lehenengo saioan. Hodian barrena bikain ibili zen, altuera handiko saltoak eginez eta segurtasun handia erakutsiz; salto bakoitzaren ostean ondo lur hartu zuen, eta truku bakoitza ondo amaitu. Hala, ariketa horri esker epaileek 93 puntu eman zizkioten, mahai gainean kolpea emanaz.

Txapelketan, baina, lehia handia izan zen. Malagako Regino



Manex Azula, hodian ariketa egiten. | ASULA

Hernandez zuen kontrario nagusietako bat, baita Kataluniako Jan Pujol eta Paul Bartolo ere, eta euren aurretik geratzeko ezinbestekoa zen bigarren txan-

dan hanka ez sartzea. Lehenengo txandan zuen abantailaz baliatuta bigarrenaren ez arriskatzea erabaki zuen, eta akatsik egin barik, txapelketa bereganatzeko



Dominarekin. | ASULA

Garaipenaren gakoa lehen txandako lanean egon zen

nahikoa puntu batu zituen. Hala, Jan Pujol izan zen bigarren, eta Paul Bartolo igo zen podiumeko hirugarren koskara.

Erreferente bilakatzen

Half-pipe modalitatean lortutako garaipen horrekin, eta freestyle barruan, Manex Azula erreferente bilakatzen dabil, eta Espainia mailan etorkizun handiena duten riderren artean dago. Izan ere, irabazitakoaz batera Bergarakoak badaki txapelketa berean sloop-stylean irabazten, eta baita big-air modalitatean ere.

PILOTA

Bergara Hiriko bigarren jardunaldia jokatu dute bihar, martitzena

Martitzenean, 19:30ean hasita Bergara Hiria txapelketako kanporaketak jokatu dituzte Udal pilotalekuan. Lehenengo partidua gazte mailakoa izango da, eta Dario eta Sanches bikoteak Olano eta Iribarren izango ditu aurrean. Nagusien arteko lehia, berriz, Elezkanok eta Galartzak Anzotegiren eta Linzoinen kontra jokatu dute. Eguaztenean, berriz, 19:15ean hasita Debarroko txapelketa barruan Eneko Muguruzak eta Iñarrak jokatu dute.

MENDIKO BIZIKLETA

Gaueko 2. mendi bizikleta martxa, apirilaren 27an

II. Basque Adventure Night Bike edizioa gertu dute antolatzaileek. Apirilaren 27an izango da, Bergaran, eta www.basqueadventure.com helbidetan aurkituko dituzte xehe-tasunak. Antolatzaileek hiru ibilbide prestatu dituzte, motza 22 kilometrokoa, ertaina 32 kilometrokoa, eta luzea 38koa. Gehienez 200 lagunendako tokia izango da, eta izena emateko federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuta ez daudenek 17 euro.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Aurrera-Ostadar	4-2
Aretxabaleta-Lagun Onak	2-0
Trintxerpe-Hondarribia	0-4
Oiartzun-Berio	1-0
Beti Gazte-Urola	2-2
Mondra-Real Union	0-3
Touring-Tolosa	0-4
Aloña Mendi-Hernani	0-0
Bergara-Zarautz	0-2

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Oiartzun	63	28
2 Hernani	61	28
3 Real Union	56	28
4 Aretxabaleta	51	28
5 Bergara	46	28
6 Berio	35	28
7 Hondarribia	43	28
8 Tolosa	41	28
9 Aloña Mendi	38	28
10 Touring	33	28
11 Zarautz	32	28
12 Lagun Onak	30	28
13 Beti Gazte	29	28
14 Urola	29	28
15 Ostadar	28	28
16 Mondra	27	28
17 Aurrera	25	28
18 Trintxerpe	25	28

HURRENGO JARDUNALDIA

Zarautz-Aurrera
Ostadar-Aretxabaleta
Lagun Onak-Trintxerpe
Hondarribia-Oiartzun
Berio-Beti Gazte
Urola-Mondra
Real Union-Touring
Tolosa-Aloña Mendi
Hernani-Bergara

ERREGIONAL PREFERENTEA

EMAITZAK

SBB Mutrikuarrak-Antzuola	1-5
---------------------------	-----

I. ERREGIONALA, IGOERA

Hernani B-Aretxabaleta B	2-1
--------------------------	-----

I. ERREGIONALA, KOPA

EMAITZAK

Ikasberri-Arizmendi	3-1
Bergara B: Atsedena	

OHOREZKO GAZTEAK

EMAITZAK

Mondra-Billabona	5-2
Aloña Mendi-Zumaiako	1-3
Lagun Onak-Bergara	2-2

I. GAZTEAK, IGOERA

Aretxabaleta B- Beti Gazte	1-4
----------------------------	-----

I. GAZTEAK, KOPA

Euskalduna- Bergara	1-2
Arizmendi- Aloña Mendi	3-2

KADETEAK, OHOREZKO MAILA

Elgoibar- Aloña Mendi	5-2
Bergara- Lagun Onak	0-2
Aretxabaleta- Anaitasuna	3-0
Eibar B- Arrasate	1-2

I. KADETEAK, KOPA

Arrasate B-Arizmendi	4-0
Antzuola- Bergara B	1-1
Aretxabaleta B- Eibartarrak	1-1

EMAKUMEZKOAK GAZTEAK, KOPA

Mondra- Touring	6-0
Irun Artia- Bergara	2-2
Amara Berri- Aloña Mendi	3-3

ESKUBALDIA

LEHEN NAZIONALA

Ford Mugarri-Egia	42-17
Hondarribia- Soralue BKE	29-29

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Gabaz Elgoibar-Bergara	35-22
Arrasate- Usurbil	25-32

GIPUZKOAKO TROFEOA, GAZT MUT

Leizaran- Bergara	34-28
Urola-Aloña Mendi	24-24

FORU ALDUNDIKO TORNEOA, NES

Talai-Pe Pulpo- Aloña Mendi	21-41
Aloña Mendi B- Urola	20-5

SASKIBALDIA

EBA LIGA

Ardoi-Natra Oñati	49-80
-------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILA

Padura- MU	61-72
------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza KE-Kurutziaga	2-0
--------------------------	-----

LEHEN NAZIONAL MAILA

Legorreta- Aretxabaleta	75
-------------------------	----

GU RE KI RO LA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

SASKIBALOIA

Beñat Barberena | Iraurgi saskibaloitaldeko jokalaria

"Ikasketak bukatzerakoan, atzerrian ikusten dut nire burua saskibaloian jokatzen"

- ▶ Zapatuan Urrezko LEB mailara igotzeko aukera galdu zuten, Malagan
- ▶ laz ez zuen askorik jokatu, baina aurten presentzia handiagoa izan du kantxan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Beñat Barberenak (Arrasate, 1989) zilarrezko LEB mailan egin ditu azken bi urteak, Iraurgi saskibaloitaldean. Iaz, minutu gutxi jokatu zituen. Aurten, berriz, presentzia handiagoa izan du kantxan. Liga erregularrean egin dako lanari esker, urrezko LEB mailara igotzeko fasean egon dira buru-belarri. Baina, iaz moduan, lehenengo kanporaketan agur esan diote mailaz igotzeko aukerari. Zapatuan, ACBko Unicajaren filialaren kontra jokatu zuten Malagan, eta zazpi puntuko aldeगतिक galdu zuten. Joaneke partiduan, etxean, bost puntugatik irabazi zuten, horrenbestez, amaitu da denboraldia.

Igoera faseko lehen kanporaketan esan behar izan diozue agur Urrezko LEB mailara igotzeko aukerari. Igoera fasea jokatzea sarria zen, ez zenuten presiorik, ala kolpe handia hartu duzue?

[Igartzen zaio nekatuta dagoela, domeka eguerdia da eta gauez egin dute Malagatik bidaia]. Ez, ez, kolpea hartu dugu. Igoera fasean lan txukuna egin nahi genuen, eta iazkoa errepikatu da. Iaz goera fasea jokatzen hasi eta lehenengo kanporaketan joan ginen etxera, eta oraingoan berdin gertatu da. Oporrak hartuko ditugu orain, baina zapo garraz amaitu dugu urtea.

Kanporaketa berdindua izan da.

Clinica Rincon ACBko Unicajaren talde filiala da, oso jokalaria gazte osatutakoa, baina lehiakorak dira. Azpeitian bost puntuko aldeaz irabazi genien, baina Malagan ezin izan diogu errenta horri eutsi. Zazpigatik galtzen, azken jaurtiketa bat izan genuen luzapenera joan ahal izateko, baina ez genuen asmatu. Egia da liga erregularrean Malagan jokatu genuenean 20 puntugatik irabazi genielako, baina emaitza hori ez zen erreala, egun txar bat-edo izango zuten, eta jokalaria gazteak dituzunean halakoak sarri gertatzen dira. Baina, Azpeitian galdu egin genuen euren kontra, talde ona dute.

Eta, irailerako gauzak lotuta dituzu?

Ez, dena dago airean. Ikusteko dago kategoria guztietan zelako gorabeherak izango diren, ACBtik hasita. Baliteke kategoriaren bat desagertzea... Ikasketei emango diet orain lehenetara, eta ea irailan non gauden.

Bigarren urtea egin duzu Azpeitian. Iaz ez zenuen askorik jokatu. Aurten presentzia handiagoa izan duzu.



Beñat Barberena, joan den astean, Iturripeko kantxan. | MIREIA BIKUÑA

Lehenengo urtea oso gogorra izan zen. Taldeak bost pibot zituen eta minutu gutxi izan nituen. Urte gogorra eta luzea izan zen. Koadrilakoak pankarta batekin egon ziren partidu batean, eta ez nuen minutu bat bera ere jokatu. Min handia egin zidan. Zorionez, egoera aldatu egin da.

"Urrezko LEB mailarako goera erronka zaila baina polita da"

"Iazkoa urte gogorra izan zen niretzat; minutu gutxi jokatu nituen"

Zer aldatu da iaztik hona?

Pibot gutxiago ditugu taldean. Gainera, denboraldi bukaeran entrenatzaileak esan zidan nigan konfiantza zuela eta gehiago jokatuko nuela. Taldearen lehen fitxaketa ni nintzela esan zidan.

Eta bete egin du hitza?

Bai! [Barre] Pibot amerikar bat daukagu taldean. Hura ez dagoenean, nik jokatzen dut. Egia esan, oso pozik nago.

Dena pikutara bidaltzeko gogorik izan zenuen iaz?

Bai, askotan. Nik saskibaloian jokatu gura nuen, eta Iraurigin lekurik ez nuela sumatzen nuen. Gurasoekin berba egin, eta LEB mailan jarraitu edo EBAn jokatzei aukerak aztertu genituen. Nik esan nien saskibaloian jokatu gura nuela, minutuak behar nituela.

Azkenean, baina, LEB mailan jarraitzea erabaki nuen.

EBAn jokatzei eskaintzarik izan zenuen?

Bai. LEB mailan minutu gutxi nituela jakinda, EBako hainbat talderen deiak jaso nituen. Esan zidaten ni oinarri hartuta antolatuko zutela taldea. Eskaintza gozoa zen, baina nahiago izan nuen Iraurigin jarraitu.

"Etxetik kanpo egon naizenean ere, gurasoen babes osoa izan dut beti"

"Pibota izan arren, kanpotik jokatu eta hiruko jaurtiketak egiten trebea naiz"

Zuk oso ondo ezagutzen duzu EBA maila.

Hala da. Lau urte jokatu nuen EBA mailan. Ez dut hemengo taldeek jokatzen duten multzoan jokatu. Ni Mediterraneo aldeko multzoetan ibili nintzen.

Hori horrela, badaukat esperientzia EBAn, baina gorago jokatu gura nuen. Azpeitian jarraitzeko apustua egin nuen, eta, oraingoan, ez naiz damutzen.

LEB mailatik gora jokatzei aukerarik ikusten duzu?

Ez dakit. Saskibaloiarekin disfrutatzen dudanean, jokatzen jarraituko dut. Ez dakit noraino helduko naizen. Urtez urteko plangintzak egiten ditut.

13 urterekin hasi zinen saskibaloian. Ibilbide luzea egin duzu.

Arrasaten, Ointxerekin egon nintzen gazte mailako adina bukatu arte. Ondoren, Utebora (Zaragoza) joan nintzen urtebeterako. Castellon bi urte egon nintzen eta handik Valentziara joan nintzen. Oraingoan, azken geltokia Iraurgi taldea da.

Ama gustura egongo da orain, etxean zaudelako.

Bai. [Barre] Egia esan, gurasoen babes osoa izan dut beti. Castellon eta Valentzian egon naizenean bisitan etortzen ziren. Azpeitian jokatzei aukera sortu zenean ama asko poztu zen, eta ni ere bai. Izan ere, pribilegiatua naiz: LEB mailan jokatzen dut eta etxean nago.

Ze ezaugarri dituzu jokalaria moduan?

2,04 metroko altuera daukat. Pibota izan arren, kanpotik ere jokatzen dut. Hiruko jaurtiketetan trebea naiz eta errebotean nahiko ondo moldatzen naiz. Ezaugarriak ezaugarri, taldeko jokalaria naizela esaten dut beti. Taldekideei laguntzeko gertu dagoena.

Altua zara, baina argala.

Gazte mailan oso argala nintzen. Urtero pisua irabazi eta gorputza landu dut. LEB mailan jokalariek fisiko izugarria daukate.

Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Ez dakit. SHEE ikasten dihardut, eta, alde horretatik, prestatzaile fisikoaren lana gustuko dut, baina zaila da horretatik bizi izatea. Azkenaldian, baina, ikasketak bukatutakoan atzerriara joatea daukat buruan. Akaso, master bat egitera eta saskibaloian jokatzerara. Akaso, Txinara saskibaloian jokatzerara. Hemengo lan eskaintzaren arabera erabakia hartu beharko dut.

Galdera egin eta erantzunik jasotzen ez duen haurrak burutazioekin beteko du hutsa

Heriotzaren inguruan erantzunik emateko gomendioa egiten du Gilsanzek

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Heriotza gure bizitzetatik baztertu nahian ibili ohi gara; ahalik eta gutxien aipatzen dugu. Kontua da lehenago edo beranduago heriotza bat gertatuko dela inguruan, eta orduan ezingo dugu ukatu. Horrelakoetan zailagoa izaten da umeei azalpenak ematea, eta beranduegi izan daiteke.

Koldo Gilsanz psikologoak heriotzari buruz haurrei nola hitzegin adierazi digu *Guraso.com* atarirako azken artikuluan. "Zaila egiten zaigu. Ez diegu minik eragin nahi, eta gure jarrera horrekin haurrek ikasten dute gehiegi ez galdetzen". Gehiago esaten du: "Gaur egungo seme-alaba asko mugarik gabeziak dira, ohartu gabe bizitzak mugak dituela. Argiena, heriotza".

Jakin behar dugu galdera bat egin eta erantzunik jasotzen ez duen haurrak bere burutazioekin beteko duela huts hori. Hildako amona zerutik urtebetetze festa- eta etorri ez delako haserre dagoen



Umea triste. | SIDI GUARIACH

umetxoa, aita bera txarto portatu delako hil dela pentsatzen duen haurra... horrelakoak gertatzen dira, eta ekidin daitezke.

Lehen dolua erraztu

Gomendagarria da haurrek heriotzaren inguruan entzuten eta sortzen dituzten ideiak zein bizi-penak heldu batek lagunduta lantzea. Nola azaldu? Haurrek

berezko jakin-mina dute, eta adi bagaude eurek aterako dute gaia. Agian modu zuzenean, agian jolasaren bidez. "Galdera bat egiten ditugunean garrantzitsua da erantzunik ematea. Ez dugu gehiegi esan behar: esaldi bat esan, eta itxaron lasai ea beste ezer jakin gura duen". Haurrari lehenengo dolua erraztea da helburua, Gilsanzek esanetan.

Errespetu falta da umeei buruz hitz egitea aurrean egongo ez balira moduan

Gurasook sarri egin ohi dugu, eta interesatzen ez zaizkigun jarrerak indartzen egon gaitezke

L.Z. | ARRASATE

Armando Bastida blogariak sarrera interesgarria egin du zenbait gurasok naturaltasunez egiten dugun akats baten inguruan. Oso ohikoa da guraso artean seme-alabei buruzko gaiak aipatzea, baina horrelakoetan bi akats nagusi egiten ditugula ohartarazten gaitu Bastidak: haurraren bozemaile izan, eta haurraren inguruko gauzak beste bati kontatzea haurra aurrean denean —eta egongo ez balitz moduan.

Bastidak argi du ez dela intentzio txarrarekin egiten, guraso arteko elkarrizketak izan ohi direla, baina horrelakoetan azaltzen dugu seme-alabak nola lo egiten duen, nola jaten duen, zer egiten eta esaten duen... eta sarri horren inguruko gure iritzia txertatzen

dugu. "Haurra aurrean badago gure balorazioa entzutera iritsi daiteke, eta aurrez aurre inoiz esan ez dizkiogun iritzia hiru-garren pertsona bati esaten entzungo digu: "Oso bihurria da", "gauean sekulakoak egiten dizkit"... eta esaten dugunaren arabera errepikatzea interesatzen ez zaizkigun jarrerak indartzen egon gaitezke. Umea bihurri moduan etiketatzen badugu beste baten aurrean, azkenean bihurrikeriak egitea lortuko dugu.

Horrela hitz egiten dugunean haurra gutxiesten dugula dio Armando Bastidak bere blogean, albo batera uzten dugula, eta bere presentziari balioa kentzen diogula. Gehiago dio Bastidak: "Haurrek ez digute esango, baina ez zaio inori ikusezina izatea gustatzen".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Errugbia indarkeriazko kirola da?

Julen Barruti
TAFYDeko ikaslea

Beste kirol batzuekin alderatuta errugbiak jokalaria eta jarraitzaile gutxi ditu gure lurraldean —Iparraldean dezenteghiago, baina Hegoaldean gutxi—. Arrazoi batzuk izan daitezke kirol honek eskatzen duen exigentzia maila, eta kirol honekiko jendeak dituen uste okerrak, izan ere, askok errugbia indarkeriazko kirola dela pentsatzen dute oraindik ere. Errugbia kontaktuzko kirola da, bai, baina horrek ez du ezinbestean berekin oldarkortasuna.

Teknikoki, taktikoki zein eza-gutzei dagokionez oso prestatuta egon behar du errugbi jokalaria batek. Eta zer esanik ez fisikoki; sasoi betean eta ondo horniturik behar du egon. Errugbia kontaktuzko kirola denez saihestezina da kolpe dezenteghi hartzea, eta horregatik garrantzitsua da gorputza egoera egokian edukitzea,

besteak beste, plakatze orduan eta melé edo uztartzeetan sor daitezkeen kolpeak. Horretaz gain, ezin ahaztu errugbiko beste oinarriko elementu bat: teknika egokiak ezagutzea. Ezagupen horiek lesioak ekiditeko aukera ematen dute, batez ere, sorbaldakoak, bizkar-hezurrekoak, lepokoak... izan ere, kirol honetan lesio dezenteghi gertatu arren, gehienak azalekoak izan ohi dira: kolpeak, kontrakturak...

Askotariko ezaugarri fisikoak

Beste hainbat kiroletan ez bezala, errugbian jokalariek ezaugarri fisiko desberdinak izan ohi dituzte, eta denak dira beharrezkoak. Beraz, ia edozeinek izan dezake lekua kirol honetan. Berdin dio sendoa, argala, handia,

Kontaktuzko kirola da; garrantzitsua da sasoi betean egotea

txikia... izatea. Errugbiak beharrezko ditu korrikalari onak aurrean, sendoak uztartzeetan, arinak jokoa aurreikusten, puntaria onekoak entseguetarako... Askotariko ezaugarri fisiko horien batuketak alderdi positiboak baino ez ditu; esaterako, umeei ikasten dute esfortzuaren bitartez garapena lortzen dela.

Errugbiak, tradizioz, garrantzi handia eman izan die balioei. Txikitatik erakusten dira elkar-lana, zintzotasuna, errespetua, diziplina, leialtasuna, sakrifizioa... Puntuak talde guztiaren esfortzuaren ondorio dira, eta entseguak ez dira banaka ospatzen. Beste kirol batzuekin alderatuta errugbiko jokalariek, oro har, ez dute epailearekin eztabaidatzen, eta ez dira saiatu ere egiten epailea engainatzen. Partidu amaieran bi taldeetako jokalariek *hirugarren denbora* deitzen zaion lagun artekoa egin ohi dute partiduko haserreak alde batera utziz.



Arrasateko errugbi eskolako entrenamendu bat. | LARRAITZ ZEBERIO


Pertsona bezala osatzen laguntzen dit

Hemeretzi urte ditut eta errugbi jokalaria naiz. Hamabi urte daramatzat errugbian jokatzen, eta alderdi askotatik sentitzen naiz oso pozik kirol hori praktikatzeko: alde batetik, pertsona bezala osatzen lagundu dit, bai zelai barruan, baita kanpoan ere. Horrez gain, leku berriak ezagutzeko aukera eman dit, baita askotariko pertsonak ezagutzeko aukera ere. Lerro hauen bitartez errugbian jokatzeko gomendioa zabaldu nahi nieke umeei eta gazteei, zeren eta errugbia ez baita kolpeak jotzeko eta hartzeko kirola; askoz gehiago da.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**

arizmendi
ikastola **PRO**

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA



Txirri, Mirri eta Txiribiton etengabe ibili ziren kantuan, dantzan eta elkar zirikatzen agertoki koloretsuan. | IMANOL SORIANO

Gaztetuta bai; baina Txirri, Mirri eta Txiribitonek lehengo lepotik burua

- ▶ 'Terapia' izeneko bira berria estreinatu zuten zapatuan Oñatiko Santa Ana antzokian
- ▶ Lehengo eta oraingo abestiekin, dantzan eta kantuan jarri zituzten ume eta gurasoak

TXOMIN MADINA | OÑATI

Piztikologia, jarlekologia, isilkologia... Horrelako terapiak ez dituzue ospitale arruntetan aurkituko. Horrelako terapiak, eta beste hainbat, Txirri, Mirri eta Txiribiton azken ikuskizunean bakarrik aurkituko dituzue; zapatuan Oñatiko Santa Ana antzokian estreinatu zuten *Terapia* izeneko bira berriaren barruko ikuskizunean, hain zuzen ere.

Bi izan ziren hirukoteak Oñatin eskaini zituen emanaldiak, eta piztu zuten ikusmina; bigarren ikuskizunerako, esaterako, sarre-ra guztiak agortu ziren.

Gaztetuta, betiko bidetik

Hainbat urtetan izan duten *Junior* abizena alde batera utzita, Oñatiko erakutsi zuten gaztetuta daudela, baina gauzak ez direla gehiegi aldatu: Txirrik, serioa eta arduratsua izaten jarraitzen du; Mirrik, zirikatzaile eta petrala; eta Txiribiton, hitzik esan ez arren, ez da isilik geratzen.

Oñatira eroandako formula ere ez da guztiz ezezaguna: pasarte xebleak, beti musikarekin lagundutakoak. Zentzu horretan, ez ziren falta izan *Pinto pinto*, *Allakuidaus* edo *Altza Pelipe* bezalako abesti ezagunak; ezta *Aiton*

DATUA

500

SARRERA

Zapatuko lehen saioan Santa Ana ez zen guztiz bete; bigarreanean bai.

-amonak txapeldun, Zarata orkestra eta Hipopotamoaren dantza doinu berriagoak ere. Dena puzker, eta kaskarreko ugarirekin. Eta beti ere ikusleen konplizitate eta parte hartzea bilatu: dela banatu zituzten sudur gorriekin, dela kantuan eta dantzan jarrita, ume eta gurasoak laugarren pailazo bihurtu zituzten.

Klasikoegiak? Baliteke, baina Oñatin funtzionatu zuen. Pailazoak behintzat gustura geratu ziren. "Ederki joan da: oñatiarrak oso jatorrak izan dira, eta oso txintxo portatu dira. Akaso errebeldia puntu bat bota dut faltan..." zioen Mirrik lehengo saioa amaitzean. Eta umeak ere gustura geratu ziren antza; horren adibide, ikuskizuna amaitzean pailazoak eza-gutzeko sortu ziren ilarak.

ASIER OSINAGA | ANTIXINTXINKETANEKO KIDEA

"Nazioarteko Lasterketa antolatzeke balioko digu ateratako diruak"

Antixintxiketan Kirol Elkartearen eskutik etorri ziren zapatuan Txirri, Mirri eta Txiribiton Oñatira. **Kirolarekin lotura zuzenik ez duen ekitaldia antolatu duzue...**


Orain dela bi urte hasi ginen Antixintxiketanen kirol esparruaz gain, esparru soziokulturala ere lantzen, eta horren barruan kokatzen da gaurkoa.

Nola ikusi duzu lehen saioa?

Oso ondo, giro politarekin; ume eta gurasoak gustura irten direla uste dut, barre egin dutela. Hasi-eran apur bat urduri geunden, Aste Santua tartean egonda sarrera salmenta nahiko motel joan delako, baina azkenerako ia denak saltzea lortu dugu.

Salmentatik ateratako diruak badu erabilera ona izango du.

Horrelaxe da bai. Krisi garaia da, eta Oñatiko Nazioarteko Lasterketa antolatzeke babesleek ez dituzte lehen besteko diru-laguntzak ematen, Guk hori ulertzen



T.M.W

dugu, eta horrelako ekintzak antolatu behar ditugu. Derrigorrezkoak diren aseguruak, epaileak... Eta horrelakoak ordaintzeko balioko du hemen ateratako diruak.

Lasterketa egin baina, egingo da?

Bai, egingo da. Ekainaren 1ean izango da; sorpresarik ere egongo da. Ez dut uste beste urte batzuetako mailako korrikalariak ekar-terik izango dugunik, baina ziur korrikalari politik egongo direla.



Ikusleek sudur gorri-gorria jaso zuten sarreran. | IMANOL SORIANO

Adar kontuekin gertatzen den bezala, bata bestea baino kaltetuago

- ▶ Antzezlanak ikusteko Espaloia dezente bete zen
- ▶ Adarrek ez diote bikote gazteari mesederik egingo

IMANOL GALLEGO | ELGETA

Komedia generoak askorako ematen du. Barrea eragiteko moduak oso desberdinak dira, baina bikote baten gainbehera klasikoaren zerrendan sartuko nuke. Gizakiok izaera morbosoa dugu eta bikote bat bere erlazioa komunetik behera botatzen ikusteak barrea eragiten digu.

Para lo que hay que vivir... mejor no morirse nunca antzezlanak bikote baten estoldetan barneratzen da, eta ironikoa dirudien arren, egoera dramatikoetatik istrionikoetara salto egiten du ikuslearen barreak behin eta berriro pizteko. Hau gutxi balitz, musika eta dantzak momentu surrealista areagotuko ditu.

Otxoa Hidalgo baino hobeto

Ziur aurreko lerroak ez duela inor ezustean harrapatu. Gorka Otxoa aktorea baino komediante



Adarrek honelako egoerak sortzen dituzte. | IMANOL SORIANO

handia dela esango nuke. Bere aberria barrea da eta genero horretan gustura aritzen da. Antzerkiak gainera ikuslearen konplizitate estutzeko parada ematen dio eta une horretan,

Donostiako aktoreak, bere onena erakusten du.

Zoritxarrez, Carla Hidalgo-ren lana ez da horren borobila. Une batzuetan antzerkitik at dagoela dirudi eta beste batzue-

GORKA OTXOA | AKTOREA

"Komedian eta antiheroi paperetan oso gustura sentitzen naiz"

Para lo que hay que vivir... mejor no morirse nunca antzezlanaren ostean eta garagardo baten aurrean egin dugu Gorka Otxoaren zita. Gaueko ordu bata inguru dira eta erraz sumatzen da Otxoa leher eginda dagoela. Ziur Carla Hidalgo bezalako bikotekide bati adarrek jartzea lan nekeza dela.

Para lo que hay... komedia edo komeria da?

Egia esan inoiz egin dudana komedia eroena da hau. Egiazko gauza gutxi daude eta helburua oso zehatza da, jendearen barrea eragin nahi dugu. Langabezia, adarrek... Bezalako gaiak jorratu harren guztia fikzioa da.

Zure pertsonaia gehienak amodio kontuetan galtzaile izan ohi dira.

Hor dago umorea, galtzaile batek irabazle batek baino barre gehiago sortzen ditu. *Bypass* pelikulan emakume asko ibili ostean, filma bakarrik bukatzen nuen. Dena den, antiheroi paper hauetan oso gustura sentitzen naiz.



GOIENA

Antzerkia ez da zure lan esparru bakarra.

Telebista, zinea, antzerkia... Denetik egin dut eta orain horrela nabil. Duela bi aste bukatu genituen Eskerrik asko Petrov! programaren grabaketak, Madrilan telesail bat eta antzerki batean nago... Ezin naiz kexatu.

Horrenbeste lanen ostean, kame- ra atzean ikusiko zaitugu?

Zuzendari bezala akaso, baina gidoilari lanak izugarriko zailtasuna duela iruditzen zait.

Euspot iragarki lehiaketaren irabazlea martitzenean jakingo dugu

I.G. | ARETXABALETA

Aurtengoa bigarren edizioa izango da eta martitzeneko sari banaketan jakingo da zeintzuk diren iragarki sarituak. Ainhoa Vitoria kazetariak gidatuko duen gala 19:00tan hasiko da eta bertan banatuko diren lau sariak kontuan izanda guztira 2.250 euro banatuko dituzte.

Kalitate eta kopuruak gora

Euspot lehiaketa oso gaztea da oraindik, aurreko urtean hasi zen arren, euskal iragarkigintzan arrakasta nabarmena eskuratu dut. Datuei kasu egin ezker,

antolatzaileek pozik egoteko arrazoi ugari dituzte. Aurreko urtean 9 lan aurkeztu ziren bitartean bigarren edizio honetan kopurua dezente handitu da. Aurten, 22 izan dira Spotik onenaren saria lortzeko aurkeztu diren lanak.

Kopuruarekin pozik egoteko arrazoi nahikorik ez balute bezala, antolatzaileek aurkeztutako lanen kalitateak "nabarmen gora egin duela", azpimarratu dute. Irudimena, sormena, umorea, originaltasuna... Aurtengo lehiaketa nork irabaziko duen jakiteko baina, Martitzen arte itxaron beharko da.

Prozaka.eus: tristuraren kontrako euskal terapia

Kepa Errasti eta Oihan Vegak euskaldunok beste hizkuntza batzuetara salto egiteko dugun joeraz hausnarketa satirikoa egingo dute. Ziur ez dela barrerik faltako. Antzezlanak 20an estreinatuko dute Aretxabaletako Zaria aretoan eta doan izango de arren, sarrerak lehenago jasotzea komenigarria izango da.



TXOMIN MADINA

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
apirilak 20

Maiatzak 18
Ekainak 15
Uztailak 20
Irailak 21
Urriak 19
Azaroak 16

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Emplegu eta Garapen
Ekonomikoen Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, harritasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





Aldeta taldea Zabalotegiko oholtza gainean. | IMANOL SORIANO

Gertuko emanaldia eskaini zuen Aldetak Zabalotegin

'Txoriaren aberria' izeneko diskoa aurkeztu zuen talde donostiarrak eta kantu berriak ere jo zituen

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Zabalotegiko oholtzaren gainera igota aurkeztu zuen Aldeta taldeak bere azken lana egubakoitz iluntzean. Oso gertuko emanaldia izan zen, eta bai entzuleak eta baita taldekideak ere, oso gustura geratu ziren saioarekin.

Disko eta kantu berriak

Txoriaren aberria disko intimoa aurkezttera gerturatu zen Aldeta

taldea Donostiatik Bergarara eta amaieran, kideak oso pozik azaldu ziren. "Uste baino jende gehiago etorri da kontzertura, eta oso oso pozik gaude". Hala adierazi du Juanra Unamuno taldekide bergararrak. "Oso gertuko emanaldia izan da, gainera".

Disko lirikoa da aurkeztu zutena, "eserita lasai entzuteko horietariko", Unamuno beraren esanetan. Zabalotegik horixe

eskaintzen duela eta, gustura jarraitu zuten bertaratu zirenenek Aldetaren errezitaldia.

Baina talde donostiarrak disko berria aurkezteaz gainera, ezustekoa eman gura izan zien Zabalotegin elkartu zirenei. Hala, "kanta berriren bat edo beste jotzera animatu" ziren eta ikus-entzuleek eskertu egin zuten Aldetaren emanaldi atsegina, txalo artean taldea agurtuz.

Gaztetxeak 22 urte bete dituela eta, festa egin zuten

Hitzaldiak, jai feminista eta beste egingo dituzte apirilean zehar

Z.V.D.M. | ARRASATE

Hogeita bi urte bete ditu Arrasateko Gaztetxeak eta urtemuga ospatzeko elkartu ziren zapatuan hainbat lagun. Goizean Azoka Egunaren baitan, serigrafia tailerra ipini zuten gaztetxeako kideek azokan bertan.

Ondoren, eta bazkal aurretik, poteoa egin zuten. Sukaldean sartu zenik ere egon zen eta hainbat lagunek babarrunak prestatzeko egitekoa euren gain hartu zuten; ez zuten nolanahiko lana izan, 60 lagun inguru elkartu baitziren Seber Altuben mahaiaren bueltan majo jateko. Ekitaldia egin zuten gero, eta musikaz amaitu zuten, eguna borobilduz.

Apirila ospakizunez lepo

Zapatukoa, baina, ez da ospakizun bakarria izan. AGAKOK ekimen ezberdinak eraman ditu aurrera hilabete hasieratik, tartean, mendi irteerak.

Agendaren berri eman zuten gaztetxeako kideek: "Datozen asteotan ere zer egin izango dugu. Esate baterako, hilaren 17an nazioarteko presoei idazteko elkartuko gara; Emakumeen jai feminista egingo dugu hilaren 20an; hitzaldiak ere antolatu ditugu... Esan behar da, hitzaldiak formatzeko moduak direla, eta jende guztia gonbidatu gura dugu gaztetxera gerturatu eta parte hartzera".



Bazkaria egin zuten Seber Altube plazan. | IMANOL SORIANO

Generoa hizpide izan zuten Antixenan zapatu goizean

Z.V.D.M. | OÑATI

Beste hainbat gaztetxetan bezala, Oñatin ere gaztetxe eta generoaren inguruko harremanak interesa piztu du eta gaiari buruz berba egiteko bilera irekia egin zuten zapatu goizean.

Gaztetxe ezberdinetako kideak zeuden gonbidatuta eta hamar lagun bertaratu ziren; horietariko bat izan zen Pili Alvarez kataluniarra. Alvarezek *Gaztetxeak eta generoa* izeneko ikerketa egin du Emakunde emandako beka bati esker, eta emaitzen nondik norakoak azaldu zituen bileran.

Ez zen berba egin zuen bakkarra izan; gainerakoek beraien esperientziak partekatze

aukera izan zuten zapatuko bileran.

Material bilketa

Oñatiko gaztetxeako bileraren ostean adierazi zuten, baliabide gida bat egiteko asmoa dute: "Generoari buruzko materialaren baliabideen zerrenda osatzen hasi gara, eta informazio edo materiala eduki ezkerreko, *generogaztetxeak@gmail.com* helbidera bidaltzeko eskatuko genuke".

Gaztetxeetako kideei interesa pizteko bideo bat grabatu dutela ere eman dute aditzera. Hurrengo bilera, ekainaren 8an izango da, "Bizkaiko gaztetxeren batetan".



JOSETXO ARANTZABAL

Udaberriari gorozarre, musikarekin

Udaberri kontzertua egin zuen atzo Bergarako Orfeoak Bergarako Zabalotegin eta aretoa bete egin zuten musika zaleek. *Euskal musikaren antologia* izenburupean eskainitako saioa berezia izan zen; ahots ederrekin batera, piano zein txalaparta doinuak ere entzun ziren Bergarako aretoan. Abesti ugari interpretatu zituzten, horietariko asko ezagunak; hainbaten artean *Agur jaunak*, *Saratarra*, *Axuri Beltza* edota *Aunitz urtez* kantuak entzun ziren.

GURE MUSIKA TALDEAK

HARDFLIP



Hardflip, Bergarako Goiko-zahar lokaletan entseatzten. | ALEX MOLANO

"Bergaran betidanik egon dira hardcore musika defendatu duten taldeak"

- ▶ HHD taldearekin bat 'split'-a kaleratu zuten Tapoifest jaialdirako
- ▶ Demo gisa planteatu zuten grabazioa, gerora etorriko den diskoarentzat

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Orain dela bost bat urte hasi zen Hardflip taldearen ibilbidea Bergarako Goiko-zahar entsegu lokaletan. Lehenengo kontzertua proiektuarekin hasi eta hilabetera eskaini zuten hirukote moduan, baina ordutik hona kontzertu asko eman dituzte laukote moduan, hardcore eta punk doinuak non-nahi defendatuta. 2010ean *Ke kereis?* diskoa kaleratu zuten, eta duela bi hilabete, Bergarako gaztetxean egin zen Tapoifest hardcore jaialdia aprobetxatuz, beste hiru kantu oparitu zizkieten taldearen eta hardcorearen zaleei. HHD taldearekin batera disko bat kaleratu dute, talde bakoitzaren hiru abestirekin osatua. Bergarako kantuek hardcore-aren tokia aldarrikatzen dute.

Split bat atera berri duzue; nondik etorri da ideia?

Gure taldeko batera joleak HHD taldean jotzen du, eta, talde horretako gitarra joleak soinu teknika-ri ikasketak egin zituenez, HHDk euren abestiak grabatzea pentsatu zuten. Grabazioa gure entsegu lokaletan egin zuten, eta, hauek amaitzean dena prest zegoenez, hurrengo egunean geure kantuak grabatzeko proposamena egin ziguten. Horrelako aukerak ezin dira desaprobatu.

Hortaz, lokalean grabatu duzue.

Bai; Gabonetako egun bat aprobetxatu genuen. Hamar abesti berri geneuzkan; berez, diskoa orain dela urtebete ateratzeko asmoa geneukan, baina, beti bezala, dena atzeratu egiten da. Grabazioa zuzenean egin genuen; base erritmikoa, gitarra

eta ahotsak batera grabatu genituen. Soinu aldetik ez da diskoa bezain kalitate onekoa, baina gustukoagoa dugu, gordintasun puntu bat duelako, kontzertu edo entsegu baten xarma du. Hala ere, demo baten moduan planteatu genuen grabazioa, kantuak guk geuk entzuteko erreminta moduan.

Hala ere, kaleratu egin duzue.

Bai; Tapoifest jaialdian bi taldeok jo behar genuenez, gure zaleei kan-

tu hauek oparitzea pentsatu genuen.

Hamar kantuen artean aukeraketa egitea zaila izan da?

Ez, aukeraketari dagokionez ez diogu garrantzi handirik eman; gure ustez, soinu eta interpretazio onena duten kantuak aukeratu ditugu: *HC United*, *Konturatu!* eta *Sin decir adios*.

Eboluzio handia egon da lehenengo diskotik hona?

Baietz uste dugu. Erritmo gogorra- goak erabili ditugu azkenaldian, *Ke kereis?* diskoko kantuak melodikoagoak dira; oraingoan, ordea, ez dira horren melodikoak. Abesti berrietan, baina, oraindik abesti punk asko daude, 80ko hamarkadako hardcoretik gertu. Kontuan hartu behar da bakoitzak influentzia ezberdinak ditugula, eta hori, nahitaez, islatu egiten da; hala ere, denok gustuko ditugun taldeak ere hor daudela uste dugu.

Zeintzuk lirarete talde horiek?

Adibidez, Nofx, Madball, Sick of it All... Hala ere, hauetako batzuk jotzeko momentuan ez dira horrenbeste igartzen. Guretzat, influentzia garrantzitsua Extorsion talde bergararra ere izan da, herrikoak dira eta haien musika entzunda hazi gara.

Autoekoizpenaren aldeko apustua egin duzue.

Bai; esan bezala, grabazio hau guk geuk kantuak entzun eta hauek lantzeko egin genuen. Beraz, kopiak etxean egin eta kontzertuetan banatu ditugu. Oraingoan, 80 bat disko banatu ditugu eta hurrengo kontzertuetara kopia gehiago eramango ditugu bertan banatzeko.

Eta disko ofiziala noizko?

Gure asmoa uda aldean grabatzea da. Seguruenik, demo hau grabatu duen Asier Olabarriarekin egingo dugu lan. Zuzenean grabatuko dugu, baina gitarra konponketak eta aho-

KRITIKA

Hardflip/HHD

Autoekoizpena (2013)

"Pozen naiz Fly Shit taldekoek derrigorrezko atsedena hartu bitartean, Bergaran hardcorea egiten duen beste talderik badagoelako.

Hard Flipen hiru kantu entzun ditut. Ingelese abestutako "HC United"-ek New Yorkeko hardcorea ekarri dit gogora, indartsua eta pisutsua izateaz gain, lelo eta koroekin Oiletik hurbil dagoena. "Konturatu!" euskaraz abesten dute eta eskola zaharreko hardcorearen adibide argia da, minutu eskas irauten duena, sinesgarria. "Sin decir adiós" piezak, berriz, ez nau hainbeste hunkitu: punkyagoa da, melodikoagoa eta esango nuke, gaztelaniaz baino ingelesez eta euskaraz emaitza hobea lortzen dutela".

tsak base guztia egin ondoren grabatuko ditugu. Hori da helburua, baina asmo berarekin bi urte daromatxazu, horrenbestez...

Zelan ikusten duzue hardcore eszena inguruotan?

Eszena gutxi dago. Donostia aldean talde gehiago daude; beraz, aukera gehiago daude, baina inguruotan ez dago eszena indartsurik. Hala ere, Bergaran betidanik egon dira hardcorea egin duten taldeak; adibidez, Fly Shit, Supercools, Extorsion eta Rotten Teenagers. Baina inguruan ez dago eszenarik. Honen erakusgarri da kontzertu gehienak punk musika egiten duten taldeekin jo ditugula.

"60 bat disko banatu genituen Tapoifesten"

Lander Unanue | 'Bertsoapp' aplikazioaren sortzailea

"Merkatua zabaltzen dabil eta gero eta aukera gehiago dago; lan eginez"

- ▶ Bertsotan egiteko aplikazio batek izandako arrakastak animatuta, app-ak garatzen dihardu
- ▶ Abarkatxo enpresa abiatu du bere proiektu pertsonalak garatzeko bide bezala

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Barikuan Mondragon Unibertsitatearen diploma banaketako hitzaldia egin zuen Lander Unanuek. Unibertsitateko irakasle izan eta gero, Txinan ibili da lanean sopoloztarra eta orain etxera itzuli da bere proiektuak garatzeko. Telekomunikazio ingeniaria da eta *Bertsoapp* aplikazioarekin arrakasta izan du sarean.

Zelatan bertsoarako aplikazioa? Orain dela urtebete Shangain nengoen lanean. Gabonetan aplikazioak sortzen ikasteko *on-line* ikastaro bat egin nuen eta, praktikatzeko, nire kabuz aplikazio bat egitea pentsatu nuen. Euskararekin zerikusia zuen aplikazio bat garatu nahi nuen, herrimina ere baneukan, eta Interneten *Hitzetik hortzera* saioa ikusten nabilela otu zitzaizkidan bertsolari buruzko aplikazioa egitea. Proba txikia izan zen eta ez nuen espero hainbesteko zarata egingo zuenik. Aplikazioa argitaratu zenean harritu egin ninduen sarean izan zuen oihartzunak.

Zenbat deskarga izan ditu urtebetean?

Datu zehatzik ez dakit baina, iOS plataforman 1700 bat izango dira eta Androiden, instalatutakoak eta deisintalatutakoak kontuan hartuta, 300 bat inguru. Deskarga gehienak aplikazioa argitaratu berritan egin ziren, halakorik ez baitzegoen. Egun, bataz beste, eguneko 5 deskarga daude.

Abarkatxo enpresa eta Abarkatxo.com arrakasta horrek bultzatuta abiatu dituzte?



Unanue, Amaia antzokiko sarreran. | GOIENA

"Aplikazioekin nire proiektuak egiteko bidea izan zitekeela ikusi nuen"

Bai, ze harritu egin ninduen nire proiektu pertsonal txiki batek izan zuen arrakastak. Pentsatu nuen izan zitekeela bidea nire proiektuak garatzeko eta hortik hasi nintzen izena, ideiak... gara-

"Abarkatxo metro eta erdi karratuko enpresa ibiltaria dela esaten dut"

zen. Berezia eta pertsonala izatea nahi nuen eta sarean betidanik Abarkatxo gaitzizena erabili izan dudanez, hori nire marka bihurtzea erabaki nuen. Hortik hasi nintzen.

Eta zer darabilzu eskuartearen orain?

Bi aplikazio berrirekin dihardut lanean. Batek matematikekin dauka zerikusia eta bestea kode sekretuekin lotutako joko txiki bat da.

Programatzaile asko dabil gaur egun aplikazioak garatzen. Urrearen sukarraldi berri moduko bat badago honekin, ezta?

Nik beti esaten dut Abarkatxo metro eta erdi karratuko enpresa ibiltaria dela; ordenagailu eramangarria, tableta eta eskuko telefonoak osatzen baitute eta ni nagoen lekuan dago. Egia da baliabide oso gutxi behar direla baina jende asko dabil horretan. Entzuten dira istorio asko aplikazio bat sortu eta dirutza bategatik saldu dutenenak baina milaka eta milaka garatzaileen artean bati gertatzen zaio hori. Hala ere, egia da merkatua zabaltzen dabilela eta gero eta aukera gehiago dagoela. Bizitza egiteko lain irabazi daiteke baina horretarako aplikazio asko garatu behar dira benetan asmatu arte. *Angry Birds*-ekoak eta makina bat bider saiatu ziren arrakasta izan arte. Hor dago lana, beraz, saiatu egin behar da askotan. Bidea ibiliz egiten da.

Halako ametsik baduzu zuk?

Abarkatxorekin bizitzeko adina emango didaten proiektu pertsonalak egin nahi ditut. Proiektu artistiko-teknikoak ere garatzen ditut, eta komertzioek erakusleioetan bezeroekin interaktuatzeo sistema bat ere garatu dut, adibidez.

PCen salmentek inoiz baino gehiago egin dute behera urte hasieran

J.B. | ARRASATE

PC merkatuaren azken datuak kaleratu berri ditu IDC ikerketa enpresak 2013ko lehen hiruhilekoari dagozkio datuok eta PCen salmentak inoizko salmenta jaitzierarik handiena izan dute urte hasieran. Adituek Windows 8 sistema eragilearen harrera txarra jarri dute arrazoi moduan. Hain zuzen, Windowsen sistema eragile berriaren etorrerarekin batera geratu da jaitziera eta merkatuko modelo aukera inoiz baino zabalagoa da.

Ekoiak ia denek, behera

Ia fabrikatzaile guztietan eman da beherakada oso nabarmena

(Lenovo ekoizleak eutsi dio soilik). Acer etxeak, esate baterako, %30eko beherakada jasan du salmentetan, HP-k %23 eta Dell-ek %11. Apple, adibidez, %7,5 jaitzi da baina nagusi da, alde handiarekin, tablet-en merkatuan.

Windows 8 sistema eragilearekin Microsoftek apustu sendoa egin badu ere, erabiltzaileengan ez du piztu interes nahikoa. Nahasgarria izan da, gainera, sistema eragilearen bertso berriaren etorrera. Ez da garbi zehaztu orain arteko betiko Windows-a ordezkatzera datorren. Sistema eragile berria gainera, orain arteko bertsoen oso desberdina da, erabiltzaileen kalterako.

Testamentu digitala abiatu du Google-ek, hiltzean kontuak ixteko

J.B. | ARRASATE

Erabiltzaile bat hiltzerakoan datu pertsonalak ezabatu ala kudeatzeko arazoari aurre egiteko zerbitzua ateratu du Google-ek. Google-en erabiltzaileek erabaki dezakete aurrerantzean, hiltzerakoan euren datuak guztiz ezabatu ala beste erabiltzaile bateri pasatzea. Google +, Dribe, Gmail, Youtube, Google Voice, Picassa eta Blogger zerbitzuetan eskainiko da aukera berria. Gero eta ohikoagoa da erabiltzaile bat hil eta haren kontuetara sarbiderik ez izatean, sare sozialetako profilak ala datu pertsonalak limbo moduko baten geratzea. Datu pertso-

nal horiek izatea beharrezko da kontua eta profilak ezabatzeko baina jabearen baimen barik ezin daiteke halakorik egin.

Aukera berria

Helburu horrekin "Jarduerarik gabeko kontuen kudeaketa" delako aukera abiatu dute Gmail-en. Erabiltzaileak erabaki dezake, horrela, hiru, sei ala 12 hilabetetako jarduerarik ezaren ostean, kontu hori ezabatu ala beste erabiltzaile bati pasatzea. Bigarren aukera hori hartzekotan, aukeratutako erabiltzaileak SMS eta posta mezu bana jasoko ditu.

Facebook Android-en sisteman txerta daiteke

J.B. | ARRASATE

Android telefonoetan instala daitekeen aplikazio sorta da Facebook Home aurkeztu berria. Funtsean, ia sistema eragilea bera ordezkatzeko duen sistema bat da. Zuckerberg-ek berak joandako astean egindako aurkezpenean bertan agertu zuenez, aplikazio sistemetan barik pertsonen sistemetan oinarritzen da Facebook Home.

Android-en instalatu eta sistema bera hein handi baten ordezkatzeko duen aplikazio paketea da Facebook Home. Sare soziala oinarri hartuta, telefonoa bera erabili daiteke, sistema eragilea izango balitz bezala. Honela, hasierako pantaila Facebook-eko azken eguneraketekin osatuko litzateke eta bertan agertzen diren lagunekin zuzeneko jarduna izateko aukera ematen du, esate baterako, bestelako atalen beharrik gabe.

Hasiera pantaila

Tableterako bertsoia ere agindu du Zuckerbergek. HTC One, HTC One X, Samsung Galaxy SIII eta S4 eta Samsung Galaxy Note II modeloentzako barikuan egongo da deskargatzeko prest Facebook Home. Horrez gain, Facebook-ek ez du mugikorrik aterako baina HTCren First modeloa, esate baterako, Facebook Home aurreinstalatuta salduko da aurki.



Facebook Home. | GOOGLE

iPhone 6a uztailean hasiko dira ekoizten, Digitimes-ek dioenez

Apple hornitzeaz arduratzen den Taiwango enpresako bi iturrik konfirmatuta, Digitimes-ek kaleratu du telefono berriaren ekoizpena uztailean hasiko dela. Gainera, telefono berriarekin batera sistema eragilea eguneratuko du, antza, Apple-ek. Filtratutako bideo baten iOS7ren zenbait ezaguri berri azaleratu dira.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGA

Bankia

Bankiaren azken publizitate kanpainak lotsagabetasunaren muga guztiak gainditzen ditu eta immoralitasunaren esparruan barrena sartzen da. Zera dio iragarkiak: 'Has gaitezen berriro, baina oraingoan printzipiotetaik hasita' (-literalki- *desde los principios*). Kontuan izanda, Bankia dela espainiar estatuan etxebizitza gehien hustu dituen bankua, kontuan izanda, preferenteen inbertsio fondoekin egindako estafa lege guztien kontra doala, eta kontuan izanda, diputatuen kongresuan inbertsio fondo horietan euren diru guztia galdu duten biktimei kongresurako sarbidea debekatu dietela, norbaitek azal diezadala, mesedez, zein printzipiori buruz ari diren hizketan spot horretan.

Bankia kargu publikoa zuten agintariak kudeatu dute, soldata astronomikoak kobratuz eta legez kontrako jarrerak inposatuz, hortaz, zein printzipiotaz ari dira? Demontre! Erabat inozoak garelako uste al dute ba? Dagoeneko denak balio du panderetaren estatu fantastiko horretan?

Has gaitezen berriro, baina oraingoan printzipioetatik dio iragarkiak, ados, ba "printzipioz", bidal ditzatela espetxera lapur horiek guztiak, legeak hala agintzen du eta.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 15



'Berriak'

Asteburuan jaso ditugun albisteak ikusgai izango dituzue. Baita egunean bertan gertatutakoak ere. | 14:45

12:00 Magazinea
13:00 Gurean gaur
13:30 Zorion Agurrak
13:35 Onein
13:56 Ikusmira
14:11 Ekogune
14:41 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AZK2012
16:18 Bizitegia
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:18 Eguraldia
17:21 Onein
17:47 Erreportajea
18:37 Ekogune
19:07 Hitzlandia
19:27 Altxorren bila
19:57 Berriak
20:17 Eguraldia
20:19 Magazinea
21:04 Gurean gaur
22:00 Harmailatik
22:45 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Harmailatik
00:03 Eguraldia

MARTITZENA, 16



Harrera-familiak

Arrasateko ZuOndoan taldekoek egindako harrera-familiendokumentala izango dugu hizpide. | 20:20

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:26 AsteON
16:56 Berriak
17:16 Eguraldia
17:19 AZK2012
17:49 Altxorren bila
18:20 Erreportajea
19:10 Harmailatik
19:55 Zorion Agurrak
19:58 Berriak
20:18 Eguraldia
20:20 Magazinea
21:05 Gurean gaur
21:35 AZK2012
22:05 Berriak
22:30 Magazinea
23:15 Bizitegia
23:43 Berriak
00:24 Berriak
00:29 Eguraldia
00:32 Magazinea

EGUAZTENA, 17



Nerabezaroa

Arrasateko Udal Prebentzio sailak antolatuta, nerabezaroari buruz egindako saioak berbaigai. | 20:16

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:13 Harmailatik
13:58 Erreportajea
14:48 Zorion Agurrak
14:53 Berriak
15:13 Eguraldia
15:16 Klaketa
15:51 Onein
16:21 Harmailatik
17:06 AZK2012
17:36 Zorion Agurrak
17:41 Berriak
18:01 Eguraldia
18:03 Ikusmira
18:26 Hitzlandia
18:46 Bizitegia
19:16 Beranduegi.tv
19:46 Zorion Agurrak
19:49 Berriak
20:14 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:01 Gurean gaur
21:32 AsteON
22:02 Ekogune
22:32 Berriak
22:52 Eguraldia
22:54 Magazinea
23:39 Harmailatik
00:03 Berriak
00:23 Eguraldia

EGUENA, 18



'Planik bai?'

Astebururako planik bai? Arantzazu Ezkibel aurkezleak emango digu kultura ekitaldien berri. | 17:19

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:19 Altxorren bila
13:56 Ikusmira
14:19 Onein
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Ikusmira
15:31 AZK2012
16:01 Berriak
16:21 Eguraldia
16:24 Onein
16:55 Ikusmira
17:19 Planik bai?
17:39 Ur eta lur
18:06 AZK2012
18:36 Onein
19:02 Zorion Agurrak
19:07 Beranduegi.tv
19:32 Planik bai?
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:16 Magazinea
21:01 Gurean gaur
21:31 Laino arteko plana
22:00 Planik bai?
22:20 Berriak
22:40 Eguraldia
22:43 Magazinea
23:28 Klaketa
00:18 Berriak
00:38 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 19



'AsteOn'

Euriteek ortuetan eragindako kalteei buruz hitz egingo dugu baserritarrek, besteak beste. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Gurean gaur
13:40 Onein
14:10 Ikusmira
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 AZK2012
15:58 Laino arteko plana
16:28 Beranduegi.tv
16:58 Zorion Agurrak
17:03 Planik bai?
17:23 Berriak
17:43 Eguraldia
17:46 Planik bai?
18:06 Altxorren bila
18:37 Zorion Agurrak
18:40 28.Klip
19:12 Ikusmira
19:27 Beranduegi.tv
19:57 Zorion Agurrak
20:00 Berriak
20:25 Eguraldia
20:29 Planik bai?
20:51 Gurean gaur
21:27 AZK2012
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Klaketa
23:28 AsteON
23:58 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

'Ninika' dantza ikuskizunerako sarrerak zozketan

Hilaren 21ean, domekan, 17:00etan Amaia antzokian Elirale Iparraldeko taldeak *Ninika* dantza ikuskizuna aurkeztuko du. Bertara joateko sarrerak lortzeko, hartu parte zozketan 943 25 05 05 telefonora deituta edo *irratia@goiena.com* helbidera mezua bidalita.

Udaberriko Hitzaldi Zikloa hizpide gaur, astelehena

Eguaztenean, hilak 17, eman go zaio hasiera aurtengo Udaberriko Hitzaldi Zikloari. Aurtengo edizioari buruz bertan izango ditugu Kepa Urteaga kultura zinegotzia eta Xabier Zubizarreta Zuztarrak Errotuz taldeko kidea gaur, astelehena, 11:00etan Arrasate Irratian.

Zapatuko baseritarren azoka berbaigai 107.7an bihar, martitza

Zapatuan, hilak 20, ospatuko da baseritarren azoka Arrasaten eta azoka horixe izango dugu berbaigai, besteak beste, martitzeneko elkarrizketaren tartean, 11:00etan. Marga Garmendia Enplegu eta Garapen teknikaria izango dugu xehetasun guztiak kontatzen Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioko uhinetan.

TELE-ALBISTEAK

'Magazinea' saioa gai ugarirekin dator beste aste batez

Debagoieneko Trikitilari Eguna izango dugu hizpide gaur, astelehena, besteak beste



Txomin Madina aurkezlea. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Aste honetan ere izango da zertaz informatu eta zertaz gozatu Goiena telebistako *Magazinea* saioan astelehenetik eguenera bitartean, 20:15ean.

Astelehena

Gaur, astelehena, Debagoieneko Trikitixa eguna izango dugu berbaigai Adolfo Jainagarekin. Hilaren 20an, zapatuan, ospatuko da egun hori Elgetan eta nondik norakoak kontatuko dizkigu Jainagak saioaren lehenengo tartean. Bigarrenean, tertuliarako aukera izango dugu eta Karlos Etxaniz eta Julen Abasolorekin batera, gaurkotasuneko gaiak jorratuko ditugu.

Martitza

Gu ere harrera familia gara izeneko dokumentala aurkeztuko dute eguaztenean Arrasaten ZuOndoan taldeko kideek eta beraiekin dokumental berri horri buruz hitz egingo dugu hasteko. Ondoren, ekonomia tartean, errenta aitoren kanpainari buruz hitz egingo dugu.

Eguaztena

Eguaztenean, berriz, Arrasateko Udal Prebentzio sailak antolatuta egin diren nerabeen eta nerabezaroaren inguruko hitzaldiei buruz hitz egingo dugu. Hitzaldiok 12 eta 18 urte bitarteko nerabeen gurasoei zuzendutakoak dira eta Agipad elkarteok eman dituzte saioak. Agipad elkarteak da Ikerketa eta Drogen Abusuaren Prebentziorako Gipuzkoako Elkarteak. *Magazinea*-ren bigarren zatian, osasun tartean, Eskoriatzan joan zen astean ospatu zen Osasun Astea izango dugu hizpide Rosa Lasagabaster kirol teknikariarekin. Eta amaitzeko, lehiaketa izango dugu ikus-entzuleek bertara deitu eta sariak irabazteko.

Eguena

Loramendi elkarteak prestatzen ari den *Prosaka.eus* ikuskizun berria izango dugu berbaigai eguenean saioaren lehenengo zatian. Kepa Errasti eta Kepa Jauregi izango ditugu gurean. Eta ondoren gazteen tertulia izango dugu.

Asteburuko kirola, 'Harmailatik'-en gaur, astelehena

A.T. | ARRASATE

Asteburuan hainbat kirol partidu izan dira Debagoienean eta Goiena telebistako kamerak horietako batzuk jasotzen izan dira.

Harmailatik kirol saioan Mondra futbol taldeak Real Unionen aurka domekan jokatutako partidua ikusi ahal izango duzu, besteak beste. Partiduen kronika entzun ahal izango duzue eta joko garrantzitsuenak ere ikusi ahal izango dituzue.

Bestalde, Ford Mugarri eskubaloit taldeak Egiaren aurka jokatutako partiduan gertatutakoak ere jasoko ditugu.

Hori guztia eta gehiago ikusi ahal izango duzue gaur, astelehena, Xabier Urzelaik aurkeztutako saioan 22:00etan.

ZORION AGURRAK

Zorion
agur
gehiago:
39. or.

BERGARA Iban Da Silva
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, aitaxo! Egun ona pasatu eta goxoki batzuk erosi! Maitxe zaitzugu! Besarkada bat etxeak, Uxue ta bereziki Kenarren partetik.



ARETXABALETA Nerea Gabilondo Aizpurua
Apirilaren 20an, 8 urte. Zorionak, Nerea! Ondo pasatu zure eguna! Patxo bat Manex eta Maddiren partetik.



ARRASATE Ane Saizar Cazalis
Apirilaren 19an, 7 urte. Zorionak, neska handi! Ondo pasatu zeure egunian. Patxo potolo bat zure ahizpa Itxaso, ama eta aitaren partetik.



ARETXABALETA Irati, Elene eta Paule Mendieta
Iratik apirilaren 7an, 9 urte eta Elenek eta Paulek apirilaren 19an, 6 urte. Zorionak, printsezak! Patxo potolo-potolo pila!



ARRASATE Maria Pilar Bruña
Apirilaren 19an, 73 urte. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta bazkari eder batekin ospatuko degu. Patxo potolo-potoluak Ekaitz eta Iratiren partetik.



OÑATI Nahia Guridi Olalde
Apirilaren 18an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Azkenian iritsi da zure eguna. Ondo pasatu eta patxo potolo pila bat aitaxo, amatxo eta bereziki Danelen partetik.



BERGARA Hodei Elkorobarrutia Berezibar
Apirilaren 18an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Hiru urte! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik. Bereziki aitaxok eta amatxok.



ARRASATE Lide Azkarate Ojanguren
Apirilaren 18an, 7 urte. Zorionak, Lide! Amatxo, aitaxo eta Garazi.



ARETXABALETA Kaiet Pando Egurza
Apirilaren 18an, 6 urte. Zorionak, dinosauro txiki! Oso egun ona pasatu! Zure familia osoaren partetik.



BERGARA Julen Unamuno Marzan
Apirilaren 17an, 4 urte. Zorionak, Julen. Belarritik lau tirakada zuretzako Ekaitz, aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik. Egun polita pasatu.



ARETXABALETA Beñat Zubizarreta Uribarren
Apirilaren 17an, 4 urte. Zorionak, pixpirin! Lau urte jada! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta marrubizko pa handi bat! Laidak, aitaxok eta amatxok.



ESKORIATZA Itziar Bengoa Muxika
Apirilaren 16an, 6 urte. Zorionak, Itziar. 6 urte! Patxo bana etxeak partetik.



ESKORIATZA Galder Isasmendi Martinez
Apirilaren 16an, 11 urte. Zorionak, mutikote, eta infinitu muxu eta maitasuna zuretzat, zure arreba Amaiur, Goizeder, aita eta ama eta familia osoak.



ELGETA Urtzi Sarasua Zeberio
Apirilaren 16an, 4 urte. Lau urte eta terremoto hutsa oraindik ere. Segi horrela, alai-alai! Musu bana etxeak partetik: Ander, aitaxo, eta amatxo.



BERGARA Oihan Leston Ezenarro
Apirilaren 16an, 4 urte. Zorionak, pirata! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu potolo bat etxeak eta, bereziki, Marenen partetik!



ARETXABALETA Maren Oroiz Antoñana
Apirilaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Maren! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetzean, preziosa! Musu potolo bat etxeak partetik, eta batez ere, Naiarak, Nereak eta Oierrek.



BERGARA Amaiur Olabarria Arrizabalaga
Apirilaren 15ean, 7 urte. Zorionak eteko danen partetik eta muxu potolo bat gure printzeari. Ondo pasa, mahats pasa!



ARRASATE Aisha Luengo Elgoro
Apirilaren 15ean, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Muxu handi-handi bat Eder, Luken eta eteko danen partetik!



ARETXABALETA Iñaki Iturbe Jausoro
Apirilaren 15ean, 42 urte. Zorionak, Iñaki! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat Iker, Malen eta Amaiurren partetik.



BERGARA Ibai Osoro Agirre
Apirilaren 14an, 5 urte. Zorionak, Ibai, zure bosgarren urtebetetzean, etxeak partetik. Bereziki Beñatek.



BERGARA Ainhoa Gallastegi Visitacion
Apirilaren 14an, 8 urte. Zorionak, Ainhoa. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA Asier Markez Gil
Apirilaren 14an, 2 urte. Zorionak!



OÑATI Oier Laka Sansinenea
Apirilaren 14an, 3 urte. Zorionak, Oier, zure hirugarren urtebetetzean! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi-handi bat familia danaren partetik!




BERGARA Paulo Gabilondo Zumarraga
Apirilaren 14an, 5 urte. Zorionak, maitxia! Muxu potolo bat eta indarra hartu, bost kandela dira-eta dagoeneko!



ARETXABALETA Jurgi Larrinaga Aranburu
Apirilaren 14an, 5 urte. Domekan 5 urte. Zorionak, Jurgi! Primeran pasatu eguna eta muxu erraldoi bat familiako danen partetik.



ARRASATE Ekaitz Zulueta Algorta
Errepublikaren egunean, apirilaren 14an, hiru urte. Barre eta barre, danak alaitzen jarraitzen dauden geure mutiltxuarentzako, moso handi bat eta zorionak!



OÑATI Alaitz Lazkanoiturburu
Apirilaren 14an, 13 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eta disfrutatu eguna. Bihotz-bihotzez zure familia guztiak opa dizugu, eta bereziki OSI taldekoek.



ARRASATE Oier Armendia Zallo
Apirilaren 14an, 6 urte. Zorionak, Oiertxo! Jadanik sei kandela jarriko ditugu guztion artean jango dugun txokolatezko pastelean! Patxo handi-handi bat etxe guztion partetik!




ARRASATE Unax Goñi Jauregi
Apirilaren 13an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Zorionak etxeak partetik! Muxu potolo handi bat!



OÑATI Raket Santos Conde
Apirilaren 13an, 29 urte. Zorionak, amatxo, eta urte askotarako! Peru eta aitaxoren partetik patxo handi bat! Zorionak!



ARETXABALETA Xabier Gabilondo
Apirilaren 13an, 8 urte. Zorionak, zure zortzigarren urtebetetzean! Ondo-ondo pasatu eta muxu pila bat aitaxo, amatxo eta etxe denen partetik. Aupa erreala.



ARRASATE Aiur Zubia Iturbe
Apirilaren 13an, 2 urte. Zorionak, potxolo! Ondo pasatu gaurko eguna eta muxu handi bat familiaren partetik. Maite zaitzugu, matrakilo!



ARRASATE Maialen Velez de Mendizabal Otero
Apirilaren 13an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean eta muxu handi-handi bat etxe guztien partetik!



LEINTZ GATZAGA Ganix Otazu Arzelus
Apirilaren 13an, 4 urte. Aupa, Ganix! Zorionak eta patxo handi bat etxe danen partetik!



OÑATI Iban Perez
Apirilaren 13an, 27 urte. Zorionak, osaba Piban! Ea ba bazkari on batera gonbidatzen gaituzun, pastel eta guzti, jejeje... Muxutxu asko familia guztiaren partetik baina bereziki, Mario eta Enzok.



OÑATI Enaitz Gondra Kortabarría
Apirilaren 13an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Besarkada erraldoia etxeak partetik.



ARRASATE Izadi Bragado Alvarez
Apirilaren 12an, 2 urte. Zorionak, politxoi! Ondo pasaizu zure eguna. Patxo handi bat, aitaxo, amatxo eta etxeak partetik.



ARETXABALETA Aner Sanchez Borrego
Apirilaren 12an, 4 urte. Zorionak, bitxito! Zelako handi egin zaren. Lau urte! Oso ondo ibili zure egunean. Patxo handi bat etxeak eta, bereziki, zure anaia Liharren partetik!



ARAMAIO Amaiur Arana Ajuriagerra
Apirilaren 12an, 9 urte. Zorionak, neska handi! Dagoeneko bederatzi urte! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, etxe danen partetik! Muxu handi bat!



ARAMAIO Nahia Garcia Bidaburu
Apirilaren 12an, 6 urte. Zorionak, bihotza. Ondo eta pozik ospatu zure eguna lagun eta familiarekin.



ARETXABALETA Malen Kortabarría Iturbe
Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak, Malen! Jada bost urte! Patxo handi bat familiari danaren partetik.



ARRASATE Laia Ezkurra Iturbe
Apirilaren 12an, urtebete. Gure printzesik urtebete! Zorionak, maitti! Etxeko danen partetik muxu potoluak barra-barra.



ARETXABALETA Eider Cabero Del Fresno
Apirilaren 12an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo-potolo bat familia danaren partetik!

ZORION AGURRAK



BERGARA Erik Rodriguez Larrañaga
Apirilaren 12an, urtebete. Zorionak, potxolito! Patxo handi bat aitaxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE Pako Robles
Apirilaren 11n, 62 urte. Zorionak eta muxu handi bat Euskal Herriko potxolo eta guapoenari, etxekoan partetik.



BERGARA Nora Larrea Gantxegi
Apirilaren 11n, 6 urte. Zorionak, printzesa! Sei urte! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu potolo bat familia guztiaren eta bereziki Aner eta Unaxen partetik.



BERGARA Ane Gartzia Perez
Apirilaren 11n, 6 urte. Zorionak, neska handi! Egund politxa pasatu deizula. Patxo potolo-potolua familia danaren partetik eta bereziki, Ander, Jurgi, Elene, Erik eta Norak.



OÑATI Izaro Bellido Gonzalez
Apirilaren 10ean, urtebete. Zorionak, printzesa! Urtetxo bat duzu dagoeneko, maittia. Muxu handi eta pottolo bat danon partetik.



ARETXABALETA Danel Gonzalez Gonzalez
Apirilaren 10ean, urtebete. Zorionak, Daneltxo! Muxu handi bat etxeko danen partetik!



OÑATI Oier Larrañaga Etxeberriarteun
Apirilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Oier. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE Markel Algaba Arrese
Apirilaren 10ean, urtebete. Zorionak, Markeltxo, zure lehen urtebetetzian! Mila muxu familia osoaren partetik, bereziki Malenek.



ARRASATE Irene Iturbe Ceme
Apirilaren 9an, urtebete! Zorionak, printzesa, belarritik tirakada bat eta marrubizko patxo potolo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE Ane eta Uxue
Apirilaren 10ean, 7 urte. Zorionak, printzesak! Ondo-ondo pasatu! Zuen familiaren partetik, patxo potolo-potolo bat! 7 eta 5 urte. Guau!



OÑATI Argoitz Arregi Uzuriaga
Apirilaren 9an, 22 urte. Zorionak, tio Argo! Ondo pasatu zure egunian eta urte askotarako, etxekuen eta, batez be, Enaitzen partetik! 22 laztan eta tirakada handi!



OÑATI Eider eta Maren Calzada Guridi
Apirilaren 9an, 3 urte. Zorionak! Etxeko sorgintxoek jada hiru urtetxo bete dituzte. Ondo-ondo pasatu zuen eguna, aitaxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA Iraide Zabala Frutos
Apirilaren 9an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ederki ospatuko dugu zure urtebetetzea. Marrubizko muxu handi bat Oinatz, aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI Leire Maiztegi Lete
Apirilaren 8an, 2 urte. Zorionak eta patxo potolo bat, sorgintxo, Oñatiko ete Antzuolako familia danaren partetik, batez be Maialenek. Ondo pasatu eguna.



BERGARA Gorka Maiztegi
Apirilaren 8an, 23 urte. Zorionak, Gorka, eta urte askotako! Kuadrillakuen partetik!




ARRASATE Iraia Apaolaza Arregi
Apirilaren 7an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu urtebetetzean eta ea olatu asko hartzen ditugun udan. Muxu bat Ibai, aita eta amaren partetik.



OÑATI Leire Sagastume Garin
Apirilaren 5ean, 18 urte. Zorionak, Leire! Azkenian 18 urte. Espero dot ondo pasatu izana zure eguna. Juerga asko? Egongo gara. Eta segi horrela, hain maja. Etxekoan partetik.



OÑATI Aitziber Gorostiza
Apirilaren 4an, 38 urte. Zorionak, guapetona! Espero dot ondo pasatu izana zure urtebetetzia. Muxu handi bat. Egon nintzan gau hartan zerura begira, eh? Ia asmaitten dozun zein naizen.



BERGARA Aitana Aristegi Iturralde
Martxoaren 31n 6 urte. Zorionak printzesa! Belarritik tirakada pila bat hainbeste maite zaituen familiaren partetik. Segi horren ederra izaten! Aroa, Ender, aitaxo eta amatxo.



ARRASATE Ihabar Nalda Gonzalez
Martxoaren 30an, 3 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Uxueren partetik.



OÑATI Jovita Artabe
Martxoaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama Jovi! Horrelako guapa eta alai jarraitu. Ea ba txokolate goxo batera gonbidatzen gaituzun... Muxutxu potolo asko familia guztiaren partetik. Bereziki, Oñatialekuak!



ARETXABALETA Judith Eraña
Zorionak, supertia! Zer moduz pasatu zenuen eguna? Oporretan eguzkia hartzen, ezta? Beno ba hola guapa eta alai jarraitu eta muxutxu potolo pila-pila bat familia guztiaren partetik. Bereziki, Oñatialekuak!



ARETXABALETA Oihane eta Lander Valle Perez
Landerrek martxoaren 31n, 4 urte eta Oihane apirilaren 6an, urtebete. Etxekoan partetik zorionak eta muxu handi bat. Mua, potxolos.

Zorionak!

Internet

Sar zaitzez goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurak@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitzez GOIENAKo ordezkari batara.

JAIOTAKOAK



Arene Tierno Moreno

Gasteiz. 3,370 Kilo. Martxoaren 30a. Gurasoak: Ivan eta Alai. Argazkian, amatxorekin.



Xabat Aramendi Diaz

Oñati. 3,270 Kilo. Apirilaren 7a. Gurasoak: Jon Ander eta Oihana. Argazkian, Xabat sehaskan lo.



Maialen Bretaña Murillo

Bergara. 3,400 Kilo. Apirilaren 6a. Gurasoak: Marcela eta Roberto. Argazkian, Maialen amama Mariarekin.



Markel Unamuno Arribas

Aretxabaleta. 3,200 Kilo. Apirilaren 7a. Gurasoak: Iratxe eta Mikel. Argazkian, Markel gurasoekin.



Enara Leria Conde

Bergara. 3,430 Kilo. Apirilaren 10a. Gurasoak: Saioa eta Josu. Argazkian, Enara amarekin.



Ihintza Louvelli Urrutia

Aretxabaleta. 4 Kilo. Apirilaren 11. Gurasoak: Eneritz eta Iñigo. Argazkian, Ihintza amaren besoetan.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Saskia beharrean, kutxatxoa

Piknika egitera irteteko orduan, jan-edanak non jarri izaten da askotan arazo. Bizikleta honekin, arazoa konponduta.

www.nopuedocreer.com



"Zer dago Sara Montielen hil-autoaren barruan?"

MARILO MONTERO | TELEBISTAKO AURKEZLEA

Ze erantzun espero zuen aurkezle nafarrak? Elefante bat? Harribitxi mordo? Edo puru kaxa bat? Egia da edonork izan dezakeela hanka-sartze bat, baina Monteroen kasuan hanka-sartze eta polemikak ohikoegiak bilakatzen ari dira.

"Las mañanas de La 1"



Max. 19°

Min. 9°

Astlehenean iparraldeko haizea ibili eta temperatura jaitsiko da.

euskalmet.net

ASTELEHENEOA

goiena

2013-04-15

HAMARREKOA

Jexux Mari Irazu Larraulgo semea, bizitza erdia baino gehiago daroa plazaz plaza; txapela eskuratu ez arren, ondo ezagutzen ditu Gipuzkoako eta Euskal Herriko bertso txapelketen finalak | TXOMIN MADINA

"Plazaz plazako ibiliak antropologiatik asko du"

1. Hogeit urtetik gora plazatan. Nola gogoratzen duzu lehena?

Hernaniko Florida auzoan izan zen, hemeretzi urterekin, Joxe Mari Mujika *Anatx*-en eskutik. Mimo handiz gogoratzen dut, plaza bera, eta plaza aurreko egunen irrika.

2. Bertso eskolatik pasa barik bertsolari izango zinatekeen?

Ez. Jardun gabe ezin da bertsolari izan; jarduteko behar da talde bat, kantu gune bat, jarri bertso-eskola izena, edo beste bat. Nik uste bertsolari denak pasa direla kontzeptu ezberdinetako bertso-eskolatik.

3. Hainbat finaletan egon arren, txapelak beti ihes. Arantzatorik?

Bai; ez txapelagatik, zenbaitetan nezakeenik ez egiteagatik baizik. Aurten ere bertso on batzuk utzi nahi nituzke Euskal Herrikoan.

4. Ikasketaz, filosofo eta antropologoa. Zure bertsoak, besteenak baino sakonagoak dira?

Batzuetan bai, bestetan ez. Antropologia eta filosofiaren aurretik bertsoa nuen gogoan. Bertsoek badute zerikusia pentsamendurekin eta plazaz plazako ibiliak antropologiatik asko du.

5. Ofizioetan, zelako rolet ematen dizute beldur gehien?

Behin, atxilotu berri zituzten lauren aldeko bertso afarian, polizia lanean jarri ninduten, afaltiarren artean susmagarriak identifikatzen... Ez da beldur kontua. Ez naiz errealtatea behartzeraino fribolizatu zalea, ezta absurdoaren izenean ere.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Askatasun haizeak bidaliko nituzke"

"Rol hauek ematen didate beldurra. Askatasun haizeak bidaliko nituzke, kartzelak hustu, krisia bidali, berotu ona eman hainbeste lapurri... Ez dago samurra. Akaso, denbora gehiegi egon gara makila magikoaren zain; denak ere ez dira neurri berekoak. Saiatzen naiz sinesten dudanaren alde ahal dudana egiten etxean, herrian eta Euskal Herrian".

6. Bertso-afarietan, ardoa edo ura?

Normalean biak, eta txofer banaiz, ardoarekin hasi eta urarekin bukatu.

7. Elkarrizketetan sarri eskatzen zaizue bertsolari bertsotzat botatzea. Graziarik egiten al dizue?

Kuriosoa da, bai; Mikel Gonzalez elkarriketa bukaeran penalti bat botatzeko eskatzea bezala da, baina... Batzuk badute kapritxo hori.

8. Bertsoak.com sortu zenuen. Interneten ez dagoena, ez dago?

Ez da egon edo ez. Kultur eremuek komunikazio espazioetan egon egin behar dute, noski. Baina, nola egon ere badago alde. Eta handia. Bertsoak.com sortzeko, ikusi nuen sareak eskaintzen zuela plazako bertso-gintza eta bertsolaritza bertsozaleei zabaltzeko aukera ederrik. Orain ikusten dut beste jauzi bat emateko moduan egon gintzekeela.

9. Okupa izan denaren ikuspuntutik, nola ikusten duzu egun etxebizitzaren kontua?

Drama bat da. Drama izugarri bat. Jendea kalean, bere buruaz beste egiten, inguruetan lapurrak besterik ez... Eta gu etxeetako balkoietan zabor poltsak jartzen...

10. "Larraul? Eta hori non dago?" Zenbatetan erantzun behar izan diozu horri?

Ernio magalean esaten diet nik, edo Bernardo Atxagaren aitona sortu zen herrian. Horrela, konforme gelditzen dira.

AZKEN BERBA

ITXARO ARTOLA



Zergatik izan feminista

Ezin dut ulertu emakume batek feminista ez dela esatea. Bere buruari harriska egitea da nire ustez. Nor izateari uko egitea. Ez dudalako ikusten emakume beregaina izateko modurik ez bada feminismitik. Gizonen kasuan ere, itsukeria eta sentibiltate falta larria iruditzen zait feminismoari bizkar ematea. Ez soilik emakumeen egoerarekiko, baizik eta, oro har, bidegabekeria sozial ororekiko. Horien guztien erantzulea bat eta bera delako: patriarkatutik eraikitako eredu sozioekonomikoa. Egia izan arren feminismoaren sorreran xedea emakumeen diskriminazioarekin bukatzea zela, denboraz garatu diren korronteek ikuspegi zabalagoz fokatu dute arazoa. Alegia, kontua ez da bakarrik emakumeen egoera hobetzea, baizik eta, horretarako, jendarte-eredua aldatzea. Eta horrek egiten du beharrezko feminismoa, edonorentzat. Feminista izatea solidario izatea delako. Aniztasuna aintzat hartzea. Aukera berdintasunean sinestea. Justizia sozialaren alde borrokatzea. Talde kontzientziak jokatzea. Botere erlazio oro zalantzan jartzea... Hau da, sistema iraultzeko behar duguna. Baita gure herriari etorkizun benetan desiragarri bat emateko ere. Badatoz Arrasateko Jardunaldi feministak. Ea esnarazten gaituzten.



AUDIFONOETAN
%20
ARTEKO BEHERAPENA
MAIATZAREN 31
ARTE

ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA
USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

GAESen ENTZUMENA DOAN
aztertuko dizugu.

Eta orain gainera zorro tolesgarri bat opari.

www.gaes.es



* Kontsulta itzazu zentroan, promozioaren baldintzak

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • BERGARA